

KSlak Euskadin

Euskal kultura- eta
sormen-sektorearen
garapenean zehar
ibilbidea

Aurkibidea

Egin klik
Aurkibidera
sartzeko

2010-2023



*** Dokumentu hau Acrobat Readerrekin ikusten da erarik egokienean.
Nabigatzaile batetik zuzenean irekiz gero, baliteke funtzionalitate batzuk
behar bezala ez ibiltzea.

KSlak Euskadin

Euskal kultura- eta sormen-sektorearen garapenean zehar ibilbidea

Aurkibidea

Sarrera
7

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuorde ohia Joxean Muñoz egindako elkarrizketa
9

Euskadiko KSlen garapenearen kronologia (2012-2013)
20

0 Fasea

Jatorria (2012. urtea baino lehen)
24

1. Fasea

Euskadiko KSlak ikertzea (2012-2015)
38

KSlen mugaketa kontzeptuala: hurbilketa kualitatiboa
38

Hurbilketa kuantitatiboa: KSlen inguruko zifrak
40

RIS3: KSlak aukera-lurralde gisa
42

2. Fasea

KSletan sakontzea (2016-2018)
56

Kultura- eta sormen-sektorearen ezagutza finkatzea
57

CREADIS3: lurralde-politika publikoen koordinazioa
61

KSlak babesteko zeharkako politikak
65

KSletako azpisektoreen mugaketa kontzeptuala
75

Sormen-industrien estatistika
77

*** Argitalpen honen edukiak 2019ko urritik 2020ko martxora bitartean landu ziren, Covid-19k eragindako pandemiaren aurretik.

3. Fasea

KSlen etorkizuna (2019)
92

KSlak babesteko zeharkako politikak: urrats bat harago
92

RIS3 estrategiaren barruan kultura- eta sormen-sektoreak lehenestea: lankidetzaz-eraketa
97

Cross-fertilization, elikaduraren eta KSlen aukera-lurraldeen artean
99

Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutiaren (BDCC) pilotuaren diseinua
101

4. Fasea

Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutia – BDCC (2020-2023)
116

Pilotuaren inplementazioa eta BDCCren sendotzea (2022)
117

I+G+B estrategia Euskadiko kultura- eta sormen-sektorean
118

Kultura- eta sormen-industrien finantzaketa publikoari buruzko estatistika
121

Cross-fertilization: osasun pertsonalizatua eta hiri jasangarriak
121

Ondorioak
130

Erreferentziak
132

Biografiak
136



Klik egin eta nabigatu fasetan zehar


*** Dokumentu hau Acrobat Readerrekin ikusten da erarik egokienean. Nabigatzaile batetik zuzenean irekiz gero, baliteke funtzionalitate batzuk behar bezala ez ibiltzea.

KSlak Euskadin

Puntuek lerroak marrazten dituzte, lerroek formak sortzen dituzte eta formek gizarteak eraikitzen dituzte.

Sormena zerbait desberdina sortzeko gaitasuna da, hutsetik edo lehendik dauden elementuetatik abiatuta. Argitalpen honen diseinuak sorkuntza-prozesu baten ibilbidea adierazten du. Oinarrizko hiru elementuak gogorarazten dira: hutsa zero fasea bezala, puntua lehen adierazpen grafiko bezala, lerroa puntu segida bezala eta planoak lerro segida bezala (*Puntua eta lerroa planoaren gainean*, Vasily Kandinsky). Hala, Euskadiko KSlen azkenaldiko bilakaera berria osatzen duten fase kronologiko bakoitza puntu kopuru bereko elementu grafiko batekin irudikatzen da: puntua, lerroa, triangelua eta karratua. Ikonografia honen sorkuntzak kontakizun hau osatzen duten “fase” kronologikoak bereiztea ahalbidetzen du, “Esperientziekin” eta “Ahotsekin” konbinatuta.





Klik egin eta nabigatu fasetan zehar

KSI

Sarrera

Bingen Zupiria

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua
Eusko Jaurlaritza




Argitalpen honetan, ibilbide kronologiko bat egin dugu Euskadiko kultura- eta sormen-sektoreak azken urteetan izan duen bilakaeran zehar, eta honako alderdi hauek landu ditugu: erakundeek KSlen sektorea ulertzeko eta babesteko egindako azterlanak eta ahaleginak, KSlen mugaketa kontzeptuala eta sektoriala, azterketa kualitatibo eta kuantitatibo berrien garapena edota babes-tresna berrien inplementazioa askotariko esparruetan, hala nola berrikuntzan edo nazioartekotzean. Argitalpenaren amaieran, CREADIS3 proiektuaren edo BDCCren (Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutia) esparruan garatutako ekimenak azaltzen dira, eta ekimen horiek etorkizunerako ildo batzuk iradokitzen dituzte Eusko Jaurlaritzak KSlen alde berrikuntza eta garapen sozioekonomikoaren eragile direlako egindako apustu instituzionalari dagokionez.

Lehen fasean edo 0 fasean, euskal kulturaren eta sormenaren sektorea sendotzeko 2012. urte aldera hasitako eta hurrengo urteetan egindako lan handiari bide eman zioten jatorriak azaltzen dira. Ondoren, I. faseak Euskadiko KSlen errealitatea egindako lehen hurbilketak aztertzen ditu, kualitatiboak eta kuantitatiboak (2012-2015), eta, jarraian, II. fasean errealitate

horri buruzko ezagutza sakontzen da (2016-2018 aldia). III. fasea 2019. urteari dagokio, eta kultura- eta sormen-sektorearen etorkizuneko garapenaren oinarriak diseinatzeko eta ezartzeko ekintzak eta ekimenak agertzen ditu, bereziki Euskadiko RIS3 (Research and Innovation Strategy for Smart Specialisation) estrategiaren esparruan. Azkenik, IV. faseak (2020-2023) Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutia (BDCC) azaltzen du, leihatila bakarraren eta KSletarako eremu anitzeko zerbitzu-zorro integratuaren proiektu gisa.

Fase bakoitzean, Euskadiko KSlen garapenaren kronologia xehatu bat osatzeko aldiaren mugarri nagusiak berrikusteaz gain, euskal KSletako agente publiko eta pribatuaren iritziak zein KSlei lotutako jardunbide egokiak txertatzen dira.

Azkenik, argitalpen honen bidez euskal kultura- eta sormen-sektorearen aniztasun eta aberastasun handia eman nahi da ezagutzera, sektore guztiak eta Euskadiko lurralde osoa aztertuta. Argitalpen hau lantzeko, KSlen ekarpena ordainezina izan da. Argitalpenaren edukia, halaber, Euskadiko garapen sozioekonomikoarekin duten konpromisoa eta egiten duten ekarpena aitortzeko modu bat da.



KSIak Euskadin:

Euskal kultura- eta sormen-sektorearen garapenean zehar ibilbidea
8 | KSI |



Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuorde ohia Joxean Muñoz egindako elkarrizketa



KSlen JATORRIAK eta MIAKETA (2016. urtera arte)

Euskadiko KSlen garapenaren hasierako fase honetan, Europako Batzordearen Liburu Berdearen argitalpena azpimarratu behar da mugarri gisa. Zerk eraman du Eusko Jaurlaritza jarrera politiko-estrategiko horretan konprometitzera, zer aurkitu duzue, nolakoa zen kultura- eta sormen-sektorearen egoera une hartan?

Euskal kultura- eta sormen-sektorearen egungo errealitatera ekarri gaituen prozesua 2013. urtean hasi zen. Legegintzaldi horren hasieran, Cristina Uriarte sailburua zela, erronka bat izan genuen aurrean: Europak kultura- eta sormen-sektorea bultzatu nahi zuen, sektore estrategikotzat jotzen zuen, eta guk, Euskadin, ez genuen politika publikoetatik landutako kultura-industrien sektorea gainditzeko duen esparru berri horretarako politika zehaztu bat. Ordura arte Europako kultura-politikan funtsezkoa izan zena, Europa Media Planaren bidez –Ikus-entzunezko edukien garapena, Europaren apustu handi gisa– Europa Sortzailea izeneko proiektu estrategiko konplexuago baten zati bihurtu zen. Proiektu horrek kultura- eta sormen-industrien garapena sustatzen du Europako estatu eta eskualde guztietan.

Bagenekien Europar Batasunetik iritsitako eskakizunak gure politika publikoetan genuen gabezia bat agerian utzi zuela: kultura-politika kultura-esparru hertsira mugatuta zegoen (sorkuntza, artea, ondarea eta kultura-industriak: ikus-entzunezkoak, edizioa, musika, arte eszenikoak eta abar), eta garapen ekonomikoari lotutako politikak ez ziren kultura-sektorerako iristen hainbat arrazoiengatik, hala nola

sektoreak enpresaren ikuspegitik zuen egitura-ahuleziagatik, bere jardueraren berezitasunagatik eta bere balioaren izaera ukiezinagatik. Beraz, iruditzen zitzaigun kultura-jardueraren alderdi ekonomikoari ez zitzaiola behar bezalako arreta jartzen, eta gure politiketatik kanpo geratzen zirela zenbait sektore garrantzitsu, hala nola diseinua, publizitatea, eduki digitalen garapena eta arkitektura. Aurreko legegintzaldian, Eusko Jaurlaritzak sorkuntza-espazioak ("Sormen Lantegiak") babesteko ildo batzuk jarri zituen abian, kultura- eta gizarte-berrikuntzan zeharkako ikuspegi bat eta herrialdeko industriekin gurutzatzeko borondate argia agertuz lanean ari ziren kultura-eragile batzuekin lankidetzan, baina ez zen taxutu kultura- eta sormen-sektorerako politika espezifikorik.

Testuinguru horretan, Euskadin oraindik osatu gabe zegoen sektore horretarako estrategia egoki bat diseinatzeko beharra planteatu genuen. KSlen kontzeptua bera eta sormen-sektore baten ideia oso neurri txikian zegoen zabaldua gure ingurunean. Eta, beti hasten garen bezala, ezagutza-politikekin hasi ginen. KSlen sektorea ahalik eta hobekien mugatu eta Euskadin zuen egoera zehatz-mehatz ezagutu ahal izateko hainbat lan teoriko eta estatistiko eskatu genituen.

Zeregin horretarako, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) sustatutako *Sinnergiak Social Innovation* izeneko gizarte-berrikuntzako zentroaren laguntza eskatu genuen. Zentro horretako ikertzaileek (Javier Echeverría eta Alfonso Unceta buru zirela) KSlen esparruari buruzko txosten batzuk egin zituztela jakinda, eskatu genien gaia ikuspuntu teoriko orokor batetik landu zezaten, gaia bideratzeko dokumentu nagusiak EBko jarraibideak bereziki kontuan hartuta laburbil zitzaizaten eta Autonomia Erkidego osoan sektorearen errealitaterako lehen hurbilketa bat edukitzeko datuak bil zitzaizaten.

Sinnergiak zentroaren ekarpena funtsezkoa izan zen. Lehen txosten haiek eta EBko Liburu Berdearen irakurketa xehatuak lehen jarduketa-plan bat ezartzeko aukera eman ziguten, eta, aldi berean, herrialde gisa dugun errealitateari eta Europatik iritsitako jarraibideei erantzun genien. Lehenik eta behin, Euskadiko KSlen sektorea mugatu, sektorea osatzen duten azpisektoreak zehaztu eta sektorearen errealitate ekonomikoa eta enpresa-errealitatea aztertu behar zen. Halaber, administrazio-maila guztietako (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) deialdi eta programetan sakabanatuta zeuden laguntza publikoak eta euskal unibertsitateetako (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) fakultateetan eta Lanbide Heziketako goi-eskoletan eta abar eskuragarri zeuden prestakuntza-baliabideak ezagutu behar ziren. Eta, batez ere, sektoreak Euskal Autonomia Erkidegoko BPGan eta enpleguan zuen eraginari buruzko lehen txostena egin zen, eta tamainagatik eta jardueragatik eragileak izan zitezkeen enpresak identifikatu ziren. Beraz, lan teoriko, proposatzaile eta estatistiko batzuei esker, gure politikarako oinarriak ezarri ahal izan genituen eta, batez ere, beste erakunde batzuen babesa eta laguntza bilatu ahal izan genuen, hala nola Lehendakaritzarena, Ekonomiaren Garapen Sailarena eta Berrikuntzaren Euskal Agentziarena.

Arestian adierazi dugunez, gai berria zen Kultura Sailean bertan eta, oro har, Gobernuan. Hasiera-hasieratik, Lehendakariaren babesa izan genuen, baita aurrez Gipuzkoako Foru Aldundian izan zituen erantzukizunen barruan gai horiek jorratu zituen Ekonomiaren Garapen Saileko kabineteburu Jon Basterraren konplizitatea ere. Izan ere, Sinnergiak zentroari eskatutako lanak elkarren arteko adostasunez eskatu ziren, eta batzuk adierazitako Sailak finantzatu zituen. Ibilbideari ekiteko modu bat zen, Kultura Sailaren eta Ekonomiaren Garapen Sailaren arteko lankidetzan, eta hori funtsezko alderdietako bat izan zen KSlak garatzeko politiketan. Nolanahi ere, geroago aztertuko dugu alderdi hori.

Kultura- eta sormen-sektorerako politika propio baten oinarriak finkatzeko unean geunden. Lehenik eta behin, EBko Liburu Berdeari jarraikiz, garbi utzi nahi izan genuen kultura- ETA sormen-sektoreaz ari ginela, eta Bruselak kultura-industrien eta sormen-industrien artean ezarritako bereizketari jarraitu genion. Sinnergiak zentroaren sintesi-lanek garbi azpimarratzen zuten alderdi hori. Ikusi genuenez, zenbait diskurtsotan eta Europako zenbait eskualdetan kultura “sormen” kontzeptuan disolbatzeko eta sektore horretarako politikei enpresa-garapenera eta garapen ekonomikora bideratutako oso ikuspegi ekonomizista batekin ekiteko joera zegoen, kulturaren berezko balioa itxuragabetzeko arriskuarekin. Horren aurrean, funtsezkoa iruditu zitzaigun Throsby-ren zirkulu zentrokideen

eredua erabiltzea, eredu horrek alderdi ekonomikoez haratago zaintzen baititu kultura-balioak; hau da, kulturak duen balio ekonomikoa azpimarratzen du, baina kultura-esparrua zehazten duena ez da balantze ekonomikoa, kultura-balantzea baizik, kulturaren ekarpen soziala eta kohesioari, gaitasun kritikoari eta gizarte sortzaile baten garapenari egiten dion ekarpena kontuan hartuta. Nire ustez, garrantzitsua da definizio bikoitz horri eustea (kultura- eta sormen-industriak). Kultura Sail gisa, kultura-sektorea bultzatzen eta kultura-balioak finantzaketa publiko bidez babesten jarraitzea da gure asmoa. Ezin dugu kultura berehalako errendimendu ekonomiko baten esku utzi, ezin baitugu era komertzialean funtzionatzen duenera, merkatuan errentagarria denera murriztu, bereziki gurea bezalako herrialde txiki batean. Izan ere, gure herrialdeak kultura-nortasun propioa defendatzen du, hainbat mendetan baztertuta eta gutxituta egon den hizkuntza propioa du —euskara— eta, beraz, merkatu txikia eta ahula du. Baina, aldi berean, KSlen inguruko politika espezifikoetatik abiatuta (eta, berriz diot, politika horiek ez dute kultura-politika ordeztzen, zabaldu eta osatu baizik), iritsi ezin ginen sektoreetara ireki nahi genuen, eta jardueraren alderdi ekonomikoa sendotu eta sektorearen eragin ekonomikoa eta BPGari, enpleguari eta berrikuntzari egiten dion ekarpena azpimarratu nahi genituen. Eta horretarako, funtsezkoa zen Ekonomiaren Garapen Sailarekin batera jardutea.

Hortaz, hain barne-kultura desberdinak zituzten sailen arteko lankidetzak hori funtsezkoa eta, aldi berean, oso zaila zen. Liburu Berdeak lankidetzak hori formulatzeko eta KSle lotutako politikak batera garatzeko premia azpimarratzen du, eta, arestian esan dugunez, hasieratik ekin nahi izan genion lanari. Bide luzea eta zaila da, eta gauza asko ditugu ikasteko denok. Oraindik bide hori sortzen ari gara.

Hasierako beste kontu bat sektore hori gure herrialdean definitzea izan zen, hau da, Euskadiko KSle buruz hitz egiten dugunean zertaz ari garen zehaztea. Horretarako, gure errealitateari erantzungo zion eta, aldi berean, beste eskualde eta herrialde batzuetan planteatzen zenarekin homologatu ahal izango zen metodologia bat erabili behar zen. 15 azpisektoreko zerrenda bat egin genuen, eta bi sektore berezi sartu genituen bertan: hizkuntzaren industriak eta gastronomia sortzailea. Lehena gure herrialdeko errealitate elebidunak eta hizkuntza biziberritzeko apustu politiko, sozial eta ekonomikoak berritzen eta nazioartekotzen ari den elkarte- eta enpresa-sare bat sortu dutelako. Euskadiko goi-mailako gastronomiaren garrantzia, berritzeko duen ahalmena eta nazioarteko proiektzioa azaldu beharrik ez dago.

Beraz, laburbilduz, oinarriak finkatzeko zutabeak honako hauek izan ziren: Euskadiko politikak Europako politiketan txertatzea,

sektoreari buruzko ezagutza oinarritzea, sektorea definitzea, sektorearen egituraketa bultzatzea eta hasieratik Ekonomiaren Garapen Sailarekin lankidetzan jardutea.

Hala ere, KSle lotutako politikak zabaltzeko, oraindik ez geneukan talde bat behar genuen. Sailaren eguneroko lanak harrapatuta geunden, eta ez genuen lortzen lana behar bezalako intentsitatearekin eta jarraitutasunarekin egitea. Aukera 2014. urtean iritsi zen, KSle lotutako politiketan soilik jardungo zuen pertsona bat (Juan Diego) sartu ahal izan genuenean. Juan Kultura Saileko KSletarako aholkularia zela, funtsezko hainbat proiektu abiarazi genituen: sektorea mapatzea, taxutzea, foru-aldundiekiko eta udalekiko erakunde arteko lankidetzak antolatzea, CREADIS3 proiektua hastea eta, batez ere, Euskadiko RIS3 estrategian sartzea. Hasieratik genuen asmo hori, baina ordura arte ezin izan genuen taxutu.

KSlak aukera-esparru gisa txertatu ziren RIS3 estrategian, hau da, Gobernuaren ustez espezializazio adimendunaren parte izan behar zuten, baina garapen eta hazkunde handiagoa behar zuten esparru gisa. Logikoa denez, Euskadin lehentasunezko arloak, euskal ekonomian zuten garrantziagatik, fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak ziren, eta bost aukera-espazio gaineratu zitzaizkien. RIS3 estrategian aukera-espazio gisa sartzeak aukera eman zuen sektorea taxutu eta bultzatzeko, berrikuntza-politiketan parte hartzeko, RIS3 estrategiaren gainerako arloekin lankidetzan jarduteko eta alderatzeko, eta arlo guztietan metodologia bera aplikatzeko. Testuinguru horretan, lehen gidaritzak-mahaiak osatu genituen, eta hori, nire ustez, mugarria izan zen prozesu horretan. Gidaritzak-mahai horietan, hiru erakunde-mailek (Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek) parte hartzen genuen kulturaren esparruan zein ekonomiaren garapenaren esparruan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearekin, kulturaren esparruan trakzio-funtzioa betetzen duten kultura-ekipamenduekin, sektore pribatua egituratzen duten elkarte profesional eta klusterrekin eta enpresekin.

Azpisektore guztiak (beren erakunde profesionalen bitartez) geunden lehen aldia zen. Era berean, erakunde profesionalak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) agenteekin mahaia eta metodologia partekatu zuten eta hain erakunde-ordezkaritzak konplexua bildu genuen lehen aldia izan zen. Ordura arte, ez zen izan herrialdeko hiru erakunde-mailetako kulturaren esparruaren eta garapen ekonomikoaren esparruaren arteko ezein egituraketarik. Nire ustez, argazki garrantzitsua izan zen, eta da. Sektore profesional batzuekin inoiz ez genuen mahairik partekatu. Ordura arte, elkarrizketak kultura-sailekin edota industria-sailekin egin genituen, inoiz ez biekin aldi berean eta administrazio-maila guztietan: hiriak,

lurralde historikoak (probintziak) eta Autonomia Erkidegoko gobernua.

Erakunde-alderdiari dagokionez, KSlen alderdi konplexu bati ekiteko modu bat zen. Gaiari buruzko literaturak askotan azpimarratzen du hiriek eta metropoli-inguruneek kultura- eta sormen-sektorearen garapenean duten eta izan behar duten lidergoa. Hiriek eta lurraldeek funtsezko agente gisa eta Gobernuak bultzatzaile eta koordinatzaile gisa parte hartuko zuten mahai bat antolatzeko, gobernantza partekatuan, lankidetzak-lanean eta osagarritasunean oinarritutako bide bati ekin behar zitzaion. Euskal Autonomia Erkidegoko antolamendu administratibo eta politikoa, bere konplexutasun handiarekin, oso eredu egokia zen sektorea garatzeko.

Lurralde eta hiri batzuetan, KSle lotutako politikak Kultura Sailak kudeatzen zituen, eta beste batzuetan, berri, Ekonomiaren Garapen Sailak. Gure dinamikan, gidaritzak-mahai bera partekatzen genuen denok. Eta bi esparruen artean lankidetzan jarduteko eskatzen zuen Europako jarraibidearen arabera egiten genuen aurrera. Kulturaren sektoreari berari dagokionez, mahaiaren ezohiko konplexutasunak aukera ematen zuen ordura arte urrunak izan ziren instantziekin (ZTBESarekin, industria-sailekin eta abar) elkartzeko eta lankidetzan jarduteko, gurekin ohiko loturarik ez zuten hurbileko eremuak (sormen-sektorea) ezagutzeko, eta, batez ere, ezagutzen genituenak baino ingurune konplexuagoetara igaro beharraz jabetzeko. Ingurune horietan, ordezkaritzak sektoriala egituraketa handiago batera bideratu behar zen, eta une horretan zegoen atomizazioa gainditu behar zen.

RIS3 estrategiaren parte izatea oso garrantzitsua izan zen, eta da oraindik ere. Foro horretan dugun espazioa sendotu nahi genuen, baina, nolabait ere, lehentasunezko arreta enpresa-alderdiari eta alderdi ekonomikoari eskaintzeko eskatzen zigun norabide bat genuen. Hau da, azken urte hauetan KSlak (industriak) KSSa (sektorea) baino neurri handiagoan izan ditugu ardatz. Horren funtsezko arrazoia izan zen egituratzeko genuen aukera RIS3 estrategian sartuta egoteari, esparru horretan leku bat izateari, eman zizkiguten baliabide ekonomikoak baliatzeari eta gurekin elkarreragin behar zuten solaskideek testatutako eta bermatutako metodologia bat izateari lotuta zegoela. Bide horretan jarraitu behar dugu, eta, aldi berean, zuzen-zuzenean enpresa- eta ekonomia-arlokoak ez diren alderdiak ere garatu behar ditugu, kultura- eta sormen-sektorearen ikuspegi zabalago batean sakondu behar dugu, eta agente pribatu eta publiko berriak erakarri behar ditugu dinamika horietara.

RIS3 estrategian sartzearekin eta gidaritza-taldeak antolatzearekin batera, beste aukera garrantzitsu bat agertu zen: CREADIS3 proiektua. Lehen aldia zen esparru horretan Europako proiektu batean eta, gainera, proiektuko buru gisa parte hartzen genuena. CREADIS3 proiektuak, nolabait ere, lan egin behar genuen esparrua Europa zela berretsi zuen. Beti egin dugu lan Europako beste herrialde eta eskualde batzuetan gertatzen zena kontuan hartuta eta guretzat, Gobernu gisa, baina enpresentzat ere baliagarriak izan litezkeen harremanak bilatuta. Funtsean, CREADIS3 proiektua politika publikoen arduradunetzat –policy-maker– osatutako sare bat da, baina harreman horiek beren negozio-esparru propioak garatzeko baliatu ahal izango dituzten stakeholder-ak aurreikusten ditu.

Horrela, beraz, lehen legegintzaldi horretan aurrera egin zen ezagutza-politiketan, eta legegintzaldiak honako hauek utzi ditu emaitza gisa: sektorea mapatzeko hainbat azterlan garrantzitsu, prestakuntza-baliabideak eta euskal erakunde guztietako kultura-sailetan eta ekonomiaren garapeneko sailetan sektore horretarako dauden baliabide publikoak. Halaber, gidaritzataldean bitartez, aurrera egin zen sektorea egituratzeko eta finkatzeko bidean. Izan ere, gidaritzataldeei esker, guztiak mahai batean elkar ahal izan ginen eta, zuzentzen ari ginen Europako proiektuaren bidez, ikuspegi europeista bat txertatu ahal izan genuen hasieratik.

Legegintzaldiaren amaieran (2016an), kultura- eta sormen-sektorean proiektu berritzaileak egiteko laguntzen deialdi pilotu bat jarri zen abian. Bagenekien deialdia baldintza txarretan egin zela. Izan ere, berandu atera zen (legegintzaldiaren amaieran), proiektuak aurkezteko denbora gutxirekin. Gainera, sektorearen egituraketa ahula zen oraindik, eta gure sektorearen berrikuntzarekin zer bilatzen ari ginen zehaztu gabe zegoen oraindik. Baina oso garrantzitsua zen bide horri ekitea, norabide bat ezartzea eta enpresetan berrikuntza sustatzeko eta babesteko neurriak hartzea. Era berean, enpresak erakartzeko, sektorea egituratzeko ahalegin horren hartzailak enpresak zirela jakinarazteko eta KSlen garapena berrikuntzaren ideiarekin lotzeko modu bat zen. Azken batean, hurrengo legegintzaldian egin nahi genuen bidea ezartzeko modu bat.

KSien EZAGUTZAN SAKONTZEA eta KSien ETORKIZUNA DISEINATZEA (2017-2019)

Zer dakar lehen fase honetan industria-esparrura egindako hurbilketa horrek, eta zer urrats berri egin ziren ildo horretan bigarren legegintzaldian?

Hurrengo legeingintzaldian hasieran, Bingen Zupiria sailburua zela, KSlel lotutako politikak Sailaren dinamika orokorrean era koherenteagoan txertatze aldera lantaldean jauzi kualitatibo bat emateko beharra planteatu genuen. Aurreko legeingintzaldian, erabakigarria izan zen aholkulari liberatu bat edukitzea KSlen esparrua garatzen laguntzeko. Haren lanari esker, gure politikaren alderdi garrantzitsuak finkatu ahal izan genituen, baina, nolabait ere, lan hori Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren funtzionamenduarekin batera garatzen zen. Beharrezkoa zen KSlen sektorearen hedapena Zuzendaritzaren eta Sailaren barruan hobeto txertatuta egotea eta sormen-sektorerako eta sektore horren industria-alderdietarako irekiera lagungarria izatea kultura-politikaren eta hura garatzeko aukeren ikuspegi zabalagoa, konplexuagoa eta aberatsagoa izateko. Horregatik, lantaldea konplexuago egitea erabaki genuen, eta kultura-politiketan esperientzia luzea zuten Saileko profesionalak eta enpresen kudeaketan oinarritutako ikuspegi bat ekarri zuen kanpoko aholkulari bat iritsi ziren. Talde berri bat eratu zen, eta Josean Urdangarin eta Sabin Goitia izan ziren buruak. Urdangarin kulturaren kudeaketa publikoan oso esperientzia handia zuen teknikaria zen; Sabin Goitia, aholkulari gisa, berri, enpresa-mundutik zetorren, eta hainbat urtetako esperientzia zuen, BEAZ sozietate publikoan. BEAZ Bizkaiko Foru Aldundiarena da, eta enpresen ekintzailletza, berrikuntza eta nazioartekotzea babestea du helburu; gainera, erakunde aitzindaria da Euskadin KSlak lantzeko eginkizunean. Saileko teknikariak diren eta zeregin horretan dedikazio partzialarekin diharduten Faust Kanalaetxebarriarekin eta Itziar Redondorekin batera osatu duten taldeak aukera eman digu KSlak babesteko politiken bigarren legeingintzaldian bilakaera bizkorrago eta sendoago bat izateko eta KSlel lotutako politikak Kultura Sailean ez ezik, Eusko Jaurlaritza osoan ere txertatutako gai gisa finkatzeko.

Talde berriak hainbat erronka zituen: sektorearen egituraketan aurrera egitea, enpresetan eta agenteengan eragin handiagoa izatea eta berrikuntza babesteko programak eskaintzea, RIS3 estrategian dugun parte-hartzea sendotzea (betiere berrikuntzaren ikuspegitik), Europako CREADIS3 proiektua burutzea eta, oso bereziki, kultura- eta sormen-industriak babesteko politiken garapenean Ekonomiaren Garapen Sailarekiko lankidetzat sendotzea.

Bigarren legegintzaldi horretan, KSI Berritzaile izeneko programan lan egiten hasi ginen. Sortu zenetik, denboran mugatutako proiektu gisa planteatu zen programa, eta, zehazkiago, sektore horretako “berrikuntza” kontzeptua hobeto zehaztu ondoren eta enpresekiko harreman egituratu bat eta herrialdeko berrikuntza-politikan funtsezko elementua den Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearekiko lankidetzat estuagoko testuinguru bat lortu ondoren, deialdi ireki bati ekiteko prestaketa-denbora gisa.

RIS3 estrategiaren dinamiketan, zentro teknologikoeikiko eta unibertsitatearekiko lankidetzak funtsezko alderdia da (aurrerago hitz egingo dugu horretaz). Zentro teknologikoen eta gure sektorearen artean, ordea, oso distantzia handia egon zen beti. KSI Berritzaile programaren bidez, alderdi horiek guztiak azpimarratu nahi dira, ZTBESra hurbiltzeko, haren jakintza eta esperientzia erabiltzeko eta gure sektoreko enpresen eta zentro teknologikoen arteko hurbilketa sustatzeko helburuarekin. Hiru zentzutan interesatzen zitzaigun haien esperientzia: enpresa-proiektuetan berrikuntza-elementuak identifikatzeko, egungo teknologiak transferitzeko eta tresna teknologiko berriak garatu eta aplikatzeko.

KSI Berritzaile programaren bidez, zentro teknologikoei enpresei eskaintzen dieten zerbitzua finantzatzen da, berrikuntza-proiektuak identifikatu eta hautatzen dira, eta proiektu bakoitzak teknologia transferitzeko edo garatzeko behar duen denbora eta dedikazioa ezartzen da. KSI Berritzaile programak, nolatan ere, zentro teknologikoei KSIn sektoreko proiektu berritzaileei eskainitako denbora eta dedikazioa finantzatzen duten bonuen bidez funtzionatzen du. Horrela, beraz, berrikuntza teknologikoko proiektuak hobeto identifikatu eta landu nahi genituen, egungo teknologien transferentzia erraztu eta teknologia horiek enpresen premietara egokitu nahi genituen, eta sormen-sektoreko enpresek eta zentro teknologikoei elkar ezagutzeko eta elkar aitortzeko oinarriak ezarri nahi genituen.

Gurekin berrikuntza teknologikoa sustatzeko eta babesteko lankidetzan diharduten zentroak Tecnalia eta Vicomtech dira, eta, lau urte hauetan, elkarrekin lan egin dugun legegintzaldi honetan, funtsezkoak izan dira zentro horiek KSIak babesteko zereginean izan duten inplikazioa eta emandako laguntza. Zentro horiek, KSI Berritzaile programaren lehen ardatza garatu genuen, hots, berrikuntza teknologikoarena. Baina programak beste bi ardatz gehiago ditu.

Bigarren ardatza antolamendu-ereduaren eta enpresa-egituraren berrikuntzari lotutakoa da. Euskadin, mundu osoan bezala, KSlen sektorea autonomoez eta mikroETEEz (hots,

enpresa-egitura ahula duten oso enpresa txikiez) osatuta dago % 70etik gorako proportzioan. Seguruenik, erakunde eta enpresa txikien sarea ez da ahultasunaren sintoma izango, sormen-sektorearen berezko ezaugarria baizik, baina antolamendu-ahultasuna, kudeaketari lotutako trebetasunen gabezia, enpresa-ikuspegi garbirik eza eta merkatuan aurre egin beharreko erronkei ekiteko zailtasunak azpimarratu beharreko alderdiak zirela iruditzen zitzaigun. Horretarako, kudeaketa aurreratuan hobekuntza eta berrikuntza errazten eta bultzatzen dituen Euskal itxerentzako publikoaren laguntza izan genuen. Ardatz teknologikoan bezala, Euskal itxerentzako denbora eta tresna jakin batzuk eskaintzen dizkie antolamendu-eredua eta enpresa-kudeaketa hobetu nahi duten enpresei eta erakundeei. Ardatz horrek eskari handia izan du abian egon den denbora osoan.

Hirugarren ardatzaren bidez, enpresen finantza-trebakuntza hobetu nahi da. Dakigunez, sektore honetako enpresa txikiek zailtasun handiak dituzte finantzaketa-tresnak lortzeko. Arrazoiak askotarikoak dira. Sektoreko enpresa askoren finantza-ahultasuna, diru-sarreraren muturreko aldakortasuna eta kultura-industrien “enpresa-kulturarik” eza direla eta, enpresa horiek oso zail dute finantza-kredituak lortzea. Gainera, kreditua lortzeko eskatu ohi diren baldintzak berme materialetan oinarrituta daude, eta ez da erraza izaten kreditu-erakundeei enpresa edo proiektu baten aktiboek balio handia dutela sinestaraztea, aktibo horiek ukiezinak baitira askotan. Beraz, beharrezkoa da elkarritzeta horretan lan egitea, hizkuntza komun bat aurkitzea eta kreditu-erakundeek eta sektoreko enpresek elkarritzetarako gune bat aurkitzeko zereginen aurrera egitea. Itzulpen-kontua da; sormen-proiektuen hizkuntzan eta finantza-kredituei lotutako prozesuen hizkuntzan hitz egiteko gai izango diren pertsona “elebidunak” aurkitu behar dira. Euskadiko kreditu-erakunderik garrantzitsuen den Elkargiren kasuan, sektorean espezializatuko zen eta sektorearen izaera eta premiai ulertuko zituen pertsona bat izendatzeko eskatu genien.

Funtsezkoa iruditzen zait “itzulpenaren” edo, nahi izanez gero, elebitasunaren alderdi hori. Beharrezkoa da elkarrizketa bat ezartzeko, kreditu-erakundeekin ez ezik, zentro teknologikoekin edo berrikuntzako eta garapen ekonomikoko agentziekin ere bai. Beraz, KSI Berritzaile programaren hiru esparruetan itzulpenaren, hots, hizkuntza bikoitz hori hitz egiteko moduaren kontua agertzen zen beti, eta horixe izan zen, hain zuzen ere, programaren helburuetako bat. Orain ebaluazio-une batean gaude, KSIei lotutako politiken hirugarren legegintzaldiari aurre egiteko eta programak nolako bilakera izango duen erabakitzeko.

KS^l Berritzaile programaren hiru ardatzez gain, laugarren bat jarri genuen abian, KS^latea izenekoa, nazioartekotzea babesteko. Izenari dagokionez, KS^latea ate bikoitz gisa planteatzen da nolabait ere: alde batetik, sektoreko enpresen nazioartekotzea bultzatzen du haien berezitasunean oinarrituta; bestetik, garapen ekonomikoko politiketan nazioartekotzeko dauden laguntzak lortzeko aukera errazten du, Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren bitartez funtsean. Agentziak, bere metodologiaren barruan, nazioartekotzeko plan bat izateko eskatzen die enpresei alde aurreko urrats gisa. KS^latea proiektuak beren plan propioa taxutzen laguntzen die enpresei, enpresa mota orotarako dauden babes-lerroak lortu ahal izan ditzaten. Beraz, nazioartekotzeko ate bat ez ezik, dauden babes-lerroetarako ate bat ere bada.

Programa hori kudeatzeko, Tabakaleraren (Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa) konplizitatea dugu. Kulturako agente eta enpresekin duen etengabeko harremana, sormen-sektorerara irekitzeko duen bokazioa eta bere nazioarteko dinamika kontuan hartuta, laguntzaile aproposa izan zitekeela iruditu zitzaigun. Gainera, etorkizunean KS^lei lotutako politikak garatzeko kultura-zentro baten konplizitatea edukitzea eta, era horretan, zentro teknologikoekin genuen lankidetzat osatzea garrantzitsua zela pentsatu genuen. Nire ustez, berrikuntza teknologikora eta antolamendu-berrikuntzara zuzendutako zentro publikoen sareari kultura-arloko berrikuntza garatzen duten eta sorkuntza garaikidea esparru guztietan babesten duten zentroak (hala nola Tabakalera) gaineratu beharko litzaizkioke. Ildo horretan, KS^latea lankidetzat eta konplizitate berrietara irekitako ate bat ere izan da.

Berrikuntza- eta nazioartekotze-programa horiek garatzeko, Eusko Jaurlaritzako *Lehendakaritzak* Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren bitartez bideratutako baliabide ekonomikoak erabili ditugu. Ildo horretan, zentro teknologikoekin eta berrikuntza sustatzen duten erakundeekin enpresetan eta haien premietan oinarritutako ikuspegia landu nahi izan da etengabe, eta oraindik osatzeko prozesuan dagoen KS^len sektorea herrialdeko tresna publikoekin lotu nahi izan da. Azken batean, KS^len sektorea beste edozein sektore bezala tratatu zedin lortu nahi genuen, hazteko ahalmen handia duen, berrikuntzan eta sorkuntza-ekonomian eragin handia duen eta Europan estrategikotzat hartzen den sektore bat dela kontuan hartuta

Puntu horretan, Ekonomiaren Garapen Sailarekin lankidetzan jarduteko premia agertu zen berriz. Alderdi hori funtsezkoa da, eta, aldi berean, korapilatsua. Guretzat, lehentasunezko helburua da hasieratik. Lehen ere hitz egin dugu horretaz.

Kultura Sailaren eta Ekonomiaren Garapen Sailaren arteko erantzunkidetasunaren eta ikuspegi bikoitzaren premia Europako oso agindu garbia da, elkarrekin, koordinatuta eta ikuspegi osagarri batekin lan egiteko eskatzen duena. Kontua ez da zer sailetatik landu behar diren KS^lak (Berrikuntzatik, Ekonomiaren Garapen Sailetik edo Kultura Sailetik), KS^lak ikuspegi bikoitz horrekin lantzeko aukera emango digun “lan-kultura” berri bat aurkitzea baizik. Bagenekien zaila zela, eta ikusi dugu Europa osoan irekita eta soluzio garbirik gabe zegoen gaia dela. Europako eskualde gehienetan, Euskadiko foru-lurraldeetan bezala, sormen-sektorea garatzeko politikak garapen ekonomikoko edota industriako politiketan txertatuta daude. Guk Kultura Sailaren bitartez hasi genituen prozesu horiek, baina beti esparru ekonomikoarekiko eta industria-esparruarekiko lankidetzat egituratzeko modua aurkitzeko asmoarekin. Legegintzaldi honetan, aurrerapen handiak egin dira konpromiso horretan. Ekonomiaren Garapeneko sailburu Arantza Tapiak eta Kulturako sailburu Bingen Zupiriak sektorearen garapenean lankidetzan jardutea erabaki zuten, eta zuzenean harremanetan jarri ginen SPPI^lrekin, hots, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak euskal industria bultzatzeko duen erakundearekin. Erakunde horren eta Innobasque – Berrikuntzaren Euskal Agentziaren lankidetzat oso garrantzitsua izaten ari da egungo fasetik abiatuta aurrera egiteko, begirada BDCC (*Basque District of Culture and Creativity*) barrutian jarrita.

Zer ekarri du CREADIS3 proiektuak nazioartekotzeari dagokionez, eta zer ekintza egin dira esparru horretan?

Europako CREADIS3 proiektua oso emankorra izan da. Talde horren barruan, Europako hainbat eskualde daude, hala nola Valonia, Erdialdeko Finlandia, Emilia-Romagna, Eslovakia eta Mendebaldeko Grezia (*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila [EUS], Valloniako zerbitzu publikoa [BE], Mendebaldeko Greziako eskualdea [EL], Finlandia Zentraleko Eskualde Kontseilua [FI], Emilia-Romagna Eskualdea [IT], Eslovakiako Errepublikako Kultura Ministerioa [SK]*), eta taldeko buru izatea benetan aberasgarria izan da guretzat. Gainera, gure politikak Europako esparruan garatu behar ditugun uste osoa berrestera eraman gaitu. Proiektuaren azken fasean gaude dagoeneko (2021ean amaituko da), eta balantzea oso ona da.

CREADIS3 asmo handiko proiektua da, eta erabat teilakatuta dago gure herrialderako ditugun helburuetan. Helburuak honako hauek dira: administrazio-lankidetzat hainbat mailatan sustatzea, KS^len kargura dauden agintarien arteko

sinergiak errazteko; kultura- eta ekonomia-politika hobeak egituratzea, KS^letarako berrikuntza-politika eraginkorrak lortzeko; nazioartera zuzendutako lurralde-erakargarritasuna babestea, lurralde bakoitzak sortzeko duen ahalmenari lotutako inbertsioa erakartzeko eta ekintzaileak gera daitezen lortzeko; zentroen, laborategien, klusterren, inkubagailuen, unibertsitateen, zientzia-parkeen eta abarren tokiko ekosistemaren barruko lankidetzat hobetzea; kultura-sektoreen eta sektore teknologikoen arteko ezagutza hobetzea; eta ikerketaren eta berrikuntzaren eremuan gaitasunak eta negozio-eredu berriak sortzearen bidez ETE^{en} nazioartekotzea babestea.

CREADIS3 proiektuak guretzat, berriz diot, funtsezkoak diren alderdi horietan aurrera egiten lagundu digu, baina, jakina, ez ditu ebatzita utzi. Urte askotan funtsezkoak izaten jarraituko dute, baina CREADIS3 proiektuak nazioarteko esparruan lan egin behar dugun eta beste hiri eta eskualdeekin aliantzak bilatu behar ditugun uste osoa berrestera eraman gaitu. Europako proiektu horretan, enpresak eta zentro publikoak stakeholder gisa txertatzen dira. Proiektua, nolana ere, lagungarria da arduradun politikoentzako erreferentziak, zentro publikoetarako laguntzaileak eta enpresetarako merkatuak identifikatzeko. Eta ez soilik CREADIS3 lantaldearen barruan, non, jakina, alde handiak dauden politiken garapen-mailari dagokionez. Adibidez, guretzat oso garrantzitsua izan da Flanders DC^{ren} (Flandriako Sormen Barrutia) politikak ezagutzea. Ordura arte, Europako eskualde hori ez zegoen gure sarean sartuta. Enpresen premiei oso lotuta dagoen eredua da. Izan ere, zerbitzuak, trebakuntza-programak eta berrikuntza bultzatzeko programak eskaintzen dizkie enpresei (geroago hitz egingo dugu horretaz).

Nire ustez, azpimarratu beharra dago CREADIS3 programak sektorearen egituraketan aurrera egiten ere lagundu digula. Programaren dinamika hainbat sektore eta erakunde biltzen zituen lantaldeetan, zentro teknologikoen eta berrikuntza-zentroen babesarekin. Ikasketa-bisitek, Europako eskualdeen arteko harremanek eta jardunbide egokien identifikazioak lotura handia sortu dute azpisektore guztietako agenteen artean. Ildo horretan, kultura-arloaren eta industria-arloaren arteko lankidetzat-esparru bat ezartzeko premia berretsi dugu. EBko Liburu Berdeak eskatzen zuen lotura hori ia leku guztietan zaila dela edota loturarik ez dagoela egiaztatu dugu. Gurekin lankidetzan jardun duten eskualde gehienetan, KS^lei lotutako politikak industria-sailek edo ekonomiaren garapeneko sailek garatzen dituzte, kultura-politiketan teilakatu gabe. Nire ustez, Euskadin maila horretan egiten ari garen ahalegina jardunbide egokien adibide izan daiteke Europan. Ea lortzen dugun.

Europako CREADIS3 proiektua 2021. urtean amaituko da, baina oso garrantzitsua iruditu zitzaigun nazioarteko sareetan parte hartzen jarraitzea. Sormena eta berrikuntza beren agendetan lehentasunezkoak diren mundu osoko eskualdeak lotzen dituen sare global batean sartzeko aukera sortu zitzaigun, 2004an sortutako *Districts of Creativity (DC) Network* izeneko nazioarteko sarean, hain zuzen ere. Aurten bertan onartu gaituzte, eta sarean lankidetzan dihardugu honako eskualde hauekin: Tampere, Baden-Württemberg, Katalunia, Danimarka Zentrala, Flanders, Karnataka, Noord-Brabant, Oklahoma, Rio de Janeiro, Eskozia eta Yangtze ibaiko Delta eskualdea.

Bi dira sare horretan antolatzen diren jarduerarik azpimarragarrienak: herrialde kide batek antolatzen dituen eta gainerako eskualdeak biltzen dituzten alderantzizko misioak eta *Creativity World Forum* izenekoa. 2022. urtean alderantzizko bisitaren anfitrioiak izateko eta 2023. edo 2024. urtean *Creativity World Forum* foroaren edizio bat antolatzeko aukera izatea espero dugu. Enpresek nazioartekotzean aurrera egiteko apustua politika publikoetatik bultzatu behar dugu. Erabakitzaile politikoentzat ere garrantzitsua da sare globaletan parte hartzea eta lankidetzan jardutea.

Zer erronka daude KS^len sektorea egituratzeko eta sektoreen arteko eta hortik kanpoko elkarriketarako?

Sektorearen egituraketa irekita dagoen erronka da oraindik. Azpisektore bakoitzak oso barne-egituraketa desberdina du (mota orotako elkarrekin, klusterren bat, profesionalen elkargoak eta abar), eta azpisektore askok (arte bisualek, ondarearen kontserbazio eta zaharberritzeak eta abar) ez dute egitura adierazgarriarik. Tradizioz, sakabanaketarako joera handia egon da azpisektore bakoitzean, eta ez da antolatu azpisektoreak elkartzeko eta elkarrekaragiteko fororik. Osatzen ari direnak sektorea taxutzeko eta bultzatzeko politika publikoei esker sortu dira. Oso garrantzitsua izango litzateke sektoreko agenteak eta enpresak –azpisektore guztiak kontuan hartuta– elkartuko lituzkeen KS^len kluster bat edo antzeko zerbitu edukitzea, baina hori oso urrun dago oraindik.

Nire ustez, bultzatu ditugun programek –KS^l Berritzaile, KS^latea, CREADIS3 proiektuko ikasketa-bisitek eta abar– aukera garrantzitsuak eta emankorrak eskaini dituzte azpisektore guztietako agenteak eta enpresak elkartzeko. Nire ustez, halaber, mahai horien konplexutasuna (gidaritza-mahaiekin hasita) pizgarri egokia da gaur egun oso atomizatuta eta koordinatu gabe dagoen kultura-sektorearen berregituraketa bultzatzeko.

Bide luzea geratzen zaigu oraindik sektore berekoak garela jabetzeko, sektorearen identitatea sendotzeko eta premiak, estrategiak eta baliabideak partekatzeko aukerak ezagutzeko. Nire ustez, politika publikoaren garapenak elkartzeko eta lankidetzan jarduteko borondate hori bultzatzen, sektorea sektore gisa taxutzen eta barne-egituraketa osatzen lagunduko du. Dena dela, funtsezkoa da trazio-ahalmena duten sektoreko enpresak eta agenteak antolatzea eta lehenbailehen protagonismoa hartzea. KSlen sektoreko barne-politikak garatzeko ez ezik, beste sektore ekonomiko batzuekiko loturan inplikatzeko ere bai.

Ernalketa gurutzatua (hau da, orain arte urrunduta egon diren jarduera-sektoreen arteko elkarrekintza emankorra) alderdi garrantzitsua da berrikuntza-politiketan. Beharrezkoa da kultura- eta sormen-sektoreak osasunaren, elikaduraren, ingurumenaren edo 4.0 industriaren arloetako zerbitzuen edo produktuen berrikuntzan egin dezakeen ekarpena agerian uztea. Eta, horretarako ere, beharrezkoa da azpisektore bakoitza dagoen nitxotik, silotik irtetea, beharrezkoa da elkar ezagutzea, elkar identifikatzea eta hizkuntza komunak erabiltzea. Eusko Jaurlaritzan, hasi gara gai horretan lanean, eta, batez ere, RIS3 estrategiaren beste bi aukera-esparruekiko, hots, elikadurarekiko eta osasunarekiko loturan jarri dugu arreta.

Nolanahi ere, ez da nahikoa sektore desberdinetako enpresak, agentziak eta zentro teknologikoak lotzea. Funtsezkoa da, halaber, unibertsitatearen ekarpena. Eta oso urrunduta gaude oraindik. Premiazkoa da harremanetan jartzeko, elkar ezagutzeko eta elkarri laguntzeko bideak ezartzea. Unibertsitatearekiko inplikazio eta konexio handiagoa behar dugu. Ildo horretan, KSlen inguruko *jakintza-gune* bat osatzen ari gara, Unibertsitate Sailburuordetzarekin eta Euskampus-ekin lankidetzan. Lehen urratsa unibertsitatea bera mapatzean eta agenteen aniztasuna eta zeharkakotasuna bilatzean datza. Bistakoa da ezin garela sorkuntza artistikoaren esparrura mugatu, nahiz eta hori funtsezkoa izan, duela urte batzuk egindako lehen ahaleginean gertatu zen bezala; izan ere, egiaztatuta dago sorkuntzarekin eta sormenarekin lotutako prozesuetan askotariko ezagutzak erabiltzen direla, bai kultura-prozesuetan, bai enpresa-prozesuetan. Beraz, askotariko fakultateen eta katedren parte-hartzea behar da. Lehen urratsa haiek identifikatzea eta proiektuan inplikatzeko da, eta, ondoren, kultura- eta sormen-sektorea garatzeko erronkari elkarrekin aurre egiten lagunduko diguten hainbat proiektu estrategiko zehaztea eta, horretarako, KSletako agenteekin eta enpresekin batera lan egitea.

Sektorea egituratzeko helburu horrekin berarekin, *Jakintza eta Berrikuntza Komunitate (KIC: Knowledge & Innovation*

Community) batean parte hartzeko Euskadiren hautagaitza osatzen ari gara. Programa hori Europako Berrikuntza eta Teknologia Institutuak (EIT) bultzatzen du. Erakunde hori 2008an sortu zen, Europako Batzordearen mende dago, eta EBren barruan goi-mailako irakaskuntzaren, ikerketaren eta berrikuntzaren arloko bikaintasuna sendotzea eta sustatzea du helburu. EITk bere helburuak lortzeko dituen tresna nagusiak jakintza- eta berrikuntza-komunitateak dira. Oso neurri handian integratutako sormen-elkarteak dira, hezkuntza, teknologia, ikerketa eta enpresa-ekimena lantzen dituztenak; berrikuntzak eta berrikuntza-ereduak txertatzeko eta beste batzuk horrelako elkarteak sortzera bultzatzeko diseinatuta daude.

Orain arte, osasunaren, elikaduraren, hiri-mugikortasunaren, klimaren eta abarren inguruko KICak osatu dira. Orain, lehen aldiz, KSlen sektoreko KIC bat egituratzeko deialdi bat egin da. Eta parte hartu nahi dugu.

KICek EBko gutxienez hiru estatu edo eskualdeko eta gutxienez hiru erakunde independente inplikatu behar dituzte. Erakundeetako batek goi-mailako irakaskuntzakoa izan behar du, eta beste batek enpresa pribatua izan behar du. Helburua da produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzen, enpresa berriak sortzen eta ekintzaileen belaunaldi berri bat prestatzen laguntzea.

Ikusten duzunez, unibertsitateak ikerketarekin, prestakuntzarekin eta ezagutzarekin duen lotura lan-ildo garrantzitsua da gure etorkizun hurbilerako planteamenduan.

KULTURAREN ETA SORMENAREN EUSKAL BARRUTIA (2020tik aurrera)

Zer mugarri aurreikusten dituzu etorkizun hurbilerako, eta nola ikusten da euskal KSlen etorkizuna BDCCren esparruan?

Barrutiaren ideia arestian aipatu dugun hasierako intuizio batean du jatorria: jakina da sormen-arloko enpresak eta testuinguruak garatzeko esparru aproposa hiriak direla. Hiru hiriburu daude –Bilbo, Donostia eta Gasteiz–, eta oso lotura estua dute beren lurraldeko Foru Aldundiarekin. Erakunde horiek sendoak dira, diru-bilketa egiteko ahalmena eta beren ogasun propioa baitute. Eusko Jaurlaritzaren lana Autonomia Erkidegora zuzendutako politikak diseinatu eta inplementatzean, batez ere kultura-produkzioaren sektore profesionala bultzatzean eta udal- eta lurralde-agenteen politikak koordinatu eta bateratzean datza. Beraz, herrialde

txikia gara, baina egitura politiko konplexua dugu. Gure ustez, konplexutasun hori faktore positiboa da kasu honetan, eta barrutiaren ideia aproposa izan daiteke hiru administrazio-mailek kultura-esparruarekin eta garapen ekonomikoaren esparruarekin elkarreragingo duten egituraketa-espazio bat zehazteko. “Barruti” kontzeptuak, beraz, honako hauek biltzen ditu: sektore pribatua (profesionalak, enpresak, erakunde sektorialak); kultura-, teknologia- eta antolamendu-berrikuntzako zentroak; unibertsitateak; eta erakunde-ekintza, haren hiru mailetan (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) eta zuzenean eraginpean hartutako hiru esparruetan (kultura, ekonomiaren garapena eta berrikuntza).

“Barruti” eta “sormen-barruti” kontzeptua Europako hiri eta eskualde askotan agertzen da, baina, guretzat, erreferentziarik zuzenena, arestian adierazi dudanez, Flanders DC eredia da.

Barruti-eredua sortzeak, aldi berean, Kultura Sailaren, Ekonomiaren Garapen Sailaren eta Berrikuntzaren Euskal Agentziaren (Innobasque) arteko lankidetzaren harreman bat sortzea eragin du. Agentzia barrutiak eskaini behar dituen zerbitzuak eta programak zehazteaz arduratzen da. Kultura Sailak, KSIak babesteko lerroaren bidez, KSI Berritzaile eta KSlatea programen bilakaerarekin eta ebaluazioarekin eta enpresekiko harremanaren dinamizazioarekin jarraitzen du. Ekonomiaren Garapen Sailak, SPRI sozietatearen bitartez, sozietate horrek eskaintzen dituen ibilbideak (zerbitzuak eta programak) identifikatzeko eta BDCCak eskaintzen dituenekin lotzeko pertsona baten aldi baterako kontratazioan parte hartzen du, era horretan enpresek zerbitzuak edo programak BDCCren plataformaren bitartez baliu ditzaten eta, hala badagokio, enpresa-sarea babesteko programa orokorren babesarekin jarraitu ahal izan dezaten.

Hemen ere denbora-prozesu baten, hots, probako denbora baten ideia agertzen da. SPRI sozietateak ez du programa sektorialik garatzen. Horren ordez, zerbitzuak eskaintzen dizkie enpresa guztiei zeharka, eta produkzio-sareaz arduratzen da sektoreak bereizi gabe. Beraz, denbora tasatu bat dugu gure sektoreko enpresei SPRIren laguntzak lortzeko har daitezkeen bideak erakusteko, EJSN jakin batzuetarako mugen, tamainaren eta abarren ondorioz gure enpresek dituzten oztopoak identifikatzeko eta oztopo horiek ahal den neurrian gainditzeko. Hau da, enpresek gaur egun dituzten zailtasunak gainditzeko (eta, ildo horretan, bideak eta harrera-leihatilak hobetzeko) SPRIk eskaintzen diguna ez da leiho espezifiko bat, denbora espezifiko bat baizik. Ziur nago BDCCren bidez eskaria aktibatuzko jardutea eta *SPRIren* bidez eskaintza egokitzea onuragarria izango dela, KSlen sektorerako ez ezik, gainerako sektoreetako ETE eta mikroETEetarako ere bai.

Hori da datozen urteetarako erronkarik garrantzitsuenak, Kulturaren eta Sormenaren barrutia abian jartzea. Prozesua etengabe ebaluatu beharko da, betiere arreta sektoreko enpresetan eta BDCCk eskaintzen dituen programek eta zerbitzuek jasotzen duten onarpenean jarrita.

Bi alderdi azpimarratu nahi nituzke orain lantzen ari garenaren inguruan: alde batetik, jabetza intelektualari dagokion alderdia, eta, bestetik, "berrikuntza" kontzeptua bera. Jabetza intelektualala KSlen definizioan bertan agertzen da hasierako konfiguraziotik: enpresa sortzaileak dira sortzeko talentuari eta jabetza intelektualari lotutako balioa dutenak. Hala ere, ez dago oso garbi gure enpresek jabetza intelektualakudeatzen eta behar bezalako balioa ematen dakitenik. Beharrezkotzat hartzen dugu, beraz, egoera hobeto ezagutzea eta enpresak jabetza intelektualaren identifikazioak, erregistroak eta ustiapenak eskaini diezazkieketen aukerez jabetzea. Ildo horretan, enpresak jabetza intelektualaren kudeaketan orientatzeko estrategia bat zehaztuko da BDCCren eremuan.

Jabetza intelektualaren gaiak, gainera, sortzeko talentuaren gaira eramaten gaitu. Nola zaindu talentu hori, nola landu, nola bideratu industria-produkzioari baino artisautzari (kontzeptu gisa) lotuago egon ohi diren prozesuak, eta nola, nondik eta zer tresna publikorekin babestu profesionalki beren talentuan oinarrituta lan egiten duten pertsonak eta erakundeak. Nire ustez, kultura- eta arte-berrikuntzako zentroak funtsezkoak izan daitezke horretan. Zentro horiek sorkuntzatik eta sortzaileengandik hurbil daude, sormen-ekosistema dinamizatzen dute eta produkzio-baliabideak eta agerikotasuna ematen dizkiote ekosistema horri. Haien ikuspegia sormen-sektoreetara zabaltzen bada (sormen artistikora mugatu gabe) eta gizabanako –edo kolektibo– sortzaileari ez ezik enpresa-sareari ere lotuta badaude, funtsezko funtzioa bete dezakete sektorea garatzeko. Gure herrialdeko kultura-zentroen belaunaldi berrian pentsatzen ari naiz, Tabakalera edo Azkuna Zentroan. Izan ere, zentro horiek berrikuntza-zentroen egungo sarea osatu eta aberastu dezakete, eta ezagutzaren, berrikuntzarako laguntzaren eta talentua garatzeko tresna espezifikoaren ekarpena egin dezakete. Eta horrek berrikuntzaren gaira garamatza berriz ere. Nolako berrikuntzaz ari gara?

Berrikuntza teknologikoa al da soilik? Garbi dago ezetz, baina zailtasunak ditugu berrikuntza ez-teknologikoa eta, batez ere, gizarte- eta kultura-berrikuntza zehatz-mehatz zer den eta nola identifikatu eta ebaluatu daitekeen finkatzeko. Garbi dugu kultura- eta sormen-sektore sendo bat erabakigarria dela berrikuntzaren aldeko apustua egin duen herrialde batean. Alde batetik, jarduera-sektore guztietan ekarpen

handia egin dezakeelako, sortzeko talentuan oinarrituta. Eta horixe da agerian utzi behar duguna emailtza zehatzak ematen dituzten proiektu zehatzetan. Horregatik sortu da ernalketa gurutzatua, Euskadiko Berrikuntza Planeko sektore guztiak lotzeko interesa. Eta, bestetik, bere jarduera propioan ere berrikuntzaren ekarpena egiten duelako. Berrikuntza-politikak zuzentzeko erantzukizuna duten estamentuek askotan ez dute behar bezala hautematen berrikuntza hori indarrean dauden parametroetan. Garbi baina era eskematiko samarrean esanda: kulturaren esparruan (artearen, literaturaren, musikaren, zinemaren eta abarren arloko sorkuntza barnean hartuta), egiten dugun guztia berrikuntza dela pentsatzeko joera dago, kultura-industriak prototipoekin, sorkuntzekin eta proposamen berrieekin lan egiten duelako; kultura-eremutik kanpo, berriz, berrikuntzarik egiten ez dugula pentsatzen da, sortzeko jarduera ez baita sartzen neurtzen dakiten estandarretan.

Nola ezagutarazi dezakegu kultura-berrikuntza eta sormen-sektorearen ekarpena, nola definitu dezakegu kultura-arloko berrikuntza, eta nola bereiz ditzakegu berrikuntza eta berritasuna? Nik uste dut kulturak, sormen-sektore indartsu batek berrikuntzaren aldeko apustuari egiten dion ekarpena ukaezina dela, baina, era berean, zehatz-mehatz definitu behar da zer kasutan hitz egin daitekeen kultura-arloko berrikuntzaz, eta nola neurtu eta parametrizatu daitekeen berrikuntza hori. Hori dela eta, gai horren inguruko gogoeta egiteko prozesu bat jarri dugu abian, Kulturaren Euskal Behatokiaren bidez, kultura-esparruko berrikuntzaren baliozko eta baliozkotzeko moduko definizio batera iristeko. Prozesu hori Europari begira ere planteatzen da. Ildo horretan, nazioarteko foro bat antolatuko da, gai horretan espezialistak direnekin kontrastatzeko.

Hobeto eragituratu behar dugu hori guztia, eta sortzeko talentua eragiketa horren ardatz bihurtu behar dugu, talentu hori sendotu, garatu eta agerian utz dadin. Lan-eremua zabaltzea falta zaigu, KSlak, enpresak eta, aldi berean, kultura- eta sormen-sektorea azpimarratu behar dira, gaiaren barruan enpresa-arloari eta ekonomia-arloari lotu gabeko alderdiak garatu behar dira, eta gizarte- eta kultura-berrikuntzari ekin behar zaio. Garatu behar dugun guztia ez dago zuzeneko jarduera ekonomikoari lotuta, guztiak ez du berehalako emaitzarik izango produkzioan eta merkatuan, baina talentuaren, itzulpenaren, elebitasunaren eta zubien eraikuntzaren alde lan egin behar dugu gaiaren alderdi guztietan.

 Klik egin eta nabigatu
fasetan zehar

0 Fasea

0 Fasea

Jatorria (2012. urtea baino lehen)

2010. urtean, Europako Batzordearen (EB) *Liburu berdea: kultura- eta sormen-industrien ahalmena askatzea* delakoan “kultura eta sormen-industrien (KSI) ahalmen handia” ustatzea bultzatzen zen, “hazkundera eta enplegua sortzeko” (Europako Batzordea, 2010, 2. or.). Era horretan, hamarkadako helburu estrategikoetako baten (hazkunde *adimenduna, jasangarria eta inklusiboa*) funtsezko indar bultzatzaile gisa identifikatu zen KSlen sektorea. Gainera, adierazitako *Liburu Berdean* arreta berezia jartzen zitzaion toki- eta eskualde-dimentsioari, eta atal espezifiko bat eskaini zitzaion: “Tokiko eta eskualdeko garapena, arrakasta globala lortzeko abiapuntua”.

Handik urtebetera, 2011. urtean, Europako Parlamentuak, ordezkaritza-batzar gisa, Europako Erkidegoaren posizionamenduaren berri eman zuen, 2011ko maiatzaren 12ko Ebazpenaren bidez (“Kultura- eta sormen-industrien ahalmena askatzea”). Ebazpen horretan, zehazki, Europako Parlamentuak “kultura- eta sormen-industrietarako lehengai ordezkazintzat” hartzen ditu eskualdeetako hizkuntzak eta kulturak (Europako Parlamentua, 2011, I. puntua). Era berean, ondorengo urteetako garapen sektoriala bideratuko duten gaiak aztertzen ditu, hala nola lan-baldintzak eta enpresa-ekimena. Gai horri dagokionez, tokiko, eskualdeko, nazioko eta Europako enpresa-, kultura- eta sormen-espíritu sendo bat sortzeko beharra azpimarratzen du (ibidem, 25. puntua). Era berean, KSlen finantzaketa aztertzen du, eta KSIak eta haiek finantzatzeko ahalmena duten erakundeak elkartzeko baldintza egokiak sortzera bultzatzen ditu estatu kideak eta tokiko eta eskualdeko kolektibitateak. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak Europako hainbat erakunderen lekukoa hartu du, eta, EBko beste eskualde aitzindari batzuekin lankidetzan, KSlen ahalmena (Euskadiko kasuan handia dirudiena) eraginkortasunez askatzea ahalbidetuko duen erakundeen laguntza emateko oinarriak finkatzen hasi da.

Eztabaidaezina da kultura eta sormena euskal nortasunaren parte direla, lurraldeko herritarren irudimenean ez ezik, gure mugetatik kanpo ere. Maila globalean ezagunak diren kultura-azpiegiturak, Estatuan eta nazioartean erreferentzia den hizkuntza-politika, kultura-ondare ukigarri eta ukiezinaren aberastasun handia, industria- eta ekonomia-birmoldaketako prozesua (non KSlek funtsezko zeregina

betetzen duten); alderdi horietan eta beste batzuetan, Euskadi erreferentzia da sarritan, Europan kultura-politiken diseinuaren, kultura-plangintzaren eta kultura-kudeaketaren inguruko jardunbide egokiak identifikatzeko garaian.

Baina, horretaz guztiaz gain, une hartan honako galdera hauek planteatu ziren: zein da Euskadiko kultura- eta sormen-sektorearen egoera 2010eko hamarkadaren hasieran? Zein dira sektorea osatzen duten azpisektoreak? Zein dira azpisektore bakoitzaren espezifikotasunak, puntu komunak eta premia partekatuak? Nolako ekarpena egiten diote KSlek euskal ekonomia osoari, eta nolako zeregina betetzen dute berrikuntzaren arloan? Zer ekimen eta tresna jarri ditu abian Eusko Jaurlaritzak? Nola lagundu dezakete euskal erakundeek sektorearen garapen handiagoa egituratzen eta bultzatzen?

Mugarriak

- 2010**
- *Liburu berdea: kultura- eta sormen-industrien ahalmena askatzea, Europako Batzordea (EB)*
- 2011**
- Europako Parlamentuaren ebazpena: “Kultura- eta sormen-industrien ahalmena askatzea”

Txapela: ondare izatetik moda produktua izatera

Txapelak “moda-
osagarriak” dira mundu
osoan. Euskadin, modako
produktua ez ezik, euskal
kultura-ondarearen
elementua ere bada
txapela. Txapela jantzi
tradizionala eta euskal
identitatearen ikurra da,
eta buruko gisa erabiltzen
da.



ICC_La Encartada



© La Encartada Museoa



© Boinas Elosegui S.A.

La Encartada Museoa

La Encartada txapel-fabrika 1892an sortu zen Balmasedan (Bizkaia), fabrikak 100 urtetan jardun zuen artilea lehengai duten ehun gaiak egiten, txapela produktu nagusia izanez. 2007an berriro ireki zituen ateak, La Encartada “fabrika-museoa” gisa, kultura ondarearen ikur eta Bizkaiko bitxi industrial modura.

Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen duen museo honek, eraldatu zenetik jarduera ugari egin ditu. Batzuk berritzaileak eta KSlei lotutakoak, adibidez “Moda eta Tradizio Garaikideko Topaketak”. Tradizioaren funtsa eta artea, moda eta diseinuko abangoardiako joerak uztartzen dituen ekitaldia da. Museoaren zuzendaritzak Alberto Sinpatron izan du topaketa hauen komisario, eta bere hitzetan “La Encartada Moda duela bost urte sortu zen, txapel-fabrika zahar hau bisitatu eta liluratuta geratu nintzenean” (Alberto Etxebarrieta 2019an, Velascon), eta leku horri buruz zera dio “modako topaketa bat egiteko aukera paregabea” (ibidem).

Boinas Elosegui

Boinas Elosegui SA (hasiera batean La Casualidad zena) 1858an sortu zen, eta, harrez geroztik, nazioarteko erreferente bihurtu da txapela eta beste osagarri mota batzuetan.

Boinas Elosegui SAK modako hainbat enpresarekin lankidetzan jardun du bere ibilbidean zehar, hala nola Loreak Mendian eta Isabel Zapardiez-ekin. Azken kasu horretan, New Yorken egindako *Couture Fashion Week* ekitaldian parte hartu zuen Boinas Elosegui SAK, eta hainbat buruko landu zituen txapel tradizionaletik abiatuta.

Boinas Elosegui SAK euskal jantzi tradizional honek irudikatzen duen identitatearen isla bere produktu bakoitzari ematen dion ukitu pertsonal batekin konbinatzen du bere diseinuetan. Horrela, beraz, bere eslogana betetzen du: “Txapela, ikono kulturala, kontraktuala, modakoa, fashion iraultzailea eta garaikidea, denok barruan daramagun nortasun hori atera nahi duena”. Bestalde, artisau-produkzioari dagokionez, bere esperientzia profesionalari esker eusten dio beti bere diseinuen kalitateari.



© Boinas Elosegui S.A.



© La Encartada Museoa

Guggenheim efektua



Arquitectura
Guggenheim 2016



Miniclip_Arquitectura



* Gaztelaniaz eskuragarri


Ireki zenetik 20 urte baino
gehiago bete direnean,
Museoa bisitariak hirira
erakartzeko arrazoi
nagusietako bat da oraindik,
eta Bilboren eraldaketaren
sinbolo bihurtu da.

Jatorriz, Bilbo hiri industrial zen, eta metalurgiaren eta ontzigintzaren sektoreak funtsezkoak izan ziren tokiko hazkunderako (Del Olmo, 2017). Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, ordea, inguruko egoera ekonomikoa oso ezegonkorra zen. Testuinguru horretan, esparru ugari (hala nola ekonomia, garraioak, hirigintza eta gizarte-berroneratzea) barnean hartzen zituen asmo handiko biziberritze-plan bat sortu zuten erakundeek. Biziberritze-plan horren barruan, arte garaikideko museo baten eraikuntza zegoen jasota, eta azkenean Frank O. Gehry-k diseinatu zuen. Gaur egun, Museoa ezaguna da mundu osoan, eta haren inpaktu handiari "Bilbo efektua" edo "Guggenheim efektua" deitu zitzaion, hiriak izan zuen erabateko aldaketa adierazteko. Izan ere, hiriak industrian oinarritutako ekonomia batetik hirugarren sektorean oinarritutako ekonomia baterako jauzia egin zuen, eta kultura-ekipamendu hau trazio ekonomikoaren faktore horietako bat izan zen.

Azterlan ugari egin dira Museoa Bilbon eta bere inguruan izan zuen –eta oraindik ere baduen– eraginaren inguruan, eta kultura-azpiegitura batetik abiatuta beste hiri batzuetan efektu hori erreplikatzeko saiatzeko eta garapena eta aldaketa bultzatzeko eredutzat hartu da Museoa. Hala ere, kasu gehienak ez dira arrakastatsuak izan, neurri batean Bilboko ekintza berberak egin nahi izan dituztelako, eskema hori ezarri nahi zen hirien zirkunstantziak kontuan hartu gabe.


Bilbon, hainbat arrazoik ahalbidetu zuten eredu horren arrakasta, eta, haien artean, "1997an munduko ekonomiak zuen egoera ona eta Gehry-ren eraikinaren eragin mediatikoa" (Esteban, 2017) aipa daitezke.





1. Fasea

Klik egin eta nabigatu fasetan zehar



1. Fasea

Mugarriak

•

2012

–

2013

•

Kultura- eta sormen-industriak: EAEn KSlei laguntzeko estrategia baterako oharrak

2014

•

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2014-2020: KSIak RIS3 Euskadi estrategian aukera-lurralde gisa identifikatzeai

•

KSIak Euskadin – Azterketa kuantitatiboa, 2007-2012

2015

–

Euskadiko KSIak ikertzea 2012-2015

2010eko hamarkadaren hasieran, sektorearen azterketa sakon bat egin zen, sektorearen mugaketa planteatu ahal izateko, eta, aldi berean, politika informatuak garatzeko eta euskal KSlen errealitatearekin bat datozen tresnak ezartzeko. Azterketa horrek hurbilketa kualitatibo eta kuantitatibo bat jasoko du hurrengo urteetan.

1.1 KSlen mugaketa kontzeptuala: hurbilketa kualitatiboa

2013. urtean, Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB) egindako "Kultura- eta sormen-industriak. Eztabaida teorikoa Europako ikuspegitik" txostena argitaratu zen, eta lehen hurbilketa kualitatiboa izan zen kultura- eta sormen-sektorea askotariko testuinguruetan kontzeptualizatzeko eta mugatzeko dauden moduak ulertzeko, baita sektorea euskal testuinguruan definituko duten oinarriak finkatzeko ere.

"Kultura" eta "sormen" terminoen konplexutasuna eta adierak antzak direla eta, kultura- eta sormen-sektorea ulertzeko modu asko eta asko daude. "Kultura-industriak" deiturikoak mugatzeak, alde batetik, kulturaren nozio jakin bat txertatzea dakar nolabait ere. Nozio horrek ikuspegi klasiko-humanistago bat (goi-kultura eta behe-kultura bereiziko lituzkeena), eite antropologikoko ikuspegi zabalago bat edota gradiente horren barruko eta kanpoko edozer gauza bil dezake. Bestalde, "sormen-industrien" definizioa ere konplexua da, sormena ez baita kontzeptu unibokoa. Gainera, biak termino bakar batean biltzen ditugunean –kultura- eta sormen-industriak (KSI)–, galdera eta nabardura berriak agertzen dira: kultura-industrien eta sormen-industrien eransketa hutsa al dira KSIak? Non jarri behar da fokua, kulturaren ala sormenean, eta nolako inplikazioak ditu horrek zein sektore geratzen diren barruan eta zein kanpoan zehazteko?



“Kulturaren Euskal Behatokia abian jarri zenean, kulturaren sektore tradizionalen kontzeptu klasikoa izan zen abiapuntua, kontzeptu hori esparru estatistiko batean bildu zen 2007an, eta, 2014an, berriz, esparru estatistikoaren beraren berrikuspena egin zen. Orduan hasi ziren txertatzen Europako esparruko estatistika-lanaren inguruan sortzen ari ziren eztabaidak”.

Aintzane Larrabeiti
ICC Consultors enpresako bazkide aholkularia

Balio erantsia, sormena eta berrikuntza funtsezko hitzak dira KSletarako edozein hurbilketatan, baina nazioarteko erakunde eta organismoek KSlen definizio estrategiko desberdinak aukeratu dituzte.

Adibidez, KSlen esparruan aitzindariak diren politiken kontzeptualizazioagatik eta formulazioagatik nazioartean erreferentzia den Erresuma Batuko *Department for Digital, Culture, Media and Sport* (DCMS) izenekoak honela definitzen ditu sormen-industriak: "sormenean, trebetasunean eta banakako talentuan jatorria dutenak eta jabetza intelektuala sortzearen eta ustiatzearen bidez aberastasuna eta enplegua sortzeko ahalmena duten industriak" (DCMS, 2001, 5. or.).

Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren (UNCTAD) arabera, "Sormen-industriak lehen mailako intsumo gisa sormena eta kapital intelektuala erabiltzen duten ondasun eta zerbitzuak sortzeko, ekoizteko eta banaketarako zikloak direla esan daiteke. (...) Ezagutzen oinarrituta dauden jarduera desberdinak biltzen dituzte, ondasun eta zerbitzu intelektual edo artistiko ukigarriak eta sormen-educia, balio ekonomikoa eta merkatu-helburuak ekoizten dituztenak" (UNCTAD, 2008, iv. eta 4. or.).

Erreferentziazko azken iturri gisa, Europar Batasunak ikuspegia zabaldu du eta kultura-industriak ere barnean hartu ditu. Haren definizioaren arabera, KSIak "kultura material gisa erabiltzen duten eta kultura-dimentsioa duten industriak dira, haien produkzioa nagusiki funtzionala bada ere. Haien artean, prozesu zabalago batzuetan sormen-elementuak txertatzen dituzten arkitektura eta diseinua daude, baita zenbait azpisektore ere, hala nola diseinu grafikoa, moda-diseinua eta publizitatea" (Europako Batzordea, 2010, 6. or.).



“Batzuk kritikoak izan gara kultura kontzeptua sormen kontzeptuarekin ordeztzeko ahaleginarekin. “Kultura- eta sormen-industriak” aipatu beharko lirateke, baina ezin da kultura sormenarekin ordeztu. Izan ere, sormena merkatuaren, hots, enpresek dituzten eskarien mende baino ez dago, eta nozio ekonomikoa funtsezkoa da. Kulturaren, berriz, kulturaren jatorria dago jokoan, hau da, kultura-garapena, garai bakoitzeko kultura-matrizeen definizioa, joerak, jakintza, sinbologia kolektiboa. Horregatik, kulturak diru-laguntza gehiago eta babes handiagoa jaso ditu zenbaitetan, balio sinboliko kolektiboak baititugu jokoan, merituzko ondasun gisa. Euskal kasuan, faktore erantsi bat zegoen: eremu urriko kultura denez gero, kulturari lotutako espezializazioak eta dedikazioak zailtasunik gabe autoproduzitzen den beste edozein kultura nagusiren batezbestekoaren gainetik egon behar dute”.

Ramón Zallo
irakasle emeritua, Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskadin, Eusko Jaurlaritzaren aldetik eta haren sailek eta organismoek arlo horretan egindako lanetan, ez da konplexutasun hori saihestu. Aitzitik, modu aktiboan parte hartu da eztabaida horietan, jarraipena eman zaie nazioarteko azken garapen kontzeptual eta estrategikoei, eta eztabaidarako ekarpenak egin dira euskal kultura- eta sormen-sektorearen berezitasunak behatzearen ondoriozko gogoeta propioen bidez. Zein dira berezitasun horiek? Zer kontzeptualizazio eta definizio operatibo da egokiena Euskadiko KSlen errealitaterako? Galdera horiei erantzuteko, ondorengo lanek euskal kultura- eta sormen-sektorea sakonago aztertzea izango dute helburu.

1. irudia
Kultura- eta/edo sormen-industriak: nazioarteko organismoen hurbilketak eta definizioak

DCMS Sormen Industriak	ONU/UNCTAD Sormen Industriak	Europar Batasuna KSIak
Sormena, gaitasuna eta talentu indibidualak	Sorkuntza-, ekoizpen- eta banaketa-zikloak	Kultura material gisa eta KSIak dimentsio kulturala dute
Aberastasuna eta enplegua sortzeko potentziala	Sormena eta kapital intelektuala	Ekoizpen nagusiki funtzionala
Jabetza intelektuala sortzea eta ustiatzea	Ezagutzan oinarritutako jarduera	Elementu sortzaileak prozesu zabalagoetan integra ditzakete
	Ondasunak eta zerbitzuak	

Iturria: geuk egina.



BIO

“Kultura merkatuan, prezioak ez du edukiaren kalitateari buruzko informaziorik ematen. Euskarri materialaren kostuaz hitz egiten du. Ziurgabetasun handia dagoen gizarte batean, artea eta ezagutza partekatua (kultura) balio segurutzat hartzean dago ahalmen ekonomikoa. Baina kontsumitzaileari informazioa emateko eta ekoizpena doitzeko ohiko mekanismoak funtzionatzen ez badu, arazo bat dugu. Zorionez, ekonomia zientzia gisa aurrera doa, eta beste esparru batzuetan oso emaitza onak eman dituzten tresnak lantzen ari gara”.


Fredi Paia
IIP, Euskal Herriko Unibertsitatea; bertsolaria

1.2. Hurbilketa kuantitatiboa: KSlen inguruko zifrak

Hurbilketa kualitatiboaz gain, Eusko Jaurlaritzak hurbilketa kuantitatibo bat sustatzen du, kultura- eta sormen-sektore indartsu eta dinamiko bat zergatik den garrantzitsua ulertu ahal izateko. KSlen garrantzia, dinamikak eta ezaugarriak ulertzeko ahalegin horien eta beste sektore batzuei eta euskal ekonomia osoari egiten dioten ekarpenaren lehen adibide bat Sinnergiak Social Innovation-ek (UPV/EHU) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak aginduta landutako eta 2014an argitaratutako "Kultura- eta sormen-industriak Euskadin. Oraina eta etorkizuna" txostena da.

Txosten horretan, sektore horretarako hurbilketa kuantitatibo bat egitea oso zaila dela onartzen da, nazioartean ez baitago adostasun garbirik sektore horren mugaketaren inguruan. Zehaztugabetasun-testuinguru horretan, erabaki operatibo jakin batzuk hartu behar dira. Ildo horretan, Sinnergiak Social Innovation-en txostenean (2014) datu-base propio bat landu da, hiru Foru Ogasunek UNCTADen sailkapenarekin bat datozen jardueren aitortzaileei buruz aurkeztutako erregistroetan oinarrituta¹. 2. irudian, adibidez, krisi ekonomikoaren lehen urteetan kultura- eta sormen-sektoreak sortutako enpleguek beherakada txiki bat izan dutela eta 2010. urtetik aurrera gora egin dutela ikus daiteke. Azpimarratu beharra dago 2007tik 2012ra bitarte enplegu osoan izandako beherakada % 8koa izan zela, eta KSlen sektorean, berriz, % 3koa baino ez (ibidem). Horrek agerian uzten du sektoreak krisi-egoeretan duen erresilientzia.

2. irudia
KSletako enpresetan sortutako guztizko enpleguen bilakaera (2007-2012, balio absolutuak)




¹ Sailkapen horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus UNCTAD (2008).

Gainera, aipatutako aldi horretan, autoenpleguak etengabe egin zuen gora sektorean, soldatapeko enpleguaren aldean, 3. irudiak agerian uzten duenez.

3. irudia
KSletako enpresetan sortutako guztizko enpleguaren bilakaera, enplegu motaren arabera (2007-2012, %)

- Autoenplegua
- Soldatapeko Enplegua




Iturria: Sinnergiak Social Innovation (2014), foru-ogasunen datuen arabera

KSlen sektoreak Balio Erantsi Gordinari (BEG) egindako ekarpenari dagokionez, azpimarratu beharra dago kultura- eta sormen-sektoreak ekarpen esanguratsua egin diola Euskadi osoko BEGd-ari, krisi ekonomikoak eragindako beherakada gorabehera (4. irudia). Ekarpen hori, ehunekotan, egonkor samarra izan da (% 2,7 2007an eta % 2,2 2012an).

4. irudia

KSlen sektorean sortutako Balio Erantsi Gordinaren (BEGd) bilakaera (2007-2012, balio absolutuak, milaka eurotan)



Iturria: Sinnergiak Social Innovation (2014), foru-ogasunen datuen arabera.

Datu horiek eta beste batzuek berretsi egin dute beste azterketa batzuek beste herrialde batzuetan eta Europan iragarri zutena eta hurrengo urteetan egingo diren azterketek berriz berretsiko dutena, bai euskal testuinguruan, bai Estatuan eta nazioartean: KSlen garapena sustatzeak ondorio positiboak ditu, ekonomiaren osotasunean ez ezik, berrikuntzan eta lurralde-kohesioan ere bai, ondorengo azterketek frogatuko dutenez.

1.3. RIS3: KSlak aukera-lurralde gisa

Kultura- eta sormen-sektorearen garapenaren etapa goiztiar honen beste mugarri nagusi bat 2014an KSlak aukera-lurralde gisa identifikatu izana da, hain zuzen ere Euskadiko “Espezializazio Adimendunerako Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiaren” (Research and Innovation Strategy for Smart Specialisation edo RIS3) esparruan. Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak (ZTBP 2020) ², bestalde, ahalegin guztiak eta espezializazio adimendunerako estrategian (hau da, RIS3 Euskadi izenekoan) lan egiten duten agenteak bildu ditu.



KSlak arreta eta azterketa behar duen sektore gisa agertu ondoren, sektore horren errealtatea definitzeko, mugatzeko eta ezagutzeko ahaleginak askotarikoak izan dira, txostena egin den datan. Estatistikaren ikuspuntutik, sektoreak ez zuen mugaketarik eta tratamendu espezifikorik; kultura- eta sormen-enpresak barreiatuta zeuden hainbat erreferentzia-sektoretan, eta, askotan, jarduera desberdinei zegozkien epigrafeetan agertzen ziren. Ongi mugatutako unibertso bat ez izateak lagin adierazgarri bat segurtasun osoz zehaztea eta, beraz, laginarekin egindako analisien emaitzak eta ondorioak unibertso osora estrapolatzea eragozten du. Horregatik, UNCTADen (United Nations Conference on Trade and Development) proposamena egokia zen, garapen landua eta aurreko proposamenak integratzeko asmokoa baitzen”.


Egoitz Pomares
 ikertzailea, Sinnergiak-Social Innovation (UPV/EHU)

² Euskadi 2020 ZTBPari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/pcti-2020/>

Europar Batasunak estatu kideei eta eskualdeei zuzendutako jarraibideen arabera³, ezagutzaren ekonomiaren barruan Euskadi globalki zer eremutan lehia daitekeen eta, beraz, zer eremutan espezializatu behar duen identifikatzen da estrategia horretan. Zehazki, RIS3 estrategian, KSlak Euskadiko aukera-lurralde gisa agertzen dira, elikadurarekin, hiri-habitatarekin eta ekosistemekin batera, eta guztiak identifikatutako hiru esparru estrategikoei gehitzen zaizkie (fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak/osasuna).

5. irudia

RIS3 strategiaren lehentasunak eta aukera-lurraldeak Euskadin



Iturria: RIS3 Euskadi.

Testuinguru horretan, KSlek sormenean eta berrikuntzan betetzen duten funtsezko funtzioa azpimarratzen da.



2014. urteaz geroztik, ohitura eta janari berrien, jasangarritasunaren eta ingurumenarekiko erantzukizunaren inguruko sentsibilitate berrien etorkizun hurbilera begira gaude. Horregatik, gure porzelanazko produktuak irauteko eta gure artean jarraitzeko diseinatuta daude, eta material biodegradagarrien eremura zabaldu ditugu, premia berriek adierazpen- eta diseinu-leku bat izaten jarrai dezaten Cookplayn”.

Ana Roquero
 diseinatzailea, Cookplay

Horrela, beraz, KSlen ahalmena askatzeko premia agerian utzi duen etapa bat amaitu da, eta, ondoren, sektorea behin betiko mugatu eta lehen babes-politikak eta babes-tresnak garatuko dira. Euskadiko KSlak garatzeko hurrengo fasea oso lotuta egongo da KSlak RIS3 estrategian aukera-eremu gisa identifikatzearen ondoriozko inplikazioekin eta identifikazio horren ondorioz garatutako ekintzekin.

Alfa Arte: Artearen metalurgia

www.alfaarte.com



Sormenetik eta teknologiatik abiatuta, bere artikuluak egiteko Alfa Arte birmoldatu egin da metalurgia tradizionaleko enpresa izatetik nazioarteko artista ospetsuekin lan egiten duen zerbitzu sortzaileen iturri izatera.





© López de Zubiria



© López de Zubiria



© J. Rodríguez - Alfa Arte

Alfa Arte artea fabrikatzeko eta galdatzeko zentro bat da, Eibarren (Gipuzkoa) kokatua. Metalurgia tradizionalaren eremuko enpresa batean oinarrituta badago ere, sormen-zerbitzuen iturri bihurtu da, sormenetik eta teknologiatik abiatuta, eta nazioarteko artista bisual ospetsuekin lan egiten du euren artikuluak garatzeko garaian. Brontzearekin eta beste material batzuekin (hala nola aluminioarekin, altzairu herdoilgaitzarekin eta burdinarekin) lan egiten dute. Alfa Arte eraikin moderno batean kokatuta dago, eta hainbat establezimendu ditu fabrikazio-prozesurako, “arte-galeria bat eta artistek beren eskultura-proiektuak garatzeko gune ireki bat” (Jose Mari Armentia, honako honetan aipatua: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, d.g.).

Digitalizazioak eta hark dakartzan aurrerapenek neurri handian areagotu dute zentroak hedatzeko eta nazioarteko merkatuan txertatzeko duen ahalmena. Gaur egun, Alfa Arteren inbertsiorik garrantzitsuenetako bat 3-D teknologia da, lantzen dituzten objektuekin “jolasteko” aukera ematen baitie, bereziki babes- eta zaharberritze-lanei dagokienez: “Teknologia horri esker, Ekaingo kobaren Ekain Berri izeneko erreplikaren eszenografia osagarriari lotutako proiektu osoa egin dugu denbora errekorrean, muntaketa eta instalazioa barne” (ibidem).



© López de Zubiria



© López de Zubiria

Santa Maria Katedrala Fundazioa




KSI_Gasteizko Katedrala



* Gaztelaniaz eskuragarri

Santa Maria Katedrala Fundazioaren “Obretan eta irekia” proiektuari esker, bisitariak esperientzia paregabea bizi ahal izango du; izan ere, zaharberritze-prozesua desberdina izango baita katedrala bisitatzen den unearen arabera.



Santa Maria Katedrala Fundazioa Santa Maria Katedrala zaharberritzeko premiaren eta borondatearen ondorioz sortu zen. Katedrala "Gasteizko tenplurik enblematikoena eta balio historiko handiena duena" da (Santa Maria Katedrala Fundazioa, d.g.). Prozesua 1999an hasi zen, "Katedralaren Zaharberritze Integralaren Plan Zuzentzailea" inplementatzeko helburuarekin.


Testuinguru horretan, "Obretan eta irekita" proiektua sortu zen. Ekimen horretan, bisitariak esperientzia paregabe bat bizitzeko aukera dauka, zaharberritze-prozesua desberdina izango baita katedrala bisitatzen den unearen arabera. Urte hauetan, metodologia hori Estatuko beste leku batzuetako proiektuetarako ere erabili da. Proiektu horiek, Santa Maria Katedrala Fundazioak bezala, "kultura-ondarea gizarte-kohesioaren eta garapen ekonomikoaren eragileztat hartzen duen ikuspegia" (ibidem) dute.





2. Fasea

2016 - 2018



2. Fasea

KSletan sakontzea (2016-2018)

2016-2018 aldian, aurrerapen esanguratsua egin zen Euskadiko kultura- eta sormen-sektorea finkatzeko bidean, bereziki sektore horren ezagutza sakontzeari, sektorea osatzen duten azpisektoreak behin betiko mugatzeari eta KSlei laguntzeko zeharkako politikak garatzeari dagokienez. Sektoreak lurralde-egituraketaren alde egin duen apustu integrala islatzen duen proiekturik adierazgarriena Europako CREADIS3 - Smart Specialisation Creative Districts (2017-2021) izenekoa da, zalantzarik gabe. Interreg Europe programaren esparruan kokatuta eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila buru duen proiektua da.



BIO

“

2014an KSIak RIS3 Euskadi estrategian aukera-lurralde gisa txertatu izana funtsezko mugarria izan da, eta, horretan oinarrituta, erakundeek sektoreari emandako babes instituzionalaren mugarri nagusiak honako hauek izan dira: 2016an, Europako beste 5 eskualderekin batera (Euskadi eskualde liderra izanik) CREADIS3 proiektua konfiguratu izana, Interreg Europe programaren barruan; 2017an, Euskadiko KSlen berrikuntza teknologikorako, enpresa-ereduaren berrikuntzarako edo kudeaketa ekonomiko-finantzariarako KSI Berritzaile proiektu pilotua abian jarri izana; 2018an, Kulturaren Euskal Behatokiak Euskadiko KSlen sektoreen mugaketa kontzeptualari eta definizioari buruzko txostena egin izana eta sormen-industriak Arte eta Kultura Industrien Estatistikan txertatu izana (bi urtean behin egiten da); eta, azkenik, 2019an, Euskadiko KSIak nazioartekotzeko KSIatea proiektu pilotua abian jarri izana”.

Sabin Goitia

Kultura eta Sormen Industrietako aholkulari ohia, Eusko Jaurlaritza



BIO

“

Azken urteotan, KSlen inguruko balorazioak, gogoetak, analisiak, azterketak, argitalpenak, proiektuak, kongresuak eta bestelako adierazpenak nabarmen ugartu dira. Erakunde-esparruan, sektore horrek gero eta arreta handiagoa jaso du. Sinergiak-ek egindako txostena sektoreak Euskadin duen borondatearen eta eraginaren adibide garbia da, bai kultura arloari dagokionez, bai alderdi ekonomiko eta sozialei dagokienez.

Kulturaren eta sormenaren arteko integrazioa sortuberria eta hasiberria da oraindik (eta agian ikusezina ere bai), baina hautematen, aztertzen eta ebaluatzen zaila den sektore zatikatu bat egituratzen ari da”.

Egoitz Pomares

ikertzailea, Sinergiak-Social Innovation (UPV/EHU)



BIO

“

Kulturako profesional gehienak ekoizpenean aritzen dira. Gainerako antolakuntza-egituraketan giza baliabideen arazoa dugu. Karrera bakoitzak gaitasun jakin batzuk soilik garatzen ditu; adibidea ospitale batena izan daiteke. Ingeniari industrialak den zirujau bati nork utziko lioke ebakuntza bat egiten?

Fredi Paia

IIP, Euskal Herriko Unibertsitatea; bertsolaria

Mugarriak

2016

- Interreg Europe proiektua: CREADIS3 – Smart Specialisation Creative Districts
- Sorkuntza Espazioen Mapa

2017

- KSI Berritzaile programaren abiarazte pilotua – berrikuntza KSletan

2018

- Euskadiko KSlen sektoreen mugaketa kontzeptuala eta definizioa
- Sormen-industrien estatistika nazioarteko adituekin kontrastatzeko jardunaldia
- Arteen eta KSlen estatistikak

2.1

Kultura- eta sormen-sektorearen ezagutza finkatzea

Aldi honetan, sektorearen berezitasunei buruzko ezagutza sakontzeko ahalegina egin da hainbat azterlanetan. Horri esker, kultura- eta sormen-sektore sendo eta dinamiko bat izateak duen garrantziaren arrazoietakoa batzuk agerian jarri ahal izan dira.

2.1.1.

Kultura-esparruko enpresei, enpleguei eta lan-merkatuei buruzko azterlana

2016an, "EAEko kultura-eremuko enpresen, enpleguen eta lan-merkatuen analisia" azterlanak (Kulturaren Euskal Behatokia, 2016a) KSlek Euskadiko enpleguan duten pisuari buruzko datu kuantitatibo garrantzitsuak eskaini zituen aipatutako 15 kultura- eta sormen-azpisektoreen inguruan.

Hona hemen kultura- eta sormen-sektorearen zifra eguneratuak Euskadiko ekonomia globalaren barruan: KSletako 15.500 enpresa inguru zeuden (zehazki, kultura-arloko 6.196 eta sormen-arloko 9.245, 2018ko datuen arabera), eta enpresa guztien % 10 inguru izan dira Euskadin, 2016-2018 aldian. Gainera, 47.412 pertsonak egiten zuten lan enpresa horietan (2018ko datuen arabera), eta kopuru horrek gorakada jarraitua izan du 2016-2018 aldian. Nolanahi ere, enplegu horiek Euskadiko enplegu guztien % 5,33 izan dira. Urte horretan, sormen-industrietan 2,30 pertsonak lan egiten zuten batez beste, eta kultura-industrietan, berriz, 4,22 pertsonak (1. taula).



BIO

“

Berritasun nagusietako bat esparrua KSletara irekitzea izan zen. Kulturaren Euskal Behatokiak aldez aurretik egin zen berrikuspena txertatu eta proposamen propio bat landu zuen (Europar Batasunak proposatzen zuena hartu zen erreferentziazat nagusiki), kulturaren sektore tradizionalai beste sektore batzuk gehitzeko premia kontuan hartuta. Hori ikuspegi teorikotik landu zen, baina, aldi berean, eztabaida teoriko eta kontzeptualei erreparatzeaz gain, ikuspegi praktikoenetik ere planteatu zen.

Hau da, lan paralelo bat egin da, KSlen txertatze edo birformulazio horrekin planteatzen diren erronka teorikoak kontuan hartuta, eta, aldi berean, estatistika-eremu hertsian sektore horiek txertatzeko "zailtasunari" aurre eginez”.

Aintzane Larrabeiti
ICC Consultants enpresako bazkide aholkularia





1. taula
KSletako enpresen eta enpleguen kopurua (termino absolutuetan eta Euskadiko guztizkoarekiko ehunekoetan, 2016-2018).

		2016			2017			2018		
		Enpresak	Enpleguak	Ratioa	Enpresak	Enpleguak	Ratioa	Enpresak	Enpleguak	Ratioa
Kopurua	Kultura-arlokoak	6.286	25.263	4,02	6.173	26.024	4,22	6.196	26.156	4,22
	Sormen-arlokoak	9.151	20.102	2,20	9.213	20.876	2,27	9.245	21.256	2,30
	KSiak	15.437	45.365	2,94	15.386	46.900	3,05	15.441	47.412	3,07
	Enpresak, guztira	154.687	854.154	5,52	154.301	874.241	5,67	152.637	889.853	5,83
% erlatiboa	Kultura-arlokoak	%4,06	%2,96		%4,00	%2,98		%4,06	%2,94	
	Sormen-arlokoak	%5,92	%2,35		%5,97	%2,39		%6,06	%2,39	
	KSiak	%9,98	%5,31		%9,97	%5,36		%10,12	%5,33	

Iturria: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

KSiek sortutako enpleguen kopuruari dagokionez, 6. irudian ikus daiteke hiru langile edo gehiago dituzten enpresetan ehunekoak gora egin duela eta bi langile edo gutxiago dituzten enpresetan, berriz, behera.

6. irudia
KSlen sektoreko establezimenduak, enplegu-bolumenaren arabera (2013-2018).



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia.



BIO

“


Bitamine Faktorian, “berrikuntza biguna”, deitu genezakeenaegiten dugu, hots, alderdi teknologikoari edo digitalari neurri txikiagoan lotuta dagoen berrikuntza. Gure lanaren bidez, pertsonen arteko harremanak, lankidetzak eta kultura-proiektuak egitean beharrezkoa den bitartekaritza berri nahi ditugu. Adibidez, euskal etnografiako objektu tradizionalak berriz diseinatzeke HAU lehiaketa aipa dezakegu. Proiektu horretan zer erakunderekin jardun genezakeen lankidetzan pentsatu genuen (Aranzadi Zientzia Elkartea, San Telmo Museoa), zer unibertsitatekin duen industria-diseinuko gradua aztertu genuen, eta Mondragon Unibertsitatearekin jo genuen. Proiektuak aurkeztu genuen, eta erakunde bakoitzari interesgarria iruditu zitzaion ekimenaren alderdiren bat, lan-lerroaren arabera. Aranzadiko etnografia-sailari gaur egun ikuspegi etnografiko bat zabaltzea eta nabarmentzea interesatzen zitzaion. San Telmo Museoari, berriz, erakusketa hartzea interesatzen zitzaion; izan ere, museoan egon zitezkeen objektu tradizionalak ziren, baina ikuspegi garaikidetik eskainiz. Eta, azkenik, Mondragon Unibertsitateari ere interesatzen zitzaion, eskoletan lantzen dituzten gaiak eta hurbilketak baitira. Kasu honetan, proiektu komun gisa sentitzen dugun proiektu bat sortzeko hainbat erakundek hainbat lekutatik egindako baterako lanean datza berrikuntza”.

Helga Massetani
Bitamine Faktoria

Azpiegitura-sare hori hobeto ezagutzeko, Kulturaren Euskal Behatokiak “Sorguneen mapa” ikerlana argitaratu zuen 2016an. Azterlan horrek hurbilketa kualitatibo baten bidez sormen-espazio publikoak eta pribatuak identifikatzea eta horien ezaugarriak hobeto ezagutzea zuen helburu. Horretarako, galde-sorta bat banatu zen Euskadin errolatutako 29 sorguneetan. Gune horiek honako irizpide hauek bete behar zituzten: 1) pertsonen zein sormen-taldeei baliabideak eta elkarlanerako laguntza eskaintzea, sortzeko eta ekoizteko prozesuak garatu ahal izan ditzaten; 2) sorkuntza eta ekoizpena ahalbidetuko dituzten guneak izatea eta haiek burutzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak izatea, edo 3) kultura- edo sormen-sektorearen batean sartuta egotea (Kulturaren Euskal Behatokia, 2016b).

7. irudia

Sorguneak, arlo estatistiko nagusien eta espezializazio-arloen arabera (%)




Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia (2016b).

Aipatutako ikerlanaren arabera, "arte-esparru bakar bateko espezializazioa dagoela esaten da esparru horri denboraren % 60tik gora eskaintzen zaionean. Horrek ez du esan nahi beste esparru batzuk lantzen ez direnik, esparru jakin bat srgunearen bereizgarria dela baizik. Esparru nabarmenik ez badago, % 20tik gorako dedikazioa duten eremu guztiak kontabilizatzen dira. (...) Sorguneen erdiak baino gehiago esparru batean (...) espezializatzen dira” (ibidem, 10. or.).

8. irudia

Balio-kateko katebegi bakoitzaren batez besteko dedikazioa. (%)



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia (2016b).

Egiten dituzten jardueren arabera, sorguneen ardatz nagusia sorkuntza-ekoizpena dela ikus daiteke (Kulturaren Euskal Behatokia, 2016b). Horrez gain, hona hemen gehien eskaintzen diren zerbitzuak: aholkularitza eta laguntza (% 96); aldi baterako lagapenak (% 85), baliabide teknikoak (% 81) eta komunikazioa (% 77) (ibidem).

2.2

CREADIS3: lurralde-politika publikoen koordinazioa

CREADIS3 – Smart Specialisation Creative Districts ekimena Interreg Europe ¹. esparruan Europar Batasuneko sei lurralde lotzen dituen Europako ekimen bat da. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak zuzentzen du proiektu hori. Proiektua 2017an hasi zen, eta 2021ean amaituko da. Ekimen horren helburua politika publikoen agenda lerrokatzea da, KSlen garapen berritzaile bat lortzeko eta, era horretan, garapen ekonomikoan laguntzeko. CREADIS3 ekimenak erreferentziagune gisa kokatzen du Euskadi, Europako ekonomian gero eta garrantzitsuagoa den esparru batean, eta bertako kultura-politikak hobetzeko aukera ematen ari zaio.

Zehazkiago, CREADIS3 proiektua lurralde-politika publikoen agendak koordinatzeko funtsezko helburuarekin sortu zen, kultura-politiken inguruan berrikuntza eta garapen ekonomikoa sortzea helburu duten lurraldeetan politika eraginkorragoen garapena babesteko. Hortaz, gobernantza instituzionala hobetzea eta KSlek lurralde-garapenari egiten dioten ekarpena sendotzea da asmoa.

¹ Informazio gehiago honako honetan: <https://www.interregurope.eu/creadis3/>

9. irudia

CREADIS3 proiektuko bazkideak, iraupena eta aurrekontua

- Euskadi (proiektuaren burua)
- Valoniako zerbitzu publikoa
- Emilia-Romagna
- Eslovakiako Errepublikako Kultura Ministerioa
- Mendebaldeko Greziako Eskualdeko Garapen Funtsa
- Finlandia Erdialdea



Proiektuaren iraupena: 2017/01/01 tik 2021/12/31ra
Lehen fasea : 2017/01/2017tik 2019/12/31ea
Bigarren fasea : 2020/01/01tik 2021/12/31ra

Aurrekontua: 1.462.706 euro (%85 ERDF)

Iturria: CREADIS3.

2.2.1. Eskumenen eta eskualdeko sorkuntza-ekosistemaren mapaketak

CREADIS3 proiektuko bazkideek hainbat mapaketa (eskumenenak eta eskualdeko sorkuntza-ekosistemarenak) eta lurralde bakoitzerako diagnostiko bat landu zituzten.


Eskumenen mapaketaren helburu nagusia zen kultura- eta sormen-politiken garapenean hainbat mailatan parte hartzen duten organismo publikoak identifikatzea. Euskadiren kasuan, honako hauek izan ziren mailak: Eusko Jaurlaritza, hiru

10. irudia

KS

le

emandako laguntzen banaketa, sektorearen arabera (% , 2016)



Iturria: Eusko Jaurlaritza (2017).

lurralde historikoetako foru-aldundiak eta hiru hiriburuetako udalak. Mapaketa horrek ondorio interesgarriak eman zituen: adibidez, "2016an, Euskadiko administrazio publikoek guztira 202 milioi euro eman zizkieten euskal kultura- eta sormen-sektoreei (laguntza izendunak eta lehia bidezko laguntza-programak)", eta "musika, eduki digitalak, argitaletxeak eta idatzizko komunikabideak eta arte eszenikoak dira laguntza-programen bidez baliabide gehien jasotzen dituzten sektoreak", bideojokoen, artisautzaren, publizitatearen eta marketinaren edota modaren sektoreen gainetik (Eusko Jaurlaritza, 2017, 57. or.).

CREADIS3 proiektuaren esparruan egindako bigarren mapaketak, bestalde, honako helburu hau izan zuen: "KSlen inguruan dagoen eskualdeko ekosistema identifikatzea, babes-politikak eta babes-tresnak, inplikaturako alderdi interesdunak (unibertsitateak, sormen- eta teknologia-zentroak, klusterrak, inkubagailuak eta abar) eta eskainitako zerbitzuak (eskumenen garapena, negozioak kudeatzeko eskumenak sortzea, ETEak nazioartekotzen laguntzeko programak eta abar) barnean hartuta" (Eusko Jaurlaritza, 2018a, 5. or.). Bigarren azterketa hori lehen mapaketan identifikatu diren administrazioek egindako ekintzen sailkapenean oinarrituta dago, ekintza horiek sendotzen duten balio-kateko mailaren arabera.

Azkenik, 2018ko ekainean, lurraldekako-diagnostikoaren txostena eman zen argitara (Eusko Jaurlaritza, 2018b). Txosten

11. irudia

Balio-kateko mailak



Iturria: Eusko Jaurlaritza (2018a).

horrek lurraldearen eta KSlen profil orokorrari buruzko testuinguru-informazioa eskaintzen du, baita kultura- eta sormen-sektorearen analisi bat (bilakaera, egungo egoera eta sormen-barrutiak) eta KSlen sektorearen karakterizazio bat eta AMIA analisia.

2.2.2. Esperientzien elkartrukea

CREADIS3 proiektuaren esparruan, ikasketa-bisita batzuk egin ziren (study visits), proiektuan parte hartzen duten gainerako eskualdeetako sorkuntza-ekosistemen errealitateak ezagutzeko, jardunbide egokiak detektatzeko eta azterketa konparatibo batetik abiatuta ikasteko.

CREADIS3 proiektuko ikasketa-bisitak:

- Eslovakia: 2018ko martxoaren 21-22an.
- Erdialdeko Finlandia: 2018ko maiatzaren 16-17an.
- Euskadi: 2018ko uztailaren 3-4an.
- Valonia: 2018ko azaroaren 1-2an
- Mendebaldeko Grezia: 2019ko apirilaren 11-12an.
- Emilia-Romagna: 2019ko ekainaren 26-28an.

2.2.3. Ekintza Planak

Eskualdeko diagnostikoaren eta mapaketen (barne-dimentsioa) eta ikasketa-bisiten bidez beste errealitate batzuk ezagutzearen eta ikastearen (kanpo-dimentsioa) ondorioz, eta proiektuaren 1. fasearen (2017-2019) azken mugarri gisa, eskualde bakoitzak bere Ekintza Plana zehaztu du.

Euskadiko Action Plan (Eusko Jaurlaritza, 2019) izenekoak proiektuaren 2. fasean (2020-2021) garatu eta monitorizatu beharreko hiru ekintza biltzen ditu:

- A1. BDCC (Basque District of Culture and Creativity edo Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutia) abian jartzea eta ezartzea, KSlei lotutako politikak koordinatzeko gune modura (SPRI - Euskadiko Enpresen Garapenerako Agentzian kokatua).
- A2. KSlei buruzko RIS3 Gidaritza Taldea garatzea: hiru ildo estrategiko abian jartzea, lantalde espezifikoen bidez.
- A3. Kulturaren Finantzaketa Publikoari buruzko Estatistikan KSlen esparrua txertatzea.



Raija Partanen
Development manager,
Central Finland-eko
Eskualde Kontseilua

Zein izan ziren Central Finland eskualdea CREADIS3 proiektuarekin bat egitera bultzatu zuten arrazoiak eta helburuak?

Hasiera batean, CREADIS3 proiektuarekin bat egiteko interesa zuten Central Finlandeko bi bazkide potentzial izan genituen: Central Finlandeko Eskualde Kontseilua eta Jyväskylä Gradia hezkuntza-partzuergoa. Dena dela, eskualde bakoitzeko bazkide bakarra sar zitekeen, eta, beraz, Central Finlandeko Eskualde Kontseiluak hartu zuen bere gain erantzukizuna, eskualdeko agintaritza gisa.

Edukiari dagokionez, CREADIS3 proiektuaren helburu orokorrak piztu zigun hasiera batean proiektuarekiko interesa: ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-erronkei aurre egiteko lurralde-garapena (berrikuntza mota ez-teknologikoen bidez), eta teknologia-sektoreen ernalketa gurutzatua (kulturan oinarritutako sormenaren bidez).

Gure 2040 Eskualde Estrategian –Finlandiako “Hazkundera eta enplegu jasangarriak 2014-2020” izeneko egitura-funtsen programa ezartzeko plan estrategikoa, hau da, gure RIS3 estrategia-, bioekonomia, ekonomia digitala, ezagutzaren ekonomia, ongizatea eta turismoa dira lehentasun nagusiak. Maila teorikoan, sormen-industrien ikuspegia guztietan txerta daiteke, baina inplementazio-neurri zehatzen adibide onak eta berritzaileak behar genituen. Eskualdean KSlak garatzeko aurretik genituen proiektuetan eta ahaleginetan oinarrituta, ongi genekien eta ongi ikusten genuen KSlak negozio-lerro potentziala zirela, baina haiek garatzeko neurri zehatzak behar ziren. Hala ere, sormen-industrien eta sormen-trebetasunen, eta eskualde-estrategiaren eragile eta lehentasun nagusien arteko polinizazio gurutzatua egitea zer zaila den ere ikusi genuen. Aurreko eskualde-proiektuetan saiatu ginen horretan, baina nabaria zen beste leku batzuetako adibide onak behar genituela.



Proiektuarekin bat egiteko arrazoi garrantzitsu bat Euskadi bazkide (lider) gisa edukitzea izan zen. Eskualdean hartutako neurri batzuen ezagutza sakonik izan gabe, Euskadi erronka ekonomiko handiei eta eskualde-garapenaren aldaketa sakonari arrakastaz aurre egiten esperientzia handia duen eskualdea dela iruditu zitzaigun, oro har. Gehiago ikasi nahi genuen horri buruz.

Bete al dira helburu horiek? Zenbateraino zaude pozik proiektuaren egungo fasean (1. fasean zehaztu zen Ekintza Plana inplementatzeko eta jarraipena egiteko 2. fasearen hasieran, alegia) izan duzun parte-hartzearekin?

Proiektu honen bidez, sektore arteko proiektuen adibide onak aurkitu nahi genituen, lankidetza mota berriekin, zeharkako ondorioekin (spillover effects) eta silo sektorialen hausturarekin. Helburu horien artean, halaber, KSlek eskualde-garapenean betetzen duten zeregina hobeto ulertzea zegoen.

Gure ikuspegi orokorra KSlak, eskualde-garapenaren ikuspuntu zabal batetik, sektore arteko lankidetzatzat hartzea izan da. Horren arabera, KSlak ez dira industria independentetzat hartzen, beste sektore ekonomiko batzuekin nahasita baizik. Horrek zalantzan utzi gintuen hasieran, gainerako bazkideak KSletan eta haien babes-egituretan oinarritzen ari baitziren beren jarduerak. Zorionez, gure kezka funtsik gabekoa zen, geroago ikusi genuenez.

Proiektuarekin hasi eta gutxira, CREADIS3 proiektura bideratutako ahalegin guztiak gure sektore estrategiko bakar batean –bioekonomian– biltzea erabaki genuen. Izan ere, gure eskualdean bazeuden –eta oraindik ere badaude– bioekonomia garatzeko inplementatutako jarduerak, baina bioekonomiaren ikuspegiak ere bereizketa eta profil propioa behar zuen. Lankidetzan (Euskadi eta Emilia Romagna bazkide izanik) eta tokiko premia, arazo eta gabezien ezagutzan oinarrituta, elikadura- eta sukaldaritza-alderdiak azpimarratu ziren bereziki ekonomiaren barruan.

Aukeraketa egokia izan zen, azkenean espero genuena baino gehiago kapitalizatu baikenuen, aurreikusterik

izan ez genuen modu batean. Emaiztarik funtsezkoena “gastronomia,, kontzeptua oso zentzu zabalean ulertzea eta gastronomiaren ahalmen osoa eskualde-garapenerako baliatzea izan zen.

Zure kasuan, harreman estuagoa izan duzu Euskadirekin, proiektuko lider-zeregina betetzen duelako ez ezik, proiektuan zehaztutako “eskualde pareetan” (region pairs) zuen bazkide nagusia izan delako ere bai. Nola definituko zenuke harreman hori, eta nola ebaluatuko zenuke, kanpoko ikuspuntu batetik, KSlek Euskadin duten egoera?

Gure eskualde parearekin (peer región), hots, Euskadirekin dugun lankidetza estua funtsezkoa izan da. Eta funtsezkoa izan zen, bereziki, CREADIS3k 2018ko uztaillean egindako ikasketa-bisita. Alde biko tailer gisa egiten dugun jardueraren barruan, Basque Culinary Centre (BCC) erakundeko berrikuntza-garapeneko zuzendari Begoña Rodríguezek aurkezpen zirrargarri bat eskaini zigun. Aurkezpen horretan, gastronomiaren ahalmen handia eta eskualde-garapenaren inguruko elikadurari lotutako gaiak baloratu zituen eta ikuspegi guztiz berria eman zien Central Finlandeko Ekintza Planerako eduki gisa aukeratu genituen gaiei.

Lankidetza estu hori Jyväskylä-ko bi tailerrekin osatu zen. Tailer horiek gure eskualdeko elikagaiei lotutako jardueraz eta garapenaz arduratutako erakundeei zuzenduta zeuden, eta BCC Innovation erakundeko adituek eman zituzten. Beraz, ez da gehiegikeria esatea Euskadirekiko lotura benetan funtsezkoa izan zela CREADIS3 proiektua arrakastaz inplementatzeko eta gure Ekintza Plana garatzeko.

Euskadin ikasketa-bisitetan ikusi eta esperimintatu genuena kontuan hartuta, eta CREADIS3n sortutako material teorikoan oinarrituta, Euskadiko KSlen egoera bikaina dela dirudi. KSletarako estrategia bat eta garapen-plan integral bat daude, stakeholderrekin eta estrategia inplementatzeko baliabide nahikoekin. Finantzaketa eta aholkularitza zehatzak daude sormen-sektoreko eragileentzat, eta ahalegin handia egin da azpiegituretan, hala nola lan-espazioetan eta baterako lanerako instalazio berritzaileetan. Aipatu beharra dago, halaber, kultura-erakunde publikoek

(hala nola museoek) talentu sortzaileen eskaria sortu eta indartzeko betetzen duten zeregina.

Eskerrik asko Euskadi!



2.3

KSlak babesteko zeharkako politikak

2.3.1.

KSlen sektoreko berrikuntza

Hainbat neurri eta tresna sortu dira Autonomia Erkidegoko, probintziako eta tokiko mailetan, enpresa-berrikuntza bultzatzeko helburuarekin (helburu osoa edo partziala). Oro har, KSletara eta beste sektore ekonomiko batzuetako enpresetara zuzendutako sektore anitzeko programak dira.



BIO



Garapen ekonomikorako eta KSlak babesteko politikei dagokienez, gogorazi beharra dago Eusko Jaurlaritzaren industria-politikako tresnen bidez ez dela KSletarako politika espezifikorik egituratzen. Horren orde, sektore anitzeko politikak garatzen dira, eta politika horietan, berrikuntzaren, teknologiaren, aktiboak erosteko finantzaketaren eta abarren bidez, euskal enpresen lehiakortasunaren aldeko apustua bultzatzen da. Beraz, KSlak bultzatzeko estratergiarako, beharrezkoa da sektorea lehiakortasunari lotutako industria-parametroetan egituratzea. Nire ustez, KSlek teknologia eta berrikuntza gehiago sartu behar dute beren produktu eta zerbitzuetan, balio erantsi handiagoa eman dezaten, eta, horren ondorioz, eragin ekonomiko handiagoa izan dezaten”.

Jon Basterra

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko aholkularia, Eusko Jaurlaritza

Autonomia Erkidegoan, SPRI Taldea (Euskadiko Enpresen Garapenerako Agentzia) industria-sektoreetan berrikuntza bultzatzeko neurri eta tresnen erreferentziagunea da. Hala ere, KSlen sektoreko enpresen ezaugarriak direla eta (oso tamaina txikia, jarduera beti industria-produkzioari lotuta ez egotea eta abar), oso parte-hartze txikia du horrelako programetan. Lurralde- edo toki-mailan dauden beste tresna batzuetan, ordea, agerpen handiagoa du. Baten bat azpimarratzearren, Beaz sozietateak kudeatzen duen Bizkaia Sortzailea programa aipa dezakegu (CREADIS3 proiektuan aurkeztutako jardunbide egokietako bat), lurralde-mugekin (Bizkaiko enpresak) eta muga sektorialekin (sormen-sektorea, ardatz gisa diseinua, bideo-jokoak, moda eta ikus-entzunezkoak dituen).



BIO

“

Lehiakortasunaren ikuspuntutik, Kultura Sailak hainbat gai jarri ditu mahai gainean (hala nola I+G+Ba), eta KSlak beste industria bat bezala planteatzen dira. Hau da, nire ikuspuntutik, alderdi positiboa da, eta funtsezko ikuspegi-aldaketa bat da, Eusko Jaurlaritzak KSletara eraman nahi duena, KSlek tresna horiek txertatu eta erabili ahal izan ditzaten eta, era horretan, profesionalizazioa, errentagarritasuna eta ezagutza hobetzeko asmoz”.

Álvaro Sanz

Musika Industria Elkarteko presidentea, Zuzendaritza Batzordeko kidea, EHMBE



BIO

“

KSI Berritzaile programa RIS3 estrategiaren testuinguruan sortu zen, berrikuntza KSlak osatzen dituzten enpresetara hurbiltzeko helburuarekin. Abiapuntuko diagnostikoak herrialdeko agente teknologikoekin lotura egituraturik ez zuen sektore bat identifikatu zuen. Lehen helburua, beraz, Tecnia eta Vicomtech-ekin (hots, esparru horretan gaitasunik handienak dituzten zentro teknologikoekin) lan eginez lotura horiek sortzea izan zen, transferentzia teknologikoan aurrerapenak egiten saiatzeko. Teoriak dioenez, oso atomizatuta dauden sektore batzuetan berrikuntza-bonuak dira tresnarik baliagarrienak sektore teknologikoaren eta enpresen arteko lotura bat sortzeko.

Kudeaketari dagokionez, gaitasunak falta ziren, eta, beraz, bigarren lerro bat landu zen Euskalitekin, jada garatuta zeuden tresnak haren esku jartzeko, baina sektore horretarako baino ez, kudeaketa-ereduak indartzen saiatzeko. Hirugarren lerroan, enpresen finantzaketa indartzeko premia egiaztatu zen, eta, horretarako, Elkargira jo zen”.

Alaitz Landaluze

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Politiken arloko zuzendaria, Innobasque Innovación, Innobasque



BIO

“

KSI Berritzaile programa krisi handiaren ondoren KSlak gora egiten hasi ziren une batean sortu zen. 2017an, suspertze-mugimendu bat hasi zen (Europa osoan ere bai), eta “industria” aipatzen hasteko jauzia egin zen lehen aldiz. Industria gisa katalogatze hutsa eta Eusko Jaurlaritzaren strategiaren, hots, RIS3 strategiaren barruan aukera-lurralde gisa ordezkaritza hori izateko aukera bera (txikia izanik ere) lorpen handia da berez”.

María Teresa Linaza

Sustapen eta Garapen Institutuzionalerako Zuzendaria, Vicomtech



BIO

“

Gure lanak bi urrats nagusi ditu:

1. urratsa: diagnostiko-fasea, Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan (KAE) oinarritua. Helburu nagusia da KAE elementuetan (estrategia, bezeroak, pertsonak, berrikuntza, gizartea eta emaitzak) lortutako garapen-maila ezagutzea. KSletako enpresek eta erakundeek duten gizarte-konpromisoa, berriz, oso handia da gurekin lan egiten duten beste jarduera-sektore batzuekin alderatuta.

2. urratsa: kudeaketa hobetzeko laguntza-fasea, aholkularitza- eta prestakuntza-proiektuen bidez. Proiektuei dagokionez, asko epe ertain eta luzeko estrategien definizioari edota emaitzak neurtzeko adierazleen definizioari lotuta egon dira. Prestakuntza ildo beretik doa, baina taldean egiten da, parte hartzen duten enpresen artean sortzen diren sinergiak baliatuz. Azken batean, kudeaketa profesionalizatu nahi da, sektorean nahiko zabaldua dagoen gabezia baita”.

Nerea Obieta

Euskaliteko komunikazioko arduraduna

Hiru urteko ibilbidean (2017-2019), 195 erakunde inguruk (167 enpresak eta 28 elkartek/fundaziok) hartu dute parte programa horretan, *babestutako 416 zerbitzu/proiekturekin*.



KSI Berritzaile programak produktu edo prozesuetan puntako teknologiak txertatzea errazten du, prototipo funtzionalak garatzearen edo aktibo teknologikoak txertatzearen bidez. Edozein sektoreren zeharkako teknologiak dira, baina bereziki aplikagarriak kultura- eta sormen-sektoreetan. Berrikuntza bultzatzeko programa bat da, eta esparru horretan ibilbiderik ez duten ETEei eta enpresei zuzenduta dago. Ikuspuntu administratibotik, eskaera-prozesua oso sinplea da, eta ez dakar kostu ekonomikorik. Denbora eskaintzeko konpromisoa hartu baino ez da egin behar; nolahi ere, denboran oso mugatuta dauden proiektuak dira.

Ate irekien jardunaldiak antolatzen ditugu, enpresei gure laborategiak erakusteko. Jardunaldi horietan, teknikariek eta ikertzaileekin hitz egin dezakete, eta, egiten zaizkien demoen bidez, teknologiak eskaintzen dizkien aukerak bistaratu ditzakete”.

Rubén Otero
zuzendaria, eServices Area ICT Division, Tecnalia

2. taula
KSI Berritzaile programak aurkeztutako eta onartutako proiektuak (2017-2019)

	Aurkeztutakoak			Onartutakoak			Onartutakoen %		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019	2017	2018	2019
1.Ardatza: Berrikuntza eta Transferentzia Teknologikoa	56	33	28	25	20	16	44,6	60,6	57,1
2.Ardatza: Antolamendu Eredua eta Enpresa Egituraren Berrikuntza	61	53	60	61	53	60	100,0	100,0	100,0
3.Ardatza: Enpresen Finantza Gaikuntza	18	5	15	18	5	15	100,0	100,0	100,0
GUZTIRA	135	91	103	104	78	91	77,0	85,7	88,3

Iturria: Siadecok egina, KSI Berritzaile programako datuen arabera.



KSI Berritzaile programaren esparruan, bi aldiz aurkeztu diogu proiektu bat berrikuntza teknologikoaren ardatzari (2017an eta 2019an), eta behin antolaketa-ereduaren berrikuntzako ardatzari (2017an) eta enpresen finantza-gaikuntzako ardatzari (2017an).

KSI Berritzaile programak streaming bat garatzeko aukera eman digu. Streaming hori hobetu egin dugu eta aurrean irekita utziko dugu; horri esker, eduki digitalak sortu ahal izango ditugu etengabe. Halaber, kontzertuak programatzeko garaian analisi-tresna bat garatzeko aukera eman digu. Horrez gain, enpresa oso-osorik kudeatzeko aukera emango digun ERP bat garatzera bultzatu gaitu. Eta baliagarria izan zaigu finantza-balantzeak onbideratzeko eta banku-erakundeekin harreman hobea izateko. Oso pozik gaude, eta KSI Berritzaile programara jotzen jarraituko dugu, uzten diguten heinean”.


Sebastián Salaverry
zuzendaria, Dabadaba

2.3.2.
KSlen nazioartekotzea

Kulturaren Euskal Behatokiak 2019an argitaratutako "Kulturaren nazioartekotzea" azterlanak agerian utzi duenez, Euskadin kanpo-ekintzan esku hartzen duten askotariko eragileak badaude ere (Etxepare Institutua, SPRI Taldea, Euskadiko Enpresen Garapenerako Agentzia eta abar), "azken plangintzetan borondate argia dago EBC 2020 esparru-estrategiaren bidez ekintza-batasuna bilatzeko" (Kulturaren Euskal Behatokia, 2019a).

“Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Euskadi Basque Country Estrategia 2020 (EBC 2020)” izenekoa hainbat agenteren hainbat alorretako kanpoko ekintza-batasunerako oinarria da ².

12. irudia
Euskadiko kanpoko kultura-ekintzako eragileen mapa



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia (2019a).

² Informazio gehiago honako honetan: <https://www.euskadi.eus/plan-gubernamental/06-estrategia-marco-de-internacionalizacion-2014-2020-euskadi-basque-country-plan-estrategico-de-internacionalizacion-de-euskadi/web01-s2lehen/es/>



BIO

“

Nazioartekotzea eta kanpora ateratzea nahasten ditugu. Kulturen lan egiten dugunean, nazioartekotu egin behar dugu, jakina. Baina horrek esan nahi du kanpoko produktuekin etengabe elikatzeaz gain, hemen ere, lur honetan, ekoiztu egin behar dugula, munduak mapan koka gaitzan eta gauzak eska diezazkigun: ahulena babesteko sentsibilizatuta dagoen gure hezkuntza-eredu eleaniztuna, bertsolaritzak dimentsio anitzeko aldaketa disruptiboetara egokitzeko duen gaitasuna, Gasteizko katedralaren ondare historikoa zaharberritzeko eredu organikoa eta parte-hartzean oinarritua eta abar. Hori da nazioartekotzea, baina kanpora ateratzearekin nahasten dugu eta automozio-sektorearen oker berberak egiten ditugu”.

Fredi Paia

IIP, Euskal Herriko Unibertsitatea; bertsolaria



BIO

“

Sektorearen erronkei dagokienez, askok nazioartekotzeko gogoia dute. Azken batean, erraz nazioartekotu daitekeen sektore bat da. Baina jauzi hori egiteko, alde aurreko urrats batzuk egin behar dira, hala nola epe luzearako estrategia argi bat edukitzea”.

Nerea Obieta

Euskaliteko komunikazioko arduraduna

Kultura- eta sormen-sektorea nazioartekotzeko laguntza areagotzeko borondate horren barruan, azpimarratu beharra dago KSlatea 2019 programa, hots, 2018an diseinatutako eta 2019an abiarazitako KSIak Nazioartekotzeko Programa Pilotua, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatua eta Tabakalerak kudeatua.



BIO

“

KSlatea ekimen pilotu gisa sortu zen 2019an, KSlen sektoreak nazioartekotzeko laguntzen programa publikoetan duen parte-hartze txikiari erantzuteko; programa horietan, oinarritzko balorazio-irizpideak aurkeztutako proiektuan xehatuta dauden jardueren euskarri izango den Plan batean (nazioartekotzeko plan batean edo plan estrategikoko batean) oinarrituta daude. Beraz, KSletako enpresetan nazioartekotze-planak egiteko helburu zehatzarekin sortu zen KSlatea. Ekimen pilotua sentsibilizazio-fase batekin hasi zen, eta, ondoren, 50 enpresen nazioartekotze-gaitasunen inguruko diagnostikoak egin ziren. Enpresa horien artean, nazioartekotzeko proiektu zehatzari ekiteko prestatuen zeuden 20 enpresak hautatu ziren. Ildo horretan, 20 plan egin ziren nazioartekotzeko laguntza orokorren 2020ko programetan aurkezteko. Proiektuaren beste ardatz bat nazioartekotzeko funtsezkoak diren gaien inguruko prestakuntza izan zen (sektorerako irekitako prestakuntza, sei saiotan egituratua).

Pilotu horri esker, halaber, sektoreak nazioartekotzera bideratuta dauden laguntzetara egokitzeko garaian dituen zailtasun espezifikoak identifikatu ahal izan dira, eta, era horretan, programa horiek garatzen dituzten agenteei KSletara irekitzeko neurriak proposatu ahal izan zaizkie”.

Edurne Ormazabal

zuzendaria, Tabakalera



BIO

“

Krisia inflexio-puntu bat izan zen, zirkunstantzia horietan jendeak errazago jotzen baitu elkarte-mugimenduetara. Tradizio eta esperientzia handi samarreko lau elkarte izan genituen abiapuntu: zuzeneko aretoen elkarte, musikaren industrien elkarte –sustatzaileak, diskoetxeak, teknika-enpresak–, musikarien elkarte eta musikagileen elkarte. Lehen, elkarte horiek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin zuten harremana, modu independentean.

Testuinguru horretan, eta Sailaren beraren ekimenez, EHMBE sortu zen duela 5 urte, eta adierazitako lau elkarteek kudeatzen dute. Duela bi urte inguru, elkarteetan lan egiten zuten profesionalak EHMBEko egiturari txertatzea planteatu zen, indar handiagoa emateko. Gaur egun, trantsizio-fasean gaude, EHMBEko Zuzendaritza Batzordea elkarte bakoitzeko bina kidez osatuta dago, eta bost langilez osatutako talde bat eta koordinatzaile nagusi bat daude”.

Álvaro Sanz

Musika Industria Elkarteko presidentea, Zuzendaritza Batzordeko kidea, EHMBE



“

Cookplay-ren benetako nabaritasuna bere nazioarteko-izaeran datza. Mahai global berri bat diseinatzen ari gara, produktu berriek nazioarteko merkatu batean behar dituzten parametro, esparru eta ohitura guztiekin. Zaintza lehiakorreko aditu bat dut ondoan, eta denbora asko ematen dut gure lehiakortasuna eta nazioarteko merkatuetan dugun lekua aztertzen. Erakunde-ikuspuntutik, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Aldundiak nazioarteko azoketan ekintzak egiteko eta parte hartzeko diru-laguntzak eman dizkigute, eta horrek agerian utzi du gure proiektuak berrikuntza- eta sormen-balio handia eta nazioarteko proiektzioa zuela.

Euskadiko KSI guztiak nazioartekotzearen aldeko apustua egitera eta nazioarteko lehiaren inguruko beldurak eta aurreiritziak kentzera animatu nahi ditugu. Asmo handiko proiektu bereizgarri batek arrakasta izateko, ikuspegi globala behar da alderdi guztietan”.

Ana Roquero

Diseinatzailea, Cookplay

2.3.3.

Sektorearen egituraketa: klusterizazioa eta lankidetz

Sinnergiak Social Innovation-ek (2014) 2012-2013. urteetarako egindako ikerketan adierazten zenez, euskal KSlen % 70ek baino gehiagok egin zituzten lankidetz

profesional edo erakunde batzuekin. Kultura- eta sormen-azpisektoreetan kultura asoziazionista sendoa dela esan daiteke. Gainera, klusterizazio-esperientziek instituzionalizazio-maila ugari biltzen dituzte, eta askotarikoak dira KSlen arteko loturaren izaerari dagokionez, espazio fisiko jakin batean biltzen direnekin hasi (horren adibide paradigm

matiko bat Bilboko ZAWP da, CREADIS3 proiektuko jardunbide egokietako bat) eta kultura-azpisektoreen edo sormen-azpisektoreen barruan klusterraren edo elkartearen figuraren bidez egindako aliantzekin amaitzeraino.



BIO

“

Nire ustez, sektorearen garapenak hiru erronka nagusi ditu: atomizazioa, sektoreak bere burua industriad hartzea eta KSlen osotasunaren ikuspegia. Lehenik eta behin, nazioartekotzeko eta kanpora begiratzeko gaitasuna falta zaigu. Gauza handiak egiten ari dira, baina ez dira kanpora proiektatzen ari; horretarako, klusterizatu beharra dago eta lankidetz

proiektuak egin behar dira, baina beti ez dira prest egoten. Bigarrenik, industria dela sinetsi behar da, eta industriaren “arauetan” sartu. Hirugarrenik, nire ustez beharrezkoa da, halaber, KSIak beren osotasunean ulertzea, azpisektoreetatik kanpo; gai izan behar dugu balio-ekosistema hori egituratzeko, eta, horretarako, lankidetzan jardun behar dugu, bakoitzarena bezalako enpresekin ez ezik, enpresa desberdinekin ere bai. Laburbilduz, lankidetz

da kontua, industria baten parte garel

la sinestea eta ekosistema sortzea”.

María Teresa Linaza

Sustapen eta Garapen Institutuzionalerako Zuzendaria, Vicomtech



BIO

“

Nola bultz

ta daiteke sortzaileak eta amateur

rrak sarerik emankorrenetan eta elkartrukerik handienekoetan neurri handian egotea? Oso garrantzitsua da baliabideen zerrenda bat izatea eta jendeari nora joan daitekeen eta nora ez jakinarazi ahal izatea.

Euskadi digitalari lotutako indar bizi guztiak bildu beharko lirateke, eta EITBk gune eragile gisa jardun beharko luke eta bere produkzio propioak sortu beharko lituzke, irratian, telebistan, online zerbitzuetan eta parte-hartzean oinarritutako webgune batean aldi berean erabiltzeko. Hau da, gurutzatzen diren pasabideak, transmedia produkzioak eta sorkuntza-baliabideak; ez lirateke konplexuegiak izango, baina etxea nahitaez plantillan egon behar ez duten baliabideen parte-hartzera zabaltzen dela adieraziko lukete. Horrek beste itxura bat eman lezake, eta testuinguru desberdin batean lan egiteko aukera emango luke, hala nola digitalizazioaren, globalizazioaren, aniztasunaren eta tokikoa denaren eta globala denaren arteko loturaren testuinguruan”.

Ramón Zallo

irakasle emeritua, Euskal Herriko Unibertsitatea



BIO

“

KSlek kide izatearen kontzientzi

azioa sortu behar dute oraindik, eta sektorearen egituraketa handi

ago baterantz aurrera egin behar dute. Sektore horretan, oso erronka nabarmenak daude, hala nola era proaktiboan lantzen ari ez den digitalizazioa. Ildo horretan, berrikuntza teknologikoa landu behar da, zentro teknologikoetan zein beste erakunde mota batzuetan”.

Alaitz Landaluze

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Politiken arloko zuzendaria, Innobasquee Innovación, Innobasque

3. taula

Elkarteak eta klusterrak, kultura- eta sormen-azpisektoreen arabera

	Azpisektorea	Klusterrak	Elkarteak
Kulturalak	Ikusizko Arteak		Eskena
	Ikusizko Arteak		
	Ikus-entzunezkoa	Eiken+	EPE-APV, Ibaia
	Edizioa eta Medio Imprimatuak		Liburu Ganbara
	Musika		EHMBE
	Kultura Ondarea		
Sormenezkoak	Arkitektura		COAVN
	Artisautza		Arbaso
	Eduki Digitalak	Gaia, Eiken+	
	Diseinua	Habic	Eide
	Gastronomia		
	Hizkuntzaren industriak	Eiken+	Langune
	Moda		Basquemoda
	Publizitatea eta Marketina	Eiken+	Publizitate Agentzien Elkarte
	Bideo-jokoak	Gaia	Basquegame

Iturria: geuk egina.

Beraz, KSIak garatzeko estrategiaren barruan, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak erakunde horien garrantzia aitortu du, “gune bideratzaileen” figura sortu du, eta azpisektore bakoitzeko erreferentziazko erakunde bat hautatu du: Eiken, Eide, Habic, Ehmbe, Langune, Basquemoda, Karraskan, Eskena, Arbaso, Liburu Ganbara, Gaia-Basquegame, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoa eta Bizkaiko Publizitate Agentzien Elkarte.

Mota horretako erakundeek beren sektoreko enprekin zuzeneko harremana dutenez gero, komunikaziorako eta enpresetan sartzeko bideratzaile gisa balio dute, dela programetarako (KSI Berritzaile, KSlatea), dela Sailak sustatzen duen eta KSletara bidera daitekeen zeharkako beste edozein jardueratarako.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2015. urteaz geroztik urtean behin antolatzen duen Autonomia Erkidegoko Sormen Lantegiak programak bitartekaritza eta sareko lana azpimarratzen ditu bereziki kultura- eta gizarte-arloko bitartekaritza- eta berrikuntza-proiektuetarako diru-laguntzak eskaintzen dituen BITARTEZ lerroan. Zehazkiago, ikerketa, berrikuntza eta garaikidetasun artistikoarekin konprometituta dauden eta bitartekaritzaren eta sareko lanaren bidez elkarrikteta, lankidetzatza, baterako sorkuntza eta/edo desberdinen arteko hibridazioa eta gure ingurune sormena ahal den neurrian garatzeko talentuaren sustapena bultzatuko dituzten proiektuetara zuzenduta daude diru-laguntza horiek.



BIO

“

Musikaren sektorean balio-katearen fase guztietan lanean ari diren enpresen, erakundeen eta elkarten arteko lankidetzak neurri handiagoan susta lezake Europako proiektuen eta lankidetzatza potentzialen babesa eta garapena”.

Iñaki Otalora

Kultura Live-ko kidea, Zuzendaritza Batzordeko kidea, EHMBE



BIO

“

Musikaren sektorea oso atomizatuta dago; mikroenpresak gara nagusiki. Hala ere, gure helburua lehiakorragoak izatea da, sektorearen ahalmen ekonomiko eta garapen-ahalmen osoa baliatu ahal izateko. Horretarako, balio handi bat dugu, hots, profesionalizazioa. Eskuragarri dauden aukerak eta informazioa mundu osoari helarazten (sektore hori garrantzitsua dela ulertuko duten belaunaldi berriak sor daitezten), hazten eta indartzen eta enpresek elkarre-prozesu edo kapitalizazio garrantzitsuagoak, finantza-tresnak eta abar izan ditzaten lortzen saiatzean datza zeregina”.

Álvaro Sanz

Musika Industria Elkarteko presidentea, Zuzendaritza Batzordeko kidea, EHMBE

2.3.4. Egituren garapena babestea

Sormen Lantegiak programak, SORGUNE lerroaren bidez, diru-laguntzak eskaintzen dizkie sormen-jardunbideak babesten dituzten kultura-espazio independenteei. Zehazki, programa espezifikoak antolatzearen bidez sortzaileei zein sormen-erakundeei lagunduko dieten kultura-espazio independenteen jarduera-proiektuetara bideratzen dira diru-laguntza horiek, eta beren sorkuntza- eta produkzio-prozesuak garatu ahal izateko espazioak, baliabideak eta elkarlanerako laguntza ematen dira, betiere arte-adierazpenak berritzera, talentua detektatu eta babestera, parte-hartzean oinarritutako kudeaketara eta tokiko ingurunearekiko loturara bideratuta.



BIO

“

Kultura-zentro askok dugun eginkizunetako bat sorkuntza sustatzea da, erakusketa-programen eta sortzaileei laguntzeko hainbat baliabide eta planen bidez. Hala ere, ez da hain ohikoa kultura-zentro batek KSIak babesteko eta garatzeko programak sustatzea bere zeregin nagusiaren, hots, kultura-sorkuntza herritarrei hurbiltzearen parte gisa. Tabakaleran, sortzaileekin eta kulturarekin –gizarte-eraldaketarako elementu gisa– dugun konpromisoa Euskadiko KSlen sektorea bultzatzeko eta agerian uzteko proiektu berritzaile batean txertatzea ahalbidetuko digun esparru teoriko bat lantzen ari gara, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bultzatutako politikekin koordinatuta”.

Edurne Ormazabal

zuzendaria, Tabakalera



BIO

“

Eskaintzaren eta eskariaren ikuspegitik – ekonomialariok kontu honetan ez baitugu burua gehiegi nekatzen–, baliteke kultura-azpiegitura higiezin gehiegi egotea, baina horrek ez du esan nahi kultura-eskaintza handiegi bat dagoenik, eta are gutxiago kontsumitzaileek azpiegitura horien alde aurreko kultura-eskari bat dutenik”.

Fredi Paia

IIP, Euskal Herriko Unibertsitatea; bertsolaria

2.4 KSletako azpisektoreen mugaketa kontzeptuala

Aurreko urteetan sektorea ezagutzeko egindako lanari esker, 2018an "Euskadiko KSlen sektoreen mugaketa kontzeptuala eta definizioa" txostena (Kulturaren Euskal Behatokia, 2018) egin zen. Txosten horrek, izenburuan bertan adierazten denez, kultura- eta sormen-sektorearen eta hura osatzen duten azpisektoreen behin betiko mugaketa dakar (etorkizuneko berrikuspenen mende badago ere), baita horien perimetrajea ere, neurketa estatistikoari begira. Hori funtsezko urratsa da, hurbilketa kuantitatiboak eta kualitatiboak gidatuko dituen. Hurbilketa horietan, erabaki metodologikoek, azkenean, aztergaiaren definizio argi bati jarraituko diote.

Argitalpen honetan azpimarratzen denez, Euskadiko kultura- eta sormen-sektorearen ikuspegiak kultura-alderdia nabarmentzen du, sormenaren gainetik. Ikuspegi hori, beraz, Britainia Handiko DCMSk edo UNCTADek proposatutako definiziotik urruntzen da, eta hurbilago dago Europar Batasunak landutako ikuspegitik.

Hurbilketa horri, nolanahi ere, kultura- eta sormen-sektorerako beste hurbilketa batzuetan oinarrituta dauden eta sektoreak Euskadin duen kontzeptualizazioaren arabera KSI guztientzat komunak diren hiru ñabardura gaineratu behar zaizkio:

- *Kultura-adierazpenen kontzeptuarekiko lotura.* Kultura-sektore guztiek kultura-adierazpenak sortzen dituzte: ondarea, arteak eta kultura-industriak. Baina sormen-industriek ere sortzen dituzte kultura-adierazpenak, hala nola arkitektura, diseinua, hizkuntza, gastronomia, publizitatea, artisautza eta abar.
- *Sorkuntza eta komunikazioa sinbolikoa den horretan oinarritzen dute.* Kultura-alderdiaren eta sormen-alderdiaren erabilera-balioa berezkoa edo sinbolikoa da, erabiltzaileak (subjektiboa) ematen diona, eta horrek bereizten du balio teknikoa (objektiboa) duten beste ondasun batzuetatik.
- *Jabetza intelektualeko eskubideei lotuta daude* (egile-eskubideei nagusiki). Kultura-eduki gehienak egile-eskubideei lotuta daude, eta horrek bereizi egiten ditu. Hala ere, babestuta dagoen guztia ez da kulturala, eta kulturala den guztia (ondasunak eta zerbitzuak) ez dago nahitaez babestuta.

Gogoeta horien ondorioz, euskal testuinguruko KSlen 15 azpisektoreren, hots, kultura-arloko 6 azpisektoreren eta sormen-arloko 9 azpisektoreren (horietako bi Euskadiko sormen-industria bereziak dira) mugaketa kontzeptuala argitaratu da. Aurreko urteetan ere landu izan da mugaketa hori.



BIO

“

Abiapuntuko datu eta informazio baliozkorik gabe, oso zaila edo ia ezinezkoa da babes-politika eta babes-tresna eraginkorrak planteatzea eta, gainera, ondoren haien eragina neurtzea. Ildo horretan, Kulturaren Euskal Behatokia Kultura Sailaren barruan dugun eta langile espezializatuek egindako estatistika eta txosten kualitatiboak izatea eta, beraz, Euskadin KSIak garatzeko babes-politikak eta babes-tresnak identifikatu eta abian jartzeko oinarria eraikitzea ahalbidetzen digun funtsezko tresna bat da”.

Sabin Goitia

Kultura eta Sormen Industrietako aholkulari ohia, Eusko Jaurlaritza



BIO

2.5

Sormen-industrien estatistika

“

2018. urtean, prozesu bikoitza egin genuen. Alde batetik, KSletako sektore guztietako elkarte sektorial guztiekin kontrastatu genuen, eta txostenaren edukia azaldu genien, baita eurengan nolako eragina izango zuen eta zer planteamendu proposatzen zen ere. Aldi berean, nazioarteko jardunaldiak antolatu ziren adituekin, ibilbide luzeagoa egin duen eta eztabaidak eta zailtasunak ongi ezagutzen dituen jendeak kontraste-lan hori egin ziezagun. Funtsean, aurre egin beharreko zailtasunak berberak direla ikusteko balio izan zuen. Izan ere, esparru eta eremu batzuetan, dauden sailkapenek aukera ematen dute, zailtasun handiegirik gabe, ikuspegi estatistikoa eta globalago horretan sektore berriak txertatzeko; beste sektore batzuk, berriz, zailagoak dira aztertzen, hala nola eduki digitalak”.

Aintzane Larrabeiti

ICC Consultors enpresako bazkide aholkularia

13. irudia

Euskadiko kultura- eta sormen-azpisektoreak



KULTURA-AZPISEKTOREAK

- Ondarea
- Ikusizko arteak
- Musika
- Edizioa eta komunikabide inprimatuak
- Arte eszenikoak
- Ikus-entzunezkoak



SORMEN-AZPISEKTOREAK

- Artisautza
- Arkitektura
- Publizitatea eta marketina
- Bideo-jokoak
- Eduki digitalak
- Diseinua
- Moda
- Hizkuntzaren industriak *
- Gastronomia *

* EAEko sormen-industria bereziak

2007. urteaz geroztik, Kulturaren Euskal Behatokiak Arte eta Kultura Industrien Estatistika eragiketa egiten zuen bi urtean behin. 2017an, beste urrats bat egin zen KSlen sektorearen ezagutza globalean (hurbilketa kuantitatibo batean oinarrituta). Zehazki, Kulturaren Euskal Behatokiak Sormen Industrien Estatistika egiteko datuak biltzera bideratutako landa-lana diseinatu zuen, eta 2018an hasi zen. Estatistika-eragiketa horren bidez, agenteen lurralde-banaketa finkatzen da, eta dimentsio ekonomikoaren, sortzen duten enpleguaren eta haien jardueraren ezaugarriak zehazten dira, kultura-industrien kasuan egiten ari zen bezala (musika, ikus-entzunezkoak, arte eszenikoak, ikusizko arteak, edizioa eta komunikabide inprimatuak). Honako hauek dira azterketaren xede: moda, diseinua, arkitektura, hizkuntzaren industriak, publizitatea eta bideo-jokoak. Beraz, Sormen Industrien Estatistika 2007. urteaz geroztik bi urtean behin egiten den Arte eta Kultura Industrien Estatistikari gehitzen zaio.

Aldez aurretik, 2018ko maiatzean kontraste bat egin zen nazioarteko adituekin, alderdi orokorrak landu ziren jardunaldi batean. Alderdi horiek, besteak beste, balio-kateari edo aipatutakoa bezalako sormen-industriei buruzko estatistika-eragiketa batean industria jakin batzuk txertatzeko/baztertzeo irizpideei lotuta zeuden. Kontraste-jardunaldi horretan, beste gai espezifikoago batzuk ere eztabaidatu ziren, hala nola gastronomiaren azpisektorearen euskal espezifiktasuna eta pertsona bakarreko enpresetarako hurbilketa.

Arteen, Kultura Industrien eta Sormen Industrien 2017ko Estatistikak ³ eskaintzen duen argazki finkoari dagokionez –estatistikaren emaitzak 2019ko abenduan argitaratu ziren, sektore horietako 1.092 agenteren informazioarekin–, azpimarratu beharra dago KSlen diru-sarreraren eta gastuen balantzea positiboa dela (51,5 milioi euro). Enpleguaren kasuan, 6.834,4 pertsonak dihardute Euskadiko sormen-industrietan (lanaldi osoko lana duten pertsona gisa kontabilizatuak).

Estatistikako agenteen % 61,6 kultura-azpisektorekoak dira, diru-sarrera guztien % 53,5 sortzen dituzte, eta Euskadiko enpleguaren % 43 biltzen dute. Sormen-industrietako agenteak, bestalde, %38,4 dira, diru-sarrera guztien % 46,5 sortzen dituzte eta langileen % 57 biltzen dituzte.

³ Sormen-industrien kasuan, beste irizpiderik ez dagoenez eta lehen eragiketa denez gero, hiru enplegu edo gehiago dituzten sormen-sektoreko enpresetara mugatu da estatistika (profesional autonomoen kopurua handia da sektorean).

Enpresa bakoitzeko langileen ratioa 6,3 pertsona da batez beste. Sormen-sektoreetan, 9,3 langilek dihardute enpresa bakoitzeko, eta kultura sektorean, berriz, 4,4 langilek. Nabarmentzen diren industriak honako hauek dira: hizkuntzaren industriak (16,4 langile enpresa bakoitzeko), bideo-jokoak (11,2 langile) eta publizitatea (10,2). Datuak lurraldearen arabera aztertuz gero, Bizkaia nabarmentzen dela ikus dezakegu. Agenteen kopuruaren, diru-sarreraren zein enpleguaren kasuan, Bizkaiak du proportziorik handiena. Enpresa bakoitzeko langileen ratioa lurralde

bakoitzean kalkulatz gero, Bizkaia guztizko batezbestekoaren (6,3) gainetik dago, enpresa bakoitzeko 7,6 langilerekin. Atzetik, Gipuzkoa eta Araba daude (5,2 eta 4,0 langile, hurrenez hurren). Datuak esparruaren arabera aztertuz gero, kultura-esparruaren eta sormen-esparruaren artean alde txiki batzuk daudela ikus daiteke. Kultura-industrietan, agenteak sormen-industrietan baino banatuago daude Bizkaiaren eta Gipuzkoaren artean. Diru-sarrerak eta enplegua, ordea, proportzioan txikiagoak dira Gipuzkoan, eta handiagoak Bizkaiaren.

Enplegua xehatzen bada eta genero-ikuspegia kontuan hartzen bada, sektorerik feminizatuenak eta maskulinizatuenak ikus daitezke. Moda eta hizkuntzaren industriak dira plantilletan emakume gehien dituztenak. Emakumeen proportziorik txikiena ikus-entzunezkoen, arkitekturaren eta, batez ere, bideo-jokoen sektoreetan agertzen da.



BIO

“


Ondorio gisa, Kulturaren Euskal Behatokian ikusten ari garena –eta nazioarteko kontrastean diharduten adituek berretsi dutena– da garrantzitsua dela aurrerapen kontzeptuala, teorikoa eta ikerketa hutsekoa landa-lanera egokitzea edo lan horrekin gainjartzea, landa-lanaren bidez ikusten baitira arazoak. Europako beste konparazio-alderdi batzuei begira kontuan hartu beharreko bigarren gauza da garbi utzi behar dela zertaz ari zaren, eta zehazteko, mugatzeko eta kasu batean edo bestean zer gaineratzen ari den azaltzeko lan bat egin behar dela.

Hori guztia Kulturaren Euskal Behatokiaren azken estatistiketan aplikatu da. Arteen eta Kultura Industrien Estatistikaren azken edizioan (2007tik aurrera egiten dena) sormen-industrien estatistika espezifikoa ere sartu zen. Lehen hurbilketa egiteko ahalegina egin zen, oinarri komun batekin, baina aldeei eutsiz, geroago datu globalak atera ahal izateko eta baterako ikuspegi bat lantzeko”.

Aintzane Larrabeiti
ICC Consultors enpresako bazkide aholkularia

14. irudia


Euskadiko KSletako agenteak, diru-sarrerak eta enpleguak (2017, lurralde historikoaren arabera)



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia (2019).

15. irudia

Emakumeak Euskadiko KSletan (2017)



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia (2019).



BIO

“

Gure jarduerak ondorio eta eragin ekonomiko bat dute, enpleguan zehazki. Duela sei urte inguru, “txip-aldaketa” bat gertatu zen, eta KSIak ere eragile ekonomikoak eta enplegu bizkorra sortzen duten enpresak direla ikusten hasi zen; orduan deitu ziguten gidaritza-taldeetara. Talde horietan, badaude elementu eragileak, hala nola Tabakalera, museoak eta abar. Halaber, SPRI ere sartu da, eta, beraz, Kultura Sailari lotutako eragileek ez ezik, industriaren esparrukoek ere esku hartzen dute”.

Álvaro Sanz
Musika Industria Elkarteko presidentea,
Zuzendaritza Batzordeko kidea, EHMBE

Donostia 2016: Kulturaren Europako Hiriburua

#Donostia2016:
Elkar bizitzeko kultura //
Cultura para convivir.

DSS Living Together



* Ingelesean eskuragarri

2016an, Donostiaren
hautagaitzak Kulturaren
Europako Hiriburuaren onarpena
jaso zuen, "Elkarbizitzarako
kultura" izeneko proiektuarekin.





Europako "Kulturaren Europako Hiriburuak" proiektua (ECoC, ingelesezko siglen arabera) hiri bati bertako kultura-balioak erakusteko eta tokiko kultura-garapena eta garapen sozioekonomikoa indartzeko ematen zaion errekonozimendua da. Hirientzat, aukera handia da beren kultura-ondarea erakusteko eta, aldi berean, komunitate gisa hazten jarraitzeko (Europako Batzordea, d.g.).

2016an, errekonozimendu hori Euskadira iritsi zen, Donostiaren hautagaitzarekin. Hiriak aurkeztutako proiektuak herritarrentzat oso garrantzitsua zen gai bat landu zuen. Proiektuaren izenburua "Elkarbizitzarako kultura" izan zen, eta haren proposamena "hainbat hamarkadatan jarduera terroristek markatu duten hiriaren iragan hurbilari" (Europako Batzordea, 2018, 2. or.) buruzkoa izan zen. Europako Batzordeak Donostiak ECoC gisa egindako bidearen ebaluazioari buruz egindako txostenaren arabera (2018), "Donostiako programak tokiko kezkak eta testuingurua islatu zituen, ikuspegi sozial eta politiko sendoarekin" (ibidem, 5. or.). Gainera, errekonozimendu horren bidez, "hiriaren identitate konplexuari eta bertako biztanleen ongizate sozial eta individualari lotutako eduki sentikor berri bat" lortu nahi zen, "eta horrek ere Europako dimentsio nabaria du" (ibidem).



BIME PRO: Musika-industriaren elkargunea



BIME PRO 2019



* Gaztelaniaz eta ingelesez eskuragarri

BIME PRO bilera- eta negozio- zentroa da, tokiko eta estatuko musika-industriarentzat, nazioarteko profesionalen partaidetza ere gero eta handiagoa izanik. Honek ekarpen handia egin dio Euskadiko kultura- eta sormen- ekosistemari.



© Javier Rosa



© Javier Rosa

BIME PRO proiektua 2013. urtean hasi zen, eta Euskadiko kultura- eta sormen-ekosistemaren eragile garrantzitsu bihurtu da. Alde batetik, bilera- eta negozio-zentroa da tokiko eta nazioko industriaren zati handi batentzat, eta nazioarteko profesionalen gero eta parte-hartze handiagoa du. Bestetik, hitzaldien eta tailerren programaren bidez, sektorearen barruko gaurkotasunari eta berrikuntzari lotutako gaiak landu nahi izaten dira beti, musika-industriako agenteentzat ezagutza- eta eguneratze-iturri izateko asmoz. BIME garatzen den ingurunean, *eragina* oso handia da, kontuan hartuta azokan hiru egunez parte hartzen duten 3.000 profesional ingururen % 70 eta jaialdian beste bi egunetan parte hartzen duten 21.000 pertsonen % 50 Euskaditik kanpokoak direla.

Ekitaldiaren funtsezko helburuetako bat nazioarteko proiektzio handiagoa lortzea da, eta proiektzio hori sendotu egiten da urtez urte. Izan ere, funtsezko ekitaldia da Europako eta Iberoamerikako merkatuen arteko loturari dagokionez. Horren guztiaren asmoa da BIME PRO proiektuan

harremanak ezartzeko, negozioak egiteko eta musika-industriari eta sormen-industriei lotutako azken joeretan eta berrikuntzetan prestatzeko foro ezin hobea aurkituko duten nazioarteko gero eta profesional gehiago erakartzen jarraitzea.

BIME PROren barruan garatzen ari diren *azken proiektuak* honako hauek dira: BIME CITY, Bilboko kontzertu-aretoen ingurunean musika-proposamen berriak sustatzen dituen; BIME TECH, BIME PROren hornitzaileen lehen azoka, neurri guztietako ekitaldietan soluzioak ematen dituzten teknikari, zerbitzu-enpresa eta profesionalentzat; AMCS (Atlantic Music Conferences Symposium), Atlantikoaren bi aldeetan musika-industriaren ezagutza-nodoen arteko sinergiak ezartzeko abiapuntua izateko helburua duena; BIME PRO START UP, musika industriarekin lotutako start upen inguruko topaketa; eta BIME PRO CAMPUS, kultura-industrien –eta, bereziki, musika-sektorearen– inguruko kezkak dituzten ikasleei zuzendutako ikastaro trinkoa, alderdi guztiak kontuan hartuta (artistikoa, *managementa*, produkzioa, lege-alderdiak, marketina eta abar).



© Javier Rosa



© Javier Rosa



© Javier Rosa



3 . Fasea



3. Fasea

Mugarriak

2019

- Jabetza industrial eta intelektual KSletan
- RIS3, lurraldea: 1. ariketa administrazioekin
- Kultura- eta sormen-sektoreak finantzatzeko ereduak
- KSlatea programaren abiarazte pilotua – KSlen nazioartekotzea
- RIS3 Gidaritza Taldearen bilera:Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutia- BDCC- proiektuaren aurkezpena; Cross-fertilization: Elikadura
- KSlen aukera-lurraldearen aurkezpena Elikaduraren Gidaritza Taldean
- RIS3, lurraldea: 2. ariketa administrazioekin
- Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutiaren- BDCC- diseinua
- I+G+Baren kontzeptualizazioa kultura- eta sormen-sektoreetan
- RIS3 Gidaritza Taldearen bilera

KSlen etorkizuna 2019

3.1 KS!ak babesteko zeharkako politikak: urrats bat harago

3.1.1. Kultura- eta sormen-sektorearen finantzaketa-ereduak

2019an, Kulturaren Euskal Behatokiaren lan batek “Kultura- eta sormen-sektoreen finantzaketa-ereduak” ikertu zituen (Kulturaren Euskal Behatokia, 2019b). Finantzaketa-funts publikoak eta/edo pribatuak lortzeko zailtasunak kultura- eta sormen-sektorearen beraren ezaugarriei lotuta daude. Oro har, “inbertsioaren bidez etorkizuneko egoera bermatuagoak eskaintzen dituzten beste sektore batzuk baino sektore iragarrezinagoa eta arrisku handiagokoa da. Finantza-erakundeek nahiago dute a priori kaudimen-berme handiagoak eskaintzen dituzten eta beren ohiko irizpideei hobeto erantzuten dieten sektoreekin lan egitea” (ibidem, 8. or.).



BIO

“

2019. urtean, hurrengo legegintzaldirako (2020-2024) politiken oinarriak finkatu dira “industriaren” eta “garapen ekonomikoaren” ikuspuntutik, baina kultura- eta sormen-sektorearen idiosinkrasia eta ezaugarri bereziak ahaztu gabe, eta beharrezkoa den sareko lanaren ikuspegi argiarekin”.

Sabin Goitia
Kultura eta Sormen Industrietako aholkulari ohia, Eusko Jaurlaritza

Testuinguru horretan, administrazio publikoek KS!ei finantza-babesa emateko bi eredu handi daude: zuzenekoak, batez ere diru-laguntzen bidez, eta zeharkakoak, zorra edo kapitala finantzatzeko tresnen, bermeen edo zerga-pizgarrien bidez (ibidem).

Euskadin, babes publikoko bi eredu horien arabera KS!etarako hainbat tresna sortu dira,heldutasun- eta helburu- mailen arabera: hasierako ereintza-etapan laguntzea, hazkundera, proiektuen garapena, berrikuntza eta nazioartekotzea.

Trebakuntzaren esparruan, KSI Berritzaile programaren 3. ardatzak kudeaketa ekonomiko-finantzarioari lotutako oinarrizko kontzeptuetan prestatzearen bidez finantza-trebakuntzarako laguntza emateko aukera jasotzen zuen. Programa horren 2017-2019 aldiko ebaluaziotik abiatuta, esparru hori BDCCn zerbitzu gisa txertatzea erabaki da.

4. taula Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia (2019b).

	Ekintzailletza	Hazkundera	Proiektuen garapena	Berrikuntza	Nazioartekotzea
Txekeak				SPRI: Basque digital innovation hub	
Ekarpen berreskuragarriak					SPRI: Gauzatu – Kanpo ezarpenetarako
Maileguak	SPRI, IVF eta Elkargi: Aurrera Inbertsioak + zirkulatzaila start-upentzat	Elkargi: KS!etarako LANDU Maileguak, Finantzen Euskal Institutua. ETE eta NIDCAP	Elkargi: KS!etarako ERAIKI maileguak	Elkargi: Berrikuntza funtsa	Finantzen Euskal Institutua: Esportazioa
	Enisa				
Mikro-kredituak	Seed Capital Bizkaia: Nikro Funtsa				
Partaidetza-mailegua	Seed Capital Bizkaia: I Funtsa	Basque: I Funtsa	Basque: II Funtsa	Seed Capital Bizkaia: BI Funtsa FEIS Funtsa	
Arrisku-kapitala					
Business angels	Creceer + Keiretsu Forum Euskadi				
Seed Capital	Hazibide, Seed capital Bizkaia Seed Gipuzkoa				

Fuente: Observatorio Vasco de la Cultura (2019b).

3.1.2. Jabetza intelektual (JI) KSletan

Galbaian Elkartearen 2019ko txostenak KSlen jabetza intelektualaren sorkuntzari eta ustiapenari buruzko informazioa biltzea gomendatu zuen, KSlek jabetza horren bilakaera eta garapena neurtzeko eta jabetza intelektual sustatzen duten programek kultura- eta sormen-sektorean duten eragina neurtu ahal izateko adierazle sorta bat barne (Galbaian Intellectual Property, 2019, 63. or.).

Jabetza intelektual babestearen bidez sormena babesteko neurri edo tresnei dagokionez, Euskadin ekintzak egin dira hiru eremu desberdinetan: sentsibilizazioa eta prestakuntza; jabetza intelektualaren sorkuntzaren sustapena eta jabetza intelektual kudeatzeko eta ustiatzeko laguntza.

Esparru horietako lehenengoari (hots, sentsibilizazioari eta prestakuntzari) dagokionez, SPRI Taldeak (Euskadiko Enpresen Garapenerako Agentzia) jabetza intelektualaren arloko prestakuntza-ikastaro eta prestakuntza-ekitaldi ugari eskaintzen eta babesten ditu enpresentzat eta partikularrentzat, hala nola Patenteen inguruko Espezializazio Ikastaroa enpresaren esparruan, eta Innobideak Prestakuntza ikastaroa –jabetza industrial eta intelektualaren kudeaketa aktiboa, lehiakortasuna hobetzeko– (ibidem, 56. or.).

Jabetza intelektualaren sorkuntza sustatzearen ikuspuntutik, "I+Ga babesteko programek –hala nola Hazitek programak– finantzatutako proiektuen emaitzen jabetza intelektualaren babesari eta ustiapenari lotutako partidak dituzte" (ibidem). Halaber, Hazinnova programak⁴ "Markak eta diseinuak" atala espezifikoa du, eta, bertan, ETEetan egindako inbertsioak errentagarri egiteko EBko merkataritza-marken eta industria-diseinuen erregistroari lotutako gastuak biltzen ditu.

Hala ere, eta enpresa-sustapeneko politika generikoei lotutako esparruetan gertatzen den bezala, ekimen horiek bideratuago daude jabetza industrialaren (patenteak, markak eta diseinuak) kudeaketan eta ustiapenean laguntzera jabetza intelektualari berari lotuago dauden eta eskaintza dezente mugatuagoa den esparruetara baino (egile-eskubideak, lotutako eskubideak eta abar). Hori dela eta, 2020-2021ean Kultura Sailak hainbat zerbitzu abiaraziko ditu fase pilotuan, BDCCren barruan. Zerbitzu horiek parte hartzen duten KSlei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak, trebakuntza, diagnostikoak eta plan pertsonalizatuak eskainiko dituzte.



BIO

“

KSlen barruan, sektore bakoitzak bere berezitasunak eta, horren ondorioz, bere premia propioak ditu. Nolanahi ere, sektore guztiei egiten die kalte pirateriak eta lan intelektualaren balioa agerian ez jartzeak. Detektatu dugun gabezieta bat araudi aplikagarriarekiko kontakturik eza izan da, hots, ez jakitea zer eskubide dauden eta jarduera profesionalek zer eskubidetan duten eragina.

BDCC barrutiaren bitartez, KSlen garrantzi estrategikoa aitortuta eta arlo horretan detektatutako premiak direla eta, Audens Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin lanean ari da jarduketa-plan bat abian jartzeko. Aurreikusitakoaren arabera, plan horrek sentsibilizazio- eta trebakuntza-ekintzak, arazo orokorre konponbidea ematea ahalbidetuko duten baliabide eta tresnak sortzeko ekintzak eta sektoreko industriei aholkularitza espezifikoa emateko ekintzak ezarriko ditu”.

Maitane Valdecantos
abokatu bazkidea, Audens

3.1.3. I+G+Baren kontzeptualizazioa kultura- eta sormen-sektoreetan


KSletarako RIS3 Gidaritza Taldearen esparruan, lantalde espezifikoen bidez abian jarritako hiru lerro estrategikoetako bat KSlen sektoreko I+G+Bari lotutakoa izan da.

Lerro estrategiko horren barruan, funtsezko lehen urratsa kultura- eta sormen-sektoreko ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren definizio batera iristea zela ikusi zen (sektorean ulertu eta partekatzeko eta beste sektore batzuekin parekatzeko moduko definizio batera, alegia). Zeregin horretarako, besteak beste 2019ko azaroan aurkeztutako nazioarteko esperientzietan oinarrituta sektoreko I+G+Baren esparru kontzeptualari buruzko ikuspegia emango zuen azterlan bat egiteko zeregina esleitu zitzaion ICC Consultors enpresari.

Txostenean identifikatutako lehen urratsa berrikuntza eta I+Ga bereizteko premia izan da. Izan ere, biak berrikuntzaren esparru generikoan sartuta daude, baina espezifikotasun desberdinak dituzte.

BERRIKUNTZA: definizioak Osloko Eskuliburua du abiapuntu. Eskuliburua Eurostatek eta ELGEk garatu dute batera, eta berrikuntzari buruzko datuak neurtzera eta interpretatzera bideratuta dago.

16. irudia Berrikuntzaren betekizunak KSlen sektorean



Iturria: geuk egina, Osloko Eskuliburuan oinarrituta (ELGE/Eurostat, 2019).

Proiektu edo jarduera bat berritzailetzat hartzeko, honako betekizun hauek bete behar ditu: *berritasuna edo hobekuntza* (produktu edo prozesu berria, edota aldaketa esanguratsua), *erabilera/inplementazioa* (produktua, erabiltzaile potentzialen eskura jarria; prozesua, unitatean erabilia), eta *balioaren sorkuntza* (eraginaren nabaritasunak balio ekonomikoa, ingurumen-balioa edo gizarte-balioa sortzean).

- Balio ekonomikoa: proiektuak etekinak sortzeko duen gaitasuna hartzen da halakotzat, hala nola enpresaren fakturazioa eta errentagarritasuna handitzea, enpleguaren gaineko eragina eta proiektuaren jabetza intelektualaren bidez lortutako itzulkin ekonomikoa.
- Gizarte-balioa: proiektuaren itzulkin soziala handitzen laguntzen duten faktoreen multzoa hartzen da halakotzat. Horien artean, gizarte-kohesioan eta gizarte-inklusioan, hezkuntzan eta pertsonen garapen autonomoan, gobernantzan eta parte-hartzean eta enplegu iraunkorrean eragina dutenak azpimarratu behar dira.
- Ingurumen-balioa: proiektuak baliabideen erabilera eraginkorrari, kutsaduraren prebentzioari eta ingurune fisikoaren hobekuntzari egiten dien ekarpena hartzen da halakotzat.

Berrikuntza-jardueren barruan, enpresa batek abiarazten dituen eta enpresari berrikuntza bat eskaintzeko helburua duten garapen-, finantza- eta merkataritza-jarduera guztiak sartzen dira. Zazpi berrikuntza-jarduera mota identifikatu dira: I+G jarduerak; ingeniaritza, diseinua eta beste sormen-jarduera batzuk; marketina eta marka-balioa; jabetza intelektualari lotutako jarduerak; langileak prestatzeko eta trebatzeko jarduerak; softwarearen eta datu-baseen garapena; aktibo ukigarrien eskuratzea edo leasinga; berrikuntza kudeatzeko jarduerak.

Zazpi berrikuntza-jarduera mota horietatik, hiru kultura- eta sormen-sektoreen berezkoak dira: ingeniaritza, diseinua eta beste sormen-jarduera batzuk, marketina eta marka-balioa, eta jabetza intelektualari lotutako jarduerak.


⁴ Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus <https://www.spri.eus/es/hazinnova/>

I+G: definizioak Frascatiren Eskuliburua du abiapuntu; funtsean, dokumentu tekniko bat da, eta erreferentziatzen hartzen da zientziak, teknologiak eta berrikuntzak ikerketa eta berrikuntzako sistema nazionalak aztertzeke garaian betetzen duten zeregina ulertzeko.

I+Ga aurkikuntza berrietara bideratuta dago beti, eta kontzeptu originaletan (eta haien interpretazioan) edo hipotesietan oinarritzen da. I+Garen azken emaitza zalantzazkoa da neurri handian, planifikatuta eta aurrekontuan sartuta dago, eta askatasun osoz transferitu edota merkaturatu litezkeen emaitzak lortzera bideratzen da. Jarduera bat I+Gtzat hartzeko, oinarritzko bost irizpide bete behar dira: jarduerak berria, sortzailea, zalantzazkoa, sistematikoa eta transferigarria eta/edo erreproduzigarria izan behar du.

17. irudia
KSlen sektorean I+Ga kontzeptualizatzeko irizpideak

Tipos de Actividades de I+D



Kultura- eta sormen-sektoreetan, I+Garen bost irizpideez gain erakunde-irizpidea aplikatzea gomendatzen da. Laburbilduz, honako jarraibide gehigarri hauek hartu behar dira kontuan:

- Egikaritze-testuingurua (erakunde-irizpidea). Unibertsitate baten edo ofizialki aintzatetsitako erakunde espezializatu baten (museoak, arte-zentroak, liburutegiak, artxiboak eta abar) esparruan egiten den ikerketa I+Gan sar daiteke.
- Aintzatetsitako prozedurak aukeratzea. Ikerketak formalizazioa behar du. Ikerketa-jarduerak identifikatzeko modukoak izan behar dute, eta emaitzak komunitate zientifikoaren esku jarri behar dira, aldizkari zientifiko edo espezializatueta argitaratzearen bidez.



“
I+G proiektuek sektore honetan duten norainokoa neurtu behar da, oraindik argitu gabe dagoen galdera baita. Vicomtechen proiektu asko egin ditugu, eta arrakastatsuak izan dira, azken urtean batez ere oso technology-drivenak izan badira ere. KSlen sektoreak teknologia behar du digitalizatzeko, hori gauza ziurra da, baina I+G arloan dituen premia errealak identifikatu behar dira, transferentzia teknologikotik harago”.

María Teresa Linaza
Sustapen eta Garapen Institutuzionalerako Zuzendaria, Vicomtech

3.2
RIS3 estrategiaren barruan kultura- eta sormen-sektoreak lehenestea: lankidetza-ariketa

Kulturaren Euskal Behatokiak Euskadiko KSletan egindako perimetrajea ondorioztatu zenez, askotariko sektorea denez gero (15 azpisektore ditu bi esparru desberdinetan, hots, kultura-esparruan eta sormen-esparruan), lehenespen bat behar zen ahaleginak ahalmenik handieneko azpisektoreetara bideratu ahal izateko (Kulturaren Euskal Behatokia, 2018).

Lehenespen hori egin ahal izateko, 2019. urtean ariketa orientagarri bat egin zen, KSlen sektorean lurralde bakoitzak dituen aktibo nagusiak zein diren jakiteko. Horretarako, bi kontsulta-txanda egin ziren (2019ko martxoan/apirilean eta urrian), eta Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta EAEko hiru hiriburueta udaletako zuzendaritzako kideak eta sustapen ekonomiko eta kulturalako kargudunak inplikatu ziren.

Emaitza, nolahi ere, KSlen sektoreak duen ahalmen ekonomikoaren eta berritzeko eta nazioartekotzeko ahalmenaren lehenespena izan da. Lehenespen hori inplikaturako alderdiek (aldundiek, udalek eta beste eragile batzuek) egindako ekarpenen, Kulturaren Euskal Behatokiaren datu estatistikoen (sektore bakoitzak garapen ekonomikoari egiten dion ekarpena) eta azpisektoreen jardueraren garapen-mailaren (KSletako eragileen ekosistema) arteko gurutzaketa batetik atera da, eta inplikaturako eragileek baliozkotu zuten 2019. urtearen amaieran egindako kontsulta-prozesu baten ondoren.

Etorkizunari begira, lehenespen horren aldizkako berrikuspen bat planteatzen da, bi urtean behin egin beharrekoa, Kulturaren Euskal Behatokiak bi urtean behin egiten duen Arteen, Kultura Industrien eta Sormen Industrien eragiketaren emaitzekin batera.



“
Denborarekin, kultura- eta sormen-sektorea sektore esanguratsua dela konturatu gara, eta bi gauza ditugu jokoan aldi berean: 1) kultura eta sormena berez garrantzitsua den esparru gisa, Europan neurri handian baloratzen dena, eta 2) enplegua sortzen duen eta dagoeneko neurri txikian egituratuta dagoen baina gora doan sektore ekonomiko bat, Europan BPGen % 4,5era iristen dena (Euskal Autonomia Erkidegoan zifra hori txikiagoa da –% 2,7 inguru–).


Gaur egun beste sektore batzuekin alderatuta trakzio-indarrik handiena agertzen duten sektoreak zein diren ikusi behar da. Ez da ahaztu behar Euskal Autonomia Erkidegoa nabarmentzen ari dela ikus-entzunezkoetan”.

Ramón Zallo
irakasle emeritua, Euskal Herriko Unibertsitatea

Iturria: geuk egina, Frascatiren eskuliburuan oinarrituta (ELGE, 2015).

18. irudia

Euskadiko kultura- eta sormen-sektorearen azpisektoreen lehenespena



LEHENTASUNEZKO / POTENTZIAL OSO ALTUKO SEKTOREAK.

- Ikus-entzuenzkoak
- Gastronomia
- Bideo-jokoak
- Diseinua
- Musika

POTENTZIAL ERTAINEKO SEKTOREAK

- Ikusizko Arteak
- Ondarea
- Hizkuntzaren Industriak
- Arkitektura
- Eduki Digitalak

POTENTZIAL BAXUKO SEKTOREAK

- Arte Eszenikoak
- Edizioa eta medio inprimatuak
- Artisautza
- Publizitatea eta Marketina
- Moda

Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia (2018).

18. irudian ikus daitekeenez, Euskadiko lehenespen handiko azpisektoreak ikus-entzunezkoak eta musika dira kultura-industrien kasuan, eta gastronomia, bideo-jokoak eta diseinua sormen-industrien kasuan. Kontuan hartu beharreko lurralde-espezifikotasun jakin batzuk ere badaude: Gipuzkoa da gehien bereizten dena bere espezializazioan; zehazki, ondarea lehenetsi da kultura-azpisektoreen artean, eta hizkuntzaren industriak eta eduki digitalak sormen-azpisektoreen artean. Bizkaiaren kasuan, ikusizko arteen sektorea lehenetsi da kultura-industrien barruan. Azkenik, Araban egindako lehenespena bat dator EAEkoarekin lehentasun handiko gisa identifikatutako sektoreei dagokienez.

Kultura Sailak zuzenean edo BDCCren bidez bultzatutako programa eta zerbitzu guztiak oro har KSI guztietara zuzenduta badaude ere, lehenespena baliagarria izango da lehenetsitako sektoreetarako ekintza pilotu espezifikoak planteatzeko, sektore kopurua mugatu nahi dugunean edo eragin bizkorra bilatzen dugunean, adibidez.



BIO

“

KSlen garapena errazten duten hainbat aukera-espazio daude. Bizkaia beti izan da erreferentzia zentzu horretan. Beaz lehentasunezko sektore batzuk definitzen hasi zen, eta, haien artean, sormen-industriekin lotura handia zuten sektore asko sartu zituen. Ikus-entzunezkoen munduari lotutako start-up teknologikoen belaunaldia Bizkaian sortu da nagusiki. Gipuzkoan, ikus-entzunezkoen sektoreari lotutako aukerak sortu dira Tabakaleraren inguruan, beste eredu guztiz desberdin batekin. Bi lurraldeetan aukerak badaude ere, apustuak eta lurralde-garapena desberdinak dira”.

María Teresa Linaza

Sustapen eta Garapen Institutuzionalerako Zuzendaria, Vicomtech

3.3

Cross-fertilization elikaduraren eta KSlen aukera-lurraldeen artean

RIS3 estrategiaren esparruan, bi aldeak aberastuko dituzten ezagutza berriak eta aktibo berriak sortzea da sektoreen arteko ernalketa gurutzatuaren helburu nagusia. KSlen eta beste aukera-eremu edo aukera-lurralde batzuen arteko Cross-fertilization edo sektore arteko polinizazioa Euskadiko sektore horretako industriei abantaila handiak eskain diezazkiekeen ariketa bat da. Alderdi horretan aukerak bilatu izanaren ondorioz, sinergia argiak identifikatu ziren elikaduraren arloan. Lehen urrats gisa, parte-hartze gurutzatu bat egin zen 2019an, bi sektoreetako gidaritzat-talde bileretan. Elikadurako taldeko bilera urrian egin zen, eta KSletako taldekoa, berriz, abenduan.



BIO

“

Ernalketa gurutzatuen eta lankidetza horizontalen garaiak bizi ditugu. KSlen azpisektore batzuek ekarpenak egin diezazkiekete beste batzuei, baina, horretarako, lehenik eta behin balio erantsi handiagoa hartu beharko lukete gaitasun teknologikoan zein enpresa-planteamenduan”.

Jon Basterra


Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko aholkularia, Eusko Jaurlaritza

Elikadurako Gidaritza Taldearen 2019ko ekainaren 20ko bileran, elikaduraren sektoreko enpresen eta KSlen sektorekoen arteko lankidetza-lerro nagusiak identifikatu ziren, eta aukerak aztertzen jarraitzeko eta, horretarako, Elikadurako Gidaritza Taldeari 2019ko urrian aurkezteko komenigarritasuna planteatu zen.

Oraingoz, hainbat aukera detektatu dira (19. Irudia), eta 2020. urtearen hasieratik aukerak eta proiektuak identifikatuko dituen lantalde espezifiko bat sortu da. Identifikazio horretarako, honako hauek parte hartzea espero da: elikaduraren sektoreko enpresak; KSlaK; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteak (hala nola Neiker, Azti eta BCC Innovation, elikaduraren sektoreko ordezkari gisa, eta Tecnalia eta Vicomtech, KSlen sektoreko ordezkari gisa); bi sektoreetako klusterrak eta elkarte sektorialak, eta Administrazio Publikoko agenteak, hala nola Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikadura Politikako Sailburuordetza, Kultura Sailburuordetza, SPRI Agentzia; HAZI eta Innobasque.

19. irudia

Sektore arteko polinizazio-aukerak Euskadiko KSletan eta elikaduraren sektorean



Berrikuntza teknologikoa:

DIGITAL arloaren bidez, elikaduran eta gastronomian SENTSAZIOAK eta ESPERIENTZIAK sustatzea.



Merkatu berrikuntza:

esperientziak/zerbitzuak/ produktuak DISEINUaren bidez eta KOMUNIKAZIOA ETA MARKETINaren bidez.



Gizarte-berrikuntza:

gure KULTURA eta ONDAREARI lotutako elikadura eta gastronomía.

Iturria: RIS3 Euskadi.



BIO

“

Eusko Jaurlaritzak musika babesteko programak bultzatzen ditu, eta baliagarriak dira, nire esperientziaren arabera. Kontrapartidak badituzte ere, oso ekimen egokiak daude, hala nola musika- eta enpresa-ekimenak babestea, eta ikusleen eta publikoaren inguruan lan egitea. Eusko Jaurlaritza norabide horretan lanean aritu da berriki, ikusle berriak lantzeko aukera bultzatzen saiatu da, eta hori asko egiten dugu aretoetan.

Oso interesgarria izango litzateke musikaren eta KSletako beste azpisektore batzuen arteko lotura lantzea. Ikuskizunak asko aldatu dira teknologia berrieekin, eta kultura kontsumitzeko modua oso bestelakoa da”.

Iñaki Otalora,
Kultura Live-ko kidea, Zuzendaritza Batzordeko kidea, EHMBE



BIO

“

Musikaren eta bideo-jokoen arteko lotura, adibidez, oso nabarmena da. Beste lotura batzuk (hala nola modarekin edo gastronomiarekin) neurri txikiagoan ikertu dira, baina oso interesgarria izango litzateke aztertzea”.

Álvaro Sanz
Musika Industria Elkarteko presidentea, Zuzendaritza Batzordeko kidea, EHMBE



BIO

“

Euskadiko elikaduraren sektorea ETEek eta mikroETEek osatzen dute nagusiki. Garatu behar duten estrategia nagusia, produkzio-efizientziaren bikaintasunaren premia onartuta, balioa sortzea da, eta diseinua, packaginga, berrikuntza ez-teknologikoa, elikagaien produkzioari lotutako kultura-kontakizuna eta kontsumitzailearen portaera eta premiak ezagutzeko lotutako gaitasunen garapena funtsezkoak dira lehiakortasunari eusteko. Elikagai-enpresa txiki eta ertainen eta sormen- eta kultura-industrien arteko lankidetzak elikaduraren balio-katean berrikuntza ez-teknologikoa txertatzea erraztuko luke. Enpresa-lankidetzak errazteko, beharrezkoa izango da hizkuntza komun bat garatzea, sektore baten premiak eta bestearen gaitasunak ulertu ahal izateko.

Bi sektoreetako enpresen arteko lantalde misto bat sortzea proposatu da, proiektu zehatzak identifikatzeko. Kanal horretaz gain, bi sektoreetako enpresen arteko banakako lankidetzak daude diseinuaren, ekopakagingaren eta abarren esparruetan. Etorkizunari begira, elikaduraren ikuspuntutik, honako hauek dira lehentasun nagusiak: kontsumitzailearen ezagutza eta portaera; kontsumitzailearekiko komunikazioa; diseinua (ekodiseinua barne) eta packaginga”.

Rogelio Pozo
zuzendari nagusia, AZTI

3.4

Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutiaren (BDCC) pilotuaren diseinua

2019-2022 Kultura Planak (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2019), berrikuntza bultzatuz KSIak indartzera zuzendutako lerroaren barruan, BDCC sortzea ezartzen du, sektoreko politika berritzaileak bateratzeko helburuarekin.

“Barruti kontzeptuak KSlen sektorea trinkotzen lagunduko du. Barrutiak lurralde-maila guztietan abian dauden ekimenak egituratzeko eta optimizatzeko zeregina beteko du, sektoreko enpresen eta pertsonen etorkizunerako gaitasunak eta aukerak hobetzeko babes-zerbitzu kualifikatuak eta espezializatuak eskainiko ditu, eta euskal KSIak nazioartekotzeko eta nazioarteko talentua erakartzeko aukera gehiago emango ditu” (ibidem: 31).

BDCCren funtzio nagusiak honako hauek dira:

- KSletako profesionalei eta enpresei informazioa eta aholkularitza eskaintzea, berrikuntza sustatzeko.
- Inplikaturako agenteen artean eta beste sektore batzuetako agenteekin sareak eta sinergiak sortzea.
- Nazioartekotzea erraztea.
- Nazioarteko sareetan parte hartzea.

BDCC abian jartzeko, pilotua diseinatzeko lehen fase trinko bat egin zen 2019an: erreferentziazko agenteekin eta enpresekin egindako elkarriketa ugariaren eta inplikaturako nodo eta enpresekin egindako hainbat lan-saioren bidez, sektorearen ezaugarriak zehaztu (hau da, dauden zerbitzuen mapaketa egin), premiak identifikatu eta zerbitzuen mapa bat egin zen.

Prozesu horren bidez kultura- eta sormen-industrien azpisektoreetan identifikaturako premia komunak honako hauek dira:

- Enpresa-kudeaketaren profesionalizazioa (negozio-ereduaren estrategia eta definizioa eta enpresa-dimentsio egokiaren norainokoa barne).
- Finantza- eta ekonomia-kudeaketaren eta jabetza intelektualeko eskubideen kudeaketaren hobekuntza.

- Sektoreko berrikuntza teknologikorako eta ez-teknologikorako gaitasunen zein nazioartekotzeko gaitasunen hobekuntza.
- Talentua prestatzea, erakartzea eta eustea, eta dagoen informazioa eskuratzea (adibidez, tokiko zein nazioarteko finantzaketa-programei dagokienez).
- KSlen sektorearen egituraketa (topaguneak eta matchmakinga) hobetzeko eta sorkuntzak eta diseinuak beste sektore batzuetan duten garrantziaren inguruan sentsibilizatzearen bidez Euskadiko diseinu- eta sormen-sektorearen agerikotasuna areagotzeko premia.



BIO


“

Kultura- eta sormen-sektorea RIS3 estrategiaren barruan “aukera-lurraldetzat” hartu izana inflexio-puntu argia izan da. Azken bi edo hiru urte hauetan, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako hainbat ekimen egin dira (KSI Berritzaile, CREADIS3, BDCC), eta, haiei esker, KSIak hainbat alderdi hobetu ditzakete, hala nola teknologia, berrikuntza, enpresa-kudeaketa, finantzaketa, nazioartekotzea eta abar, eta jauzi kualitatibo bat egin dezakete sektorean. SPRIk ere, Kultura Barruti kontzeptuaren barruan, industria-programak eta industria-laguntzak lortzeko aukera erraztuko duen elkarriketa espezifiko bat ezarri du “leihatila bakar” modura”.

Jon Basterra
Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko aholkularia, Eusko Jaurlaritza

Premia horiei erantzuteko, BDCCk eskaini beharreko zerbitzu-zorro zabal bat diseinatu zen (20. irudia). Lan horren euskarria Innobasquek eta Flanders District of Creativity izenekoak sinatutako lankidetzakordioa izan da. Barruti hori erreferentzia da nazioartean, kultura- eta sormen-enpresen negozioaren sustapenagatik, sektoreko industrien hizkuntza bera hitz egiteko gaitasunagatik, laguntza-programetarako orientazioagatik eta eragile bakoitzaren premien araberrako aholkularitza pertsonalizatuagatik.

20. irudia
BDCCren zerbitzu eta ekimenen zorroaren inguruko proposamena



Iturria: BDCC.

Klik egin eta nabigatu fasetan zehar

KSIak Euskadin:

euskal kultura- eta sormen-sektorearen garapenean zehar ibilbidea

ICC_Submersed



* Ingelesez eskuragarri

SUBMERSED

ARE YOU AFRAID OF THE DEPTHS?
YOU WILL BE.

Submersed: finalista 2019ko GameLab sarietan

Main Loop-ek sortutako lehen
pertsonako survival horror
Submersed bideo-jokoak "2018ko
euskal bideo-joko onenaren" saria
irabazi zuen urte hartan Bilbon egin
zen Europako Fun & Serious Game
Festival jaialdian.



Main Loop-ek, hots, “indie jokoak garatzeko Bilbon 2017an sortutako estudioak” (Beaz Bizkaia, 2019) Bizkaia Sortzailea programaren laguntzarekin sortutako bideo-joko bat da Submersed. Bizkaia Sortzaileak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu ekintzailatza eta bideo-jokoak industria digitalaren parte gisa sustatzeko (ibidem). Bideo-joko hori "lehen pertsonako survival horror bat da, generoko klasikoei eta beldurrezko eta zientzia-fikziozko zinemari omenaldia egiten diena" (PlayStationTalents, 2019). Gainera, Submersed erosketara digitalerako eskuragarri dago mundu osoan, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, besteak beste.

2018an, Bilbon egin zen Europako Fun & Serious Game Festival jaialdian egindako aurkezpenarekin, "2018ko euskal bideo-joko onenaren" (ibidem) saria irabazi zuen Submersed bideo-jokoak. Bideo-jokoa sortu duen taldearentzat, titulu hori babes handia da, Bizkaia industria digitalean bete lezakeen zereginaren “agerikotasuna bultzatzeko” balio baitu nagusiki (Beaz Bizkaia, 2019).



Kutxa Kultur: kultura Kutxa Gizarte Ekintzaren esparruan

2018 Kutxa Kultur
Resumen

Kutxa Kultur Moda
Pildora 2020



Kutxa Kultur Kutxa Fundazioak Donostiako Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan garatzen duen proiektua da. Bertan, eguneroko kultura-eskaintza zabala, publiko guztientzako hezkuntza-aisiako programak, argazkigintzan espezializatutako erakusketa-gunea eta sortzen ari den talentuari laguntzeko hainbat programa eskaintzen dira.







1990ean eratu zenetik, Kutxa Fundazioaren helburua jarduera sozialak, ongintzakoak, asistentzialak, irakaskuntzakoak eta/edo kulturalak sustatzea, garatzea eta babestea izan da, Kutxaren gizarte-ekintzaren zati handi bat kudeatu du, eta bere jarduera nagusia interes orokorreko helburuetara bideratu du (hala nola gizarte-laguntza eta gizarte-inklusiara, helburu zibikoetara, hezkuntza-helburuetara, kultura-helburuetara edo ikerketa zientifikoari eta garapen teknologikoari lotutako helburuetara).

Kutxa Kultur, berriz, Donostiako Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan garatzen den proiektua da, eta honako hauek biltzen ditu: eguneroko kultura-eskaintza zabala, jende guztiarentzako hezkuntza-aisiako programak, argazkigintzaren esparruan espezializatutako erakusketagune bat, eta Gipuzkoan proiektzioa duten kultura-agente eta artisten talentu berri eta amateurra babesteko hainbat programa, moda-diseinatzaileei, musika-taldeei eta KSIen sektorearen barruko ekintzailetzari zuzenduak.





4 . Fasea



4. Fasea

Mugarriak

2020

- RIS3 Gidaritza Taldearen garapena: 3 lantalde abian jartzea (BDCC, I+G+B, *Cross-Fertilization*)
- KS!etan Jabetza Intelektuala sustatzeko estrategia – B DCCren bitartez.
- I+G+B estrategia Euskadiko kultura- eta sormen-sektorean (hasiera)
- Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutiaren (BDCC) ezarpen pilotua (hasiera)

2021

- I+G+B estrategia Euskadiko kultura- eta sormen-sektorean (jarraipena)
- Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutiaren (BDCC) ezarpen pilotua (amaiera)

2022

- I+G+B estrategia Euskadiko kultura- eta sormen-sektorean (amaiera)
- Kultura- eta sormen-industrien finantzaketa publikoa
- Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutiaren (BDCC) sendotzea (hasiera)

2023

- Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutiaren (BDCC) sendotzea (amaiera)

Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutia - BDCC 2020-2023

2019an, *Basque District of Culture and Creativity* edo Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutiaren (BDCC) pilotua diseinatu zen, eta hamarkada honetan ekimen hori sendotu egingo da. Ekimen horren helburu nagusia, nolanahi ere, kultura- eta sormen-sektorea haren ikuspegi integral eta barne-hartzaile batetik egituratzea eta konektatzea da. Gainera, azken fase horretan, sormen-industrien finantzaketa publikoari buruzko estatistika berri bat egingo da, eta sektore estrategikoen arteko polinizazio gurutzatua sustatzen jarraituko da. Nolanahi ere, elikadurari beste sektore batzuk gehituko zaizkio, hala nola osasuna edo hiri-habitata, kultura- eta sormen-sektorearekiko sinergiak ikertzeko.



BIO

“

Gaztelugatxe leku ederra, magnetikoa eta utzia dela esatera herensuge batean etorri behar dutenean, egoeraren kontrola galtzen duzu, jendea ito egiten da eta dena zementuz betetzen dugu. Euskal Herria Europaren maketa bat da: mundu atlantikoa eta mediterraneo miniaturan. Kultura-aniztasun komunari buruzko etorkizuneko proposamen bat egitea lortzen badugu, ekarpen bat egingo dugu, storytelling ikaragarri bat, Europarentzat premiazkoa dirudiena. Beste modu batera begiratzen ikasteko eta geure buruarengan konfiantza izateko prozesua behar dugu. Nor garen ez dakigun herria gara. Gure misterioa, gure huts emankorra "egiten jakite" bihurtu behar dugu”.

Fredri Paia

IIP, Euskal Herriko Unibertsitatea; bertsolaria

4.1.

Pilotuaren inplementazioa eta BDCCren sendotzea (2022)

Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutia (BDCC) abian jartzea sektorearen funtsezko jardueretako bat izango da datozen urteetan Euskadin. Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuorde ohia Joxean Muñozek adierazi duenez, asmoa da “garapen-tresnak euskal kultura- eta sormen-enpresen zerbitzura jartzea” (garapena, nolanahi ere, ekintzailatzaren eta berrikuntzaren sustapen gisa zein lehiakortasunaren hobekuntza, sektorearen egituratze eta profesionalizazio gisa, nazioartekotzearen sustapen gisa eta beste arlo batzuekiko polinizazio gisa ulertuta, pilotua diseinatzeko fasean identifikatutako premiei jarraikiz).

BDCCren pilotua diseinatzeko 2019ko fasearen ondoren, 2020an lehen jarduerak egingo dira esparru horietako bakoitzean:

a) Informazioa eta orientazioa

- Euskadiko KS!en sektorearen informazio interesgarri guztia bilduko duen webgune bat abian jartzea (adibidez, kultura- eta sormen-sektorearentzat interesa duten administrazio eta erakundeen mapa bat eta laguntzen, dirulaguntzen eta zerbitzuen mapa bat, tokikoa, Europakoa eta nazioartekoa).
- Administrazio publikoekiko eta nodoekiko elkarriketa sustatzea.
- Sektorean identifikatu diren premietara bideratutako laguntza-programetarako eta zerbitzuetarako orientazioa.

b) Estrategia eta kudeaketa

- Enpresei negozioaren kudeaketari lotutako zeregin praktikoetan laguntzeko txantiloak eta/edo dokumentuak –adierazitako webgunearen bitartez eskuragarri egongo direnak– garatzea.
- Sektoreak dituen premiei erantzungo dieten gai zehatzei buruzko tailerrak eta jardunaldiak antolatzea, adituekin. Adibidez, honako gai hauei buruzkoak: jabetza intelektualaren eskemak KS!etan, sormen-zerbitzuetan prezioa finkatzeko modua, kudeaketa-gaitasunak hobetzeko antolamendu-egituraren eredu azterketa, teknologia berriei buruzko prestakuntza KS!etan eta abar. Tailer eta jardunaldi horien formatuek parte-hartzaileen eta adituei kontsultak egiteko espazioen arteko elkarrenergia erraztu beharko dute.

c) Sektorearen agerikotasuna eta egituraketa

KS!en sektoreko baterako ekitaldiak antolatuko dira nazioartean erreferentzia diren sormen-esparruko profesionalekin, baita kultura- eta sormen-sektoreko enpresen arteko matchmaking-eko jardunaldiak ere.

d) Euskal kultura- eta sormen-sektorearen posizionamendua nazioartean

BDCC barrutiak nazioarteko sormen-barrutien sarean (*Districts of Creativity Network*) parte hartuko du.

21. irudian, 2020an (pilotuaren inplementazioaren hasieran) egin beharreko lehen jarduera horiek agertzen dira, BDCCk sustatu beharreko zerbitzu- eta ekimen-zorroko arloen arabera antolatuak. Gainera, hurrengo urteetan, BDCC finkatzeko fasean (2022ra arte) inplementatu beharreko beste ekintza batzuk biltzen ditu.

21. irudia

BDCCk sustatu beharreko zerbitzu eta ekimenen zorroaren inguruko proposamena (2020-2022)



INFORMAZIOA ETA ORIENTAZIOA

- KSI sektorearen informazio guztia duen webgunea.
- Dauden zerbitzu eta laguntza programetarako orientazioa.
- Administrazioarekin eta nodoekin interlokuzioa eta bitarteko erakundeen prestakuntza.



TALENTUA

- Teknologia berrietan prestakuntza.
- Tech eta enpresen talentua: Euskadin KSletan lan egiteko aukera.
- KSI talentua: beste industria batzuen aukera eta kudeaketaren garrantzia.



ESTRATEGIA ETA KUDEAKETA

- Negozioaren kudeaketan laguntzeko tresnak.
- Saioak eta tresnak. Sormen zerbitzuei prezioa jartzea.
- Adituekin batera egiteko jardunaldi eta saioak.
- Banakako kontsultak adituekin.
- Hausnarketa estrategikorako programak.
- Aholkularitza – Banakako Coachinga.



KSI SEGMENTUEN BEHARRAK

- KSI segmentuetarako saio espezifikoak.
- Zuzeneko kulturaren motibaziozko profilak identifikatzea.
- KSI negozioaren garapena beste industria batzuetan.



EUSKADIKO KSlen POSIZIONAMENTUA

- Districts of Creativity Network.
- Nazioarteko baterako jardueren endorsementa.



SEKTOREAREN IKUSGAITASUNA ETA ARTIKULAZIOA

- KSlen ekitaldi bateratuak.
- Matchmaking jardunaldiak KSI enpresen artean.
- KSlen eragin ekonomikoaren datuak zabaltzea.
- KSletako azpisektoreen informazio kualitatiboa zabaltzea.



SORMENA ETA DISEINUA ZABALTZEA

- Beste industria batzuetako diseinu eta sormen arloko kasu arrakastatsuak zabaltzea.
- KSI talentua beste industria batzuetan txertatzeko aukera.

Oharra:
letra lodiz, 2020rako proposatutako zerbitzuak/ekimenak; letra etzanez, BDCCk sustatu beharreko ad hoc ekimenak (ez zerbitzuak)

4.2.

I+G+B estrategia Euskadiko kultura- eta sormen-sektorean

KSlen sektorean, datozen urteetarako I+G+B estrategia hiru lerro estrategikoren inguruan egituratuta dago.

4.2.1.

Kontzeptualizazioaren nazioarteko kontrastea eta pilotua zeharkako bi deialditan (2020)

2020. urtean, ICC Consultants enpresak egindako azterlanari jarraipena ematea planteatu da, era horretan I+G+Ba kultura- eta sormen-sektorean kontzeptualizatze, nazioarteko adituen parte-hartzea izango duen kontraste-jardunaldi batekin. Jardunaldi horien helburu nagusia hobekien informatutako KSlen sektorean berrikuntza babesteko politikak eta ekimenak garatzea ahalbidetuko duen ezagutza bat lortzea da. Zehazkiago, ahalegina egingo da KSlen sektorean berrikuntzaren esparru kontzeptualaren adostasunerantz aurrera egiteko, KSlen sektorean berrikuntzaren neurketa hobetzeko, Euskadiko KSlei nazioartean arrakasta izan duten berrikuntza-kasuei buruzko lehen eskuko informazioa lortzeko aukera ahalbidetzeko eta KSletan I+G+Ba babesteko politika publikoei buruzko gogoeta egiteko.

Epe ertainean (2021-2022), Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak egindako bi deialditan oinarritutako proiektuak aztertzeko premia planteatu da, I+G+Ba proiektu horietan zer neurritan txertatzen ari den ebaluatzeko. Hona hemen bi deialdi horiek: SORGUNE (sormen-jardunbideak babesten dituzten kultura-espazio independenteetarako dirulaguntzak) eta BITARTEZ (kultura- eta gizarte-arloko bitartekaritza eta berrikuntzako proiektuetarako diru-laguntzak); biak Sormen Lantegiak programan sartuta daude.



Kultura- eta sormen-sektorean, arazoak daude I+G+Bko jarduerak argi eta garbi bereizteko eta Euskadiko I+G+Ba neurtzen duten adierazleetan islatzeko. Hori dela eta, 3 ildo bereizi baina desberdinetan ari gara lanean, Gidaritza Taldeko lantalde baten bidez: kultura- eta sormen-sektoreko I+G+Baren kontzeptualizazioari buruzko txosten bat osatzeko, KSletako Jakintza Gune baten sorkuntza (Hezkuntza Sailarekin lankidetzan) eta Euskadik 2022. urterako aurreikusitako KSlen KIC (Knowledge and Innovation Community) berrian parte hartzeko proposamen bat aurkezteko azterketa”.

Sabin Goitia

Kultura eta Sormen Industrietako aholkulari ohia, Eusko Jaurlaritza



Nire ustez, Gobernua lan ona egiten ari da. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren politikak bi bektore ditu: lehenaren bidez, sektoreko enpresen berrikuntza babestu nahi da, lehiakorragoak izan daitezen (KSI Berritzaile programan oinarrituta nagusiki), eta bigarrenaren bidez, berriz, kulturaren esparruko berrikuntza bultzatu nahi da, balio publiko handiagoa, gizarte-balio handiagoa eta kultura-ondare handiagoa lortzeko eta, era horretan, kultura gizarte-eraldaketarako baliagarria izateko. Bi bektoreen arteko lotura bilatu behar da”.

Alaitz Landaluze

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Politiken arloko zuzendaria, Innobasquee Innovación, Innobasque

BIO

4.2.2.

KSletako jakintza-gune baten sorkuntza (2020)

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak proposatuta, KsiGUNE izeneko jakintza-gune bat garatzen hasi da KSlen sektorean, enpresak ezagutza sortzen duten agenteekin harremanetan jartzeko (bai unibertsitate- eta ikerketa-sistemaren barruan, bai sistema horretatik kanpo, sektore horren berezitasunak direla eta). Lan horretan, Euskampus Fundazioa (besteak beste Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea –UPV/EHU– biltzen duena), Tecnalia Korporazioa (Tecnalia) eta Donostia International Physics Center (DIPC) zentroa ari dira.

Jakintza-gune hori diziplinaz gaindiko eta erakunde arteko lankidetzarako gune ireki bat da, eta gizarte-erronkei eta erronka globalei zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren ikuspegitik erantzutea du helburu, prestakuntzako, ikerketako eta gizarteari helarazteko jarduketan bidez, baterako sorkuntzako metodologiak erabiliz eta egitura gehigarrien beharrik gabe.

Iraganean, kultura- eta sormen-sektorearen inguruan bi jakintza-gune abiarazteko ahalegin txiki bat egin zen, baina ez zuten aurrera egin, tamainagatik edo ardazte-gabeziagatik. Gaur egun, berriz, jakintza-gunea garatzeko aukera sektore horrek tokiko mailan eta nazioartean duen indar ekonomikoak eta gizarte-garrantziak bermatzen dute. Ildo horretan, dauden ahalmenak sendotzea eta KSlen sektorean unibertsitateen, enpresen eta administrazio publikoen arteko elkarriketarako esparru iraunkor bat sortzea planteatu da.

Jakintza-gune hori garatzeko, Euskadiko kultura- eta sormen-sektoreko unibertsitate-gaitasunak identifikatu edo mapeatuko dira (baterako sorkuntzarako gaitasunekin hasita). Bestalde, ksiGUNE jakintza-gunea kultura- eta sormen-sektoreko jakintza aurreratuko 4GUNE⁵ jakintza-gunearen alde aurreko esperientzian oinarritzeko eta unibertsitate-esparruan KSlei buruzko ezagutza sendotzera bideratutako prestakuntza exekutiboko programak diseinatzeko aukera ere planteatu da. Jakintza-gune hori abiaraztearen bidez, KSlen lehiakortasun-maila eta aberastasuna sortzeko duten ahalmena areagotu nahi da.

⁵ Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus <http://4gune.eus/>



BIO

4.2.3.

KSlen inguruko Knowledge and Innovation Community (KIC) berria, European Institute of Innovation and Technologyren (EIT) eskutik.

“

Bi zirkunstantziak bultzatu dute KIC baten hautagaitza aurkezteko asmoa: Eusko Jaurlaritzak azken urte hauetan KSlen alde egindako erakunde-apustua batetik (ZTBP 2020an KSlak aukera-nitxo gisa txertatu izanak, KSlak berritzeko KSI-Berritzaile programaren aldeko apustu jarraituak eta I+G+Ba kontzeptualizatzeko eta jakintza-gune bat abian jartzeko KSlen inguruko I+G+Bko lantaldea sortu izanak agerian utzi dutenez), eta KSlen sektoreko berrikuntza teknologikoaren alde diharduten hainbat zentro teknologiko eta kezka handia duten enpresen multzo bat (enpresa txikiak eta mikroenpresak nagusiki) biltzen dituen teknologia- eta enpresa-sare sendo eta dinamikoa bestetik.

Nire ikuspuntutik, Euskadik nagusiki hiru ekarpen egin diezazkioke KSlen inguruko KIC bati: lehenik eta behin, kultura-ondare aberatseko lurraldea (non hizkuntza espezifikotasunaren eta idiosinkrasiaren adierazgarri nabarmena den), garrantzi eta eragin handiko sektore batzuekin (hala nola goi-mailako gastronomia, bideo-jokoak eta eduki digitalak) eta apustu handiekin (arkitektura eta hiri-eraldaketa); bigarrenik, erakunde-euskarri garbia eta irmoa, berrikuntza babesten ibilbide egonkorra eta sendoa agertu duena; eta, hirugarrenik, I+G+Bko agenteen sare sendoa eta KSlen sektorearekin konprometitua.

Euskadin KIC bat sortzeak tokiko KSletan ere eragin positiboa izango luke. Izan ere, aukera izango litzateke KSlen inguruko berrikuntza, hezkuntza, prestakuntza eta ekintzailetza babesteko Europako funtsak lortzeko, Europako lehen mailako eragile garrantzitsuekin (hala nola unibertsitateekin, ikerketa-zentroekin, ETEekin, enpresa handiekin, elkarrekin eta udal-, eskualde- eta nazio-gobernuekin) lankidetzan jarduteko eta, networkinga egitea, elkarreragitea edota beste batzuk ezagutzea ahalbidetuko duen Europako foro batean parte hartzearen bidez, jarduerak nazioartekotzeko”.

Txetxu Santamaria

Programen zuzendaria, ICT Division, Tecnalia

European Institute of Innovation and Technology (EIT) institutuak 2022an Knowledge and Innovation Community (KIC) berri bat sortzeko egindako Europako deialdi baten iragarpena dela eta, beharrezkotzat hartu da nazioarteko jakintza-komunitate horretan parte hartzeko dauden aukerak ikertzea, eta, horretarako, Tecnaliak, horretan jarduteko aukerak aztertuko ditu.

KICak Europako Berrikuntza eta Teknologia Institutuak (EIT) finantzatutako sormen-elkarteak dira. Hezkuntzaren, teknologiaren eta ikerketaren sektoreko eragileak eta enpresak biltzen dituzte, eta produktu eta zerbitzu berritzaileak merkatura hurbiltzea, enpresa berrien sorkuntza sustatzea eta sektore jakin batean prestakuntza-jarduerak egitea (talentua sortzea) dute helburu. EITak ezarri du KSlak lehentasunezko arloak direla.

KIC bakoitzak bere arauak eta bere gobernantza-ereduak ditu, eta Europako beste bazkide batzuekin koalizioan proposamen garaile baten parte izateko tokiko ikuspegitik ekarpenak egitea du helburu. Halaber, epe luzerako helburua da KICak era autonomoan eta Europako finantzaketarik gabe jardutea. Beraz, jasangarritasun ekonomikoari lotutako irizpideak funtsezkoak izango dira sortzen denetik.

2020an, aurrera egingo da nazioarteko partzuergoa osatzeko tokiko partzuergo bat sortzeko bidetik, 2021eko azken hautagaitzari begira.

4.3.

Kultura- eta sormen-industrien finantzaketa publikoari buruzko estatistika

2020an, Kulturaren Euskal Behatokiak lan kualitatibo bat egingo du sormen-industrien iturri eta espezifikotasun berriak identifikatzeko, era horretan sormen-industrien finantzaketa publikoari buruzko estatistika bat egin ahal izan dadin. 2021ean, landa-lana eta datu-bilketa egingo dira, eta, azkenik, informazioa prozesatu eta aztertu egingo da, bidezko txostenak egiteko (2022an).

Eragiketa hori Kulturaren Finantzaketa Publikoaren Estatistikari gehituko zaio. Estatistika horren helburua da Euskadiko administrazio publiko nagusiak kulturaren egiten ari diren ekarpen ekonomikoaren eta inbertsioaren magnitudeen ikuspegi bat eskaintzea, eta CREADIS3 proiektuaren Ekintza Planean planteatutako ekintzetako bat da, sormen-industriak lehendik abian genituen estatistika nagusietan eta Kulturaren Euskal Behatokiak proposatzen eta sortzen diren txostenetan txertatzeko estrategiaren barruan.

Azken helburua da administrazio-maila guztiek KSlei ematen dieten babes publikoaren ezaugarriak zein diren jakitea, bai alderdi kuantitatiboari dagokionez, bai alderdi kualitatiboari dagokionez (laguntzen tipologia, babesik handieneko eta gutxieneko sektoreak eta abar), gap nagusiak non ditugun aztertzea eta, horri dagokionez, gap horiek landuko dituzten eta administrazioek sektoreari laguntza eraginkorragoa ematea ahalbidetuko duten politikak eta/edo jarduketak planteatu ahal izatea. Gainera, estatistika horren eta sektoreko enpresen jarduera neurtzen duen Arteen eta Kultura eta Sormen Industrien estatistikaren bilakaerak neurri horiek etorkizunean izango duten benetako eragina ebaluatzeko aukera emango digu.

4.4.

Cross-fertilization: osasun pertsonalizatua eta hiri jasangarriak

RIS3 estrategiaren eta ZTBP 2030 planaren esparruan, eta elikaduraren esparruarekiko sinergiak aztertu ondoren, 2020an, pilotu gisa, Cross-fertilization hori sustatzeko fase berri bat proposatu zen, kasu honetan aukera-lurralde den Euskadi Sortzailea programaren (Kultura eta Sormen Industriak ZTBP 2020 planean) eta lehentasunezko beste esparru batzuen, hala nola osasun pertsonalizatuaren eta hiri jasangarrien (Biozientziak/Osasuna eta hiri-habitata ZTBP 2020 planean) artean.

Azpinarratu beharra dago osasun pertsonalizatua ZTBP 2030 planak ezarritako lehentasunetako bat dela. Hiri jasangarriak, berriz, aukera-lurraldetzat hartzen dira plan horretan. ZTBP 2030 Planean, lehentasunak eta aukera-nitxoak “ardatz gidari” baten bidez lotuta daude. Ardatz hori hiru trantsizio handiren inguruan egituratuta dago (trantsizio teknologiko-digitala, energia- eta ingurumen-trantsizioa eta trantsizio demografiko-soziala).

Hiri-habitata eta eraikuntza BDCCk kultura- eta sormen-sektorea esparru handietan segmentatzeko –azpisektoreen arabera segmentatu ordez– ariketa batean premia komunak eta sektoreen arteko sinergiak garatzeko aukerak ulertzeko identifikatutako segmentuetako bat da. Habitaterako eta eraikuntzarako sormen-zerbitzuen barruan, hainbat sektoreen ekarpen potentzialak aitortzen dira, hala nola arkitekturaren eta diseinuaren (barnealdean diseinuaren eta industria-diseinuaren) sektoreenak. Segmentu horren barruan, KSlen ekarpena jaso dezaketen premien artean honako hauek aipa daitezke: eraikuntzaren esparruko tresna berrietan trebatzea, merkatu berriak irekitzeko harremanak eta lankidetzak egitea, azken merkaturaren espezializatzea (merkatu berriak irekitzeko helburu berarekin) eta Euskadiko habitat/eraikuntzako diseinuaren sektorearen agerikotasuna hobetzea.

Bestalde, 2019an osasun-esparrua lehentasunezko gisa identifikatu zen KSlekin gurutzatzeko. Nolanahi ere, pilotu gisa elikadurakoarekin hastea erabaki zen, kontuan hartuta bi esparru horien artean bazegoela gurutzatze-esperientzia egiaztatu bat, Elikadura Osasungarriaren estrategiaren bidez.

Edonola ere, aldi horretan KSlen eta osasun-arloaren arteko bi gurutzaketa-esperientzia egin dira CREADIS3 proiektuan goraka datozen praktiken bitartez. Haietako bat Karraskan⁶ elkarrearen bitartez, Osakidetzak 2019an zainketa aringarrien gaiari lotuta garatutako Innopal tresnen komunikazioan eta hedapenean lan egiteko, eta bestea Do Re Ni elkarrearen bitartez, herritarren zahartze aktibo eta osasungarriaren esparruko frogantza zientifikoko pilotu bat egiteko eta musikoterapiaren bizkortasuna eta eraginkortasuna ikertzeko, adinekoen bizi-kalitatea, osasun mentala eta neurokognizio-prozesuak optimizatzeko tresna gisa. Proiektu hori 2020. urtean egingo da.

⁶ Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus <https://www.karraskan.org/es/>

Elhuyar: hizkuntzaren prozesatze automatikoaren eta adimen artifizialaren zerbitzura dagoen teknologia

Aditu el reconocedor
del habla de Elhuyar





Itzultzailea:
Elhuyarren itzultzaile automatiko
eleaniztuna, doan ordenagailu
eta mugikorretarako



Linguatec proiektua






Elhuyarrek euskararen erabilera du ardatz, bai gizartean bai ingurune digitalean, modu integratzailean, herritarren parte-hartzea eta berdintasuna sustatuz. 2001az geroztik, funtsezko ikerketak egiten ditu hizkuntzaren teknologiaren arloan, eta irtenbide teknologikoak garatzen ditu.



Elhuyar, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua den aldetik, zientziaren eta teknologiaren esparruan euskara garatzen jardun du 1972an sortu zenetik, Euskal Herriko ingurune eleanitzak duen garrantziaz jabetuta. Horretarako, euskararen erabilera du ardatz, bai gizartean, bai ingurune digitalean, modu inklusiboan, herritarren parte-hartzea eta berdintasuna bultzatuz.

Elhuyar Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko unitate teknologiko egiaztatu bat da, hizkuntzaren prozesatze automatikoaren eta adimen artifizialaren arloan diharduena. 2001. urteaz geroztik, funtsezko ikerketak egiten ditu hizkuntzaren teknologiaren alorrean, eta, gainera, soluzio teknologikoak garatzen ditu. 2002an Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresa sortu izanaren ondorioz, ikerketa horien emaitzek arindu egiten dute haien merkaturatzea.

Elhuyarrek garatutako hizkuntzaren teknologien artean, itzultzaile neuronal automatikoa (itzultzailea.eus) eta adimen artifizialean eta sare neuronaletan oinarritutako hizkuntza-ezagutzailea (aditu.eus) azpimarra daitezke. Interakzio aurreratuko zerbitzuak eskaintzeaz gain, bilaketa eleanitza, antzeko dokumentuen erlazioa eta erakundeen desanbiguazioa lantzen ditu teknologia horrek.



Elkar: liburuaren, edizioaren, banaketaren eta salmentaren kate osoa



Elkarrek hainbat proiektu bultzatzen ditu euskal kulturarekin zerikusia duten liburu eta diskoak ezagutarazi eta normalizatzeko, eta, berariaz, euskaraz ekoitzitakoak. Urte hauetan zehar, Elkarrek liburutegi-sare bat sortu du Euskal Herrian, eta sare komertzial bat zabaldu du Espainiako estatuan, aro digitalera ere egokituz.



60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hamarkadaren hasieran, Jaka anaiak, Joseba Jaka buru zela, euskarazko edo euskal gaietako liburuak etxez etxe saltzen hasi ziren, baita ikastola hasiberrientzako materialak ere. 70eko hamarkadan, Elkar (*Euskal Liburu eta Kantuen Argitaldaria*) sortu zen Baionan. Hasieran, Iparraldeko 20 pertsonak sortu zuten, eta, geroago, Hegoaldeko beste 20 eta Zabal liburu-denda sartu ziren, kultura euskalduna ezagutarazteko helburuarekin.


Francoren heriotzaren ondoren, 1976an, Bilintx liburu-denda ireki zen Donostian, eta liburuen banaketa jeneralista (Zabaltzen) eta euskarazko eta/edo euskal kulturari lotutako liburuen eta musikaren edizioa hasi zen. Horiek dira gaur egun Elkar Fundazioa denaren hastapenak. Fundazioa 1996an sortu zen, Elkar taldeko enpresen aktibo guztien ekarpenarekin.

Proiektu horien guztien ideia nagusia da euskal kulturari lotutako liburuak eta diskoak eta, berariaz, euskarazko produktutakoak normalizatzea

eta agerikotasuan ematea. Irakurle guztiei zuzendutako euskarazko liburuak eskaintzen dira, eta euskarazko irakaskuntzarako beharrezkoa den materialaren hornidura egiten da. Horretarako, Elkarrek beste agente batzuekin (hala nola UZEIrekin eta Elhuyarrekin) lan egiten du, eta Ikastolen Elkartarekin izan du eta du harremanik handiena. Bi erakundeen artean, euskarazko irakaskuntza-materialarekin lan egiten duen IkasElkar argitaletxea sortu da.

Urte hauetan, Elkarrek liburu-denden sare bat sortu du Euskal Herrian (17 liburu-denda), eta liburuen banaketan diharduen merkataritza-sare bat zabaltu du estatu espainiarrean (egoitzak ditu Bartzelonan, Madrilan, Sevillan eta Valentzian). Halaber, aro digitalera egokitu da, edizioan zein salmentan, online liburu-dendaren bidez. Elkar etengabe ari da lankidetzan sektoreko beste agente batzuekin.

2005ean, irudi korporatiboa berritu egin zen, eta Euskal Herriko banaketak eta liburu-dendek izen bera hartu zuten: **elkar**.



Ondri oak

2012tik 2015era bitartekoa, I. fase izenekoa, lan garrantzitsua egin zen (arteak miaketa-izaerakoa) KSlen ezagutzan aurrera egiteko. Lehenik eta behin, Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB) landutako eta 2013an argitaratutako “Kultura- eta sormen-industriak. Eztabaida teorikoa Europako ikuspegitik” txostena KSlak maila kontzeptuarean ulertzeko lehen ariketa bat izan zen, Europako esparruaren barruan eta Europar Batasunean dauden eredu guztiak kontuan hartuta. Aldi horretan, halaber, KSlen sektorerako lehen hurbilketa kuantitatiboa egin zen Sinnergia Social Innovation-ek (UPV/EHU) landutako eta 2014an argitaratutako “Euskadiko kultura- eta sormen-industriak. Oraina eta etorkizuna” txostenean. Lan horrek zenbait muga ditu, perimetraje estatistikoa oraindik zehaztu gabe zuten eta zenbaitetan datu sendo eta konparagarriak eskaintzen ez zuten sektoreekin lan egiteko zailtasuna dela eta, baina kultura- eta sormen-sektoreak ekarpen ekonomikoari edo enpleguari –besteak beste– dagokienez Euskadin duen garrantzia agerian uzten zuten lehen datu batzuk eskaini zituen. I. fase hori funtsezko mugari batekin amaitu zen, hots, KSlak Euskadiko RIS3 espezializazio adimendunerako estrategian (*Smart Specialization Strategy*) aukera-lurraldetzat hartu izanarekin. Aintzatespen horren balio sinbolikotik harago, horrek aukera eman du KSletan RIS3 estrategiaren berezko metodologiari

2019. urtean (III. fasean), kultura- eta sormen-sektoreetan I+G+Baren kontzeptualizazioa lantzen hasi zen, eta kultura- eta sormen-sektoreen lurralde-lehenespeneko lankidetzeta-ariketa bat egin zen RIS3 estrategiaren barruan. Lurralde-espezializazioko estrategia horren esparruan, halaber, sektoreen arteko ernalketa gurutzatua pilotatzen hasi zen; zehazki, lehen une horretan, lehen ariketa egin zen KSl-en eta elikaduraren sektorearen artean. Azkenik, 2019an lan handia egin zen, Innobasquerekin eta SPRIrekin lankidetzan, *Basque District of Culture and Creativity* edo Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutiaren (BDCC) pilotua diseinatzeko. Barrutiaren helburua da Euskadin dauden KSlak hainbat esparrutan (hala nola berrikuntzan, talentuaren sustapenean, jabetza intelektualean edo nazioartekotzean) babesteko zerbitzuak eta ekimenak bildu eta integratuko dituen sareko plataforma bat izatea.

Argitalpen hau lantzea erronka handia izan da, azken hamarkadan KSlei lotuta egindako lan-bolumenagatik eta sortutako baliabideen kantitate handiagatik ez ezik, informazio eskuragarriaren aniztasunagatik ere bai. Kontakizun kronologikoari esker, Euskadiko KSlen garapenaren eta Eusko Jaurlaritzak eskainitako babesaren historiari hurbilena berregin ahal izan dugu. Zalantzarik gabe, historia irekia eta etorkizun oparokoa da, eta atzerabegirako berriak egin beharko dira etorkizun ez oso urrunean.

Erreferentziak

Beaz Bizkaia (2019). “Submersed, 2018ko euskal bideo-jokorik onena, Bilboko PS Games Camp-en sortua”. Online eskuragarri honako honetan: <https://info.beaz.bizkaia.eus/noticia/noticia-beaz/submersed-el-mejor-videojuego-vasco-2018-se-gesta-en-el-ps-games-camp-de-bilbao/> [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 27a].

Boinas Elosegui SA (2016). 2020ko urtarrilaren 20an berreskuratua, honako honetatik: <https://www.boinaselosegui.com/>

Cookplay (d.g.). “Ana Roquero, el alma de Cookplay”. Online eskuragarri honako honetan: <https://www.cookplay.es/acerca-de> [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 22a].

Cookplay (d.g.). “Jomon bilduma”. Online eskuragarri honako honetan: <https://www.cookplay.eu/jomon> [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 22a].

Europako Batzordea (d.g.). “Capitales Europeas de la Cultura”. Online eskuragarri honako honetan: https://ec.europa.eu/programmes/creative-europe/actions/capitals-culture_es [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 24a].

Europako Batzordea (2010). Liburu berdea – Kultura- eta sormen-industrien ahalmena askatzea. Online eskuragarri honako honetan: <https://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0183:FIN:ES:PDF>

Europako Batzordea (2018). “2016ko Kulturaren Europako Hiriburuen ex post ebaluazioa (Donostia eta Wroclaw)”. Online eskuragarri honako honetan: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=COM:2018:235:FIN&from=ES> [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 24a].

Del Olmo, C. (2017). “El ‘Efecto Guggenheim’: Orgullo y Prejuicios”. *Green European Journal*. Online eskuragarri honako honetan: <https://www.greeneuropeanjournal.eu/el-efecto-guggenheim-orgullo-y-prejuicios/> [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 23a].

DCMS-Department for Digital, Culture, Media & Sport (2001). Creative Industries Mapping Documents 2001. Demonstrating the success of our creative industries. Online eskuragarri honako honetan: <https://www.gov.uk/government/publications/creative-industries-mapping-documents-2001> [Kontsulta-data: 2020ko martxoaren 16a]. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (d.g.). “Entrevista con Jose Mari Armentia, Director de Alfa Arte”. Online eskuragarri honako honetan: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19124/es/contenidos/informacion/ent3_0907/es_ent3/ent3.html [Kontsulta-data: 2020ko otsailaren 26a].

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (2019). “Kultura Plana 2019-2022”. *Euskadi.eus*. Online eskuragarri honako honetan: https://bideoak2.euskadi.eus/2019/07/30/news_56184/PLAN_DE_CULTURA_1922_ona.pdf [Kontsulta-data: 2019ko abenduaren 4a].

Bizkaiko Foru Aldundia (d.g.). “La Encartada Fabrika-museoa”. Online eskuragarri honako honetan: <https://www.bizkaikoa.bizkaia.eus/detalleContenido.asp?id=65&t=1> [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 21a].

Elkar Fundazioa (d.g.). “40 urte euskal kulturgintzan”. Online eskuragarri honako honetan: <http://www.elkarfundazioa.org/urteak.html> [Kontsulta-data: 2020ko otsailaren 25a].

Esteban I. (2017). “El ‘Efecto Guggenheim’: un hito arquitectónico para la regeneración urbana”. Goethe Institut. Online eskuragarri honako honetan: <https://www.goethe.de/ins/uy/es/kul/mag/20988133.html> [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 23a].

Santa Maria Katedrala Fundazioa (d.g.). “Aurkezpena”. Online eskuragarri honako honetan: <https://www.catedralvitoria.eus/es/presentacion/> [Kontsulta-data: 2020ko otsailaren 25a]. Galbaian Intellectual Property. (2019). “Jabetza industrial eta intelektuala Euskadiko sormen- eta kultura-industrian”. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, P18_166 proiektua.

Eusko Jaurlaritza (d.g.). “La Encartada txapel-fabrika”. Online eskuragarri honako honetan: <https://turismo.euskadi.eus/es/patrimonio-cultural/fabrica-de-boinas-la-encartada/aa30-12375/es/> [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 20a].

Eusko Jaurlaritza (2014). “RIS 3 EUSKADI. Euskadiko espezializazio adimenduneko lehentasun estrategikoak”. Online eskuragarri honako honetan: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/4633/prioridades_estrategicas201404_ris3_gobierno_vasco.pdf?1400573225 [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 18a].

Eusko Jaurlaritza (2017). “CREADIS3: Mapping 1. Competences per administrative level in the Basque Country”. CREADIS3. Online eskuragarri honako honetan: https://www.interregeurope.eu/fileadmin/user_upload/tx_tevprojects/library/file_1551698182.pdf [Kontsulta-data: 2020ko otsailaren 1a].


Eusko Jaurlaritza (2018a). “CREADIS3: Mapping 2. Regional creative ecosystem in the Basque Country”. CREADIS3. Online eskuragarri honako honetan: https://www.interregeurope.eu/fileadmin/user_upload/tx_tevprojects/library/file_1551698345.pdf [Kontsulta-data: 2020ko otsailaren 1a].

Eusko Jaurlaritza (2018b). “CREADIS3: Report on territorial diagnosis. Basque Country”. CREADIS3. Online eskuragarri honako honetan: https://www.interregeurope.eu/fileadmin/user_upload/tx_tevprojects/library/file_1551698428.pdf [Kontsulta-data: 2020ko otsailaren 1a].

Eusko Jaurlaritza (2019). “Basque Country Action Plan. Improving Institutional Governance for Effective and better articulated CCI Policies in the Basque RIS3”. CREADIS3. Online eskuragarri honako honetan: https://www.interregeurope.eu/fileadmin/user_upload/tx_tevprojects/library/file_1585558241.pdf [Kontsulta-data: 2020ko apirilaren 22a].

ICC Consultors (2019). “Marco conceptual para la aplicación de la I+D+i en los sectores culturales y creativos”. 3. zirriborrea.

IDOM, Tabakalera eta Gobierno Vasco (2019). “Azken txostena. Diagnostiko-fasea. KSIatea programa, 2019”. KSIatea. Online eskuragarri honako honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/ksiatea_2019_diagnosi_txostena/es_def/adjuntos/ksi-atea-2019-informe-fase-diagnostico.pdf [Kontsulta-data: 2020ko otsailaren 1a].



 Klik egin eta nabigatu
fasetan zehar

Kutxa Fundazioa (d.g.). "Egitura: Kutxa Fundazioa". Online eskuragarri honako honetan: <https://kutxa.eus/es/fundacion/estructura/kutxa-fundazioa.html> [Kontsulta-data: 2020ko martxoaren 2a].

Kulturaren Euskal Behatokia (2013). “Kultura- eta sormen-industriak. Eztabaida teorikoa Europako ikuspegitik”. Eusko Jaurlaritza. Online eskuragarri honako honetan: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_sormen_industri_2013/es_def/adjuntos/industrias_culturales_creativas_2013.pdf [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 15a].

Kulturaren Euskal Behatokia. (2016a). “EAEko kultura-eremuko enpresen, enpleguen eta lan-merkatuen analisia”. Eusko Jaurlaritza. Online eskuragarri honako honetan: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_enplegua_2018/es_def/adjuntos/empresas_empleos_cultura_CAE_2018.pdf [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 30a].

Kulturaren Euskal Behatokia. (2016b). “Sorkuntza Espazioen Mapa”. Eusko Jaurlaritza. Online eskuragarri honako honetan: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_sorguneak_2016/es_def/adjuntos/Mapa_espacios_de_creacion.pdf [Kontsulta-data: 2019ko abenduaren 3a].

Kulturaren Euskal Behatokia (2018). “Euskadiko KSlen sektoreen mugaketa kontzeptuala eta definizioa”. Eusko Jaurlaritz. Online eskuragarri honako honetan: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_ksi_mugaketa_2018/es_def/adjuntos/Delimitacion_ICC_EUSKADI.pdf [Kontsulta-data: 2020ko otsailaren 1a].

Kulturaren Euskal Behatokia. (2019a). “Kulturaren nazioartekotzea”. Eusko Jaurlaritza. Online eskuragarri honako honetan: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_nazioartekotzea_2018/es_def/adjuntos/internacionalizacion_cultura_2018.pdf [Kontsulta-data: 2019ko azaroaren 30a].

Kulturaren Euskal Behatokia. (2019b). “Kultura- eta sormen-sektoreak finantzatzeko ereduak”. Eusko Jaurlaritza. Online eskuragarri honako honetan: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/finantzaketa_ereduak_2019/es_def/adjuntos/modelos_financiacion_2019.pdf [Kontsultadata: 2019ko azaroaren 30a].

Kulturaren Euskal Behatokia (2019). “Arteen eta kultura-industriren eta sormen-industriren estatistikak 2017. Datuen sintesia”. Eusko Jaurilaritza. Online eskuragarri honako honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/estadistica/keb_sormen_industriak/es_arte_ind/adjuntos/Artes_Industrias_culturales_creativas_sintesis_datos_2017.pdf [Kontsulta-data: 2020ko martxoaren 30a].

OECD (2015). *Frascati Manual 2015: Guidelines for Collecting and Reporting Data on Research and Experimental Development, The Measurement of Scientific, Technological and Innovation Activities*. Paris: OECD Publishing. Online eskuragarri honako honetan: <https://doi.org/10.1787/9789264239012-en> [Kontsulta-data: 2020ko martxoaren 30a].

OECD/Eurostat (2019), *Oslo Manual 2018: Guidelines for Collecting, Reporting and Using Data on Innovation*, 4th Edition, *The Measurement of Scientific, Technological and Innovation Activities*. Luxembourg: OECD Publishing, Paris/Eurostat. Online eskuragarri honako honetan: <https://doi.org/10.1787/9789264304604-en> [Kontsulta-data: 2020ko martxoaren 30a].

Europako Parlamentua (2011). Europako Parlamentuaren 2011ko maiatzaren 12ko Ebazpena, “Kultura- eta sormen-industriren ahalmena askatzeari” buruzkoa (2010/2156(INI)). Online eskuragarri honako honetan: <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P7-TA-2011-0240+0+DOC+XML+V0//ES>

PlayStationTalents (2019). "Submersed llegará el próximo 27 de marzo en exclusiva a PlayStation®4". Online eskuragarri honako honetan: <https://www.playstationtalents.es/blog-item/submersed-llegara-el-proximo-27-de-marzo-en-exclusiva-a-playstation-4> [Kontsulta-data: 2020ko urtarrilaren 27a].


Sinergiak Social Innovation (UPV/EHU) (2014). “Euskadiko kultura- eta sormen-industriak. Oraina eta etorkizuna”. Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Online eskuragarri honako honetan: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_icc_2014/es_def/adjuntos/Industrias_culturales_creativas_Euskadi_2014.pdf [Kontsulta-data: 2019ko azaroaren 30a].

UNCTAD (2008). "Creative Economy. Report 2008". New York: United Nations. Online eskuragarri honako honetan: https://unctad.org/en/docs/ditc20082cer_en.pdf [Kontsultatuta: 2020ko urtarrilaren 18a].

Velasco A. (2019). "La Encartada Moda". Ocimag. Online eskuragarri honako honetan: <https://www.ocimagazine.es/la-encartada-moda-2019/> [Kontsulta-data: 2020ko ekainaren18a].



Biografia



Klik egin eta nabigatu fasetan zehar

José Ángel Muñoz



aurretiko bista

BIO

José Ángel Muñoz Otaegi

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuorde ohia da.

Honako arlo hauetaz arduratzen da, besteak beste: ondare historiko-artistikoaren zaintza, museoak, liburutegiak eta artxiboak. Joxean Muñoz idazlea, gidoilaria eta erakusketa-komisarioa da. Gidoilari eta zuzendari gisa, Espainiako zinema-akademiaren animaziozko film onenaren Goya Saria irabazi zuen 2000. urtean. Hiriko gaiei, artista grafikoei eta gai ukiezinei (hala nola hizkuntzen koexistentziari) buruzko erakusketen komisarioa izan da.

Aitziber Larrabeiti



aurretiko
bista

BIO

Aintzane Larrabeiti

Filosofiako lizentziaduna da (Deustuko Unibertsitatea), eta Kultura Kudeaketako Masterra (DU) du. Aintzaneren lanbide-karrera kultura-esparruari lotuta dago, administrazio publikoan zein unibertsitatean eta enpresa pribatuan. Aholkulari-landetan aritu da kultura-politikei, plangintza estrategikoari, aisiaren inguruko hezkuntzari, kalitatearen kudeaketari eta giza baliabideei lotutako arloetan. Kulturaren Euskal Behatokiko laguntza teknikoaren koordinatzailea izan da (2006-2010). ICC Consultorsekin lankidetzan dihardu 2006. urteaz geroztik, eta 2012an sartu zen enpresa horretan.

Ramón Zallo



aurretiko
bista

BIO

Ramón Zallo Elgezabal (Gernika 1948)

Zuzenbideko eta Ekonomiako lizentziaduna, unibertsitateko katedraduna eta, gaur egun, UPV-EHUko irakasle emeritua. Prentsan eta aldizkarietan analisi ugari eta euskal politikari eta kulturari buruzko hainbat liburu argitaratzeaz gain, ikertzaile eta irakasle gisa ekonomiari eta ikus-entzunezko, kulturako eta komunikazioko politikei lotutako arloetan espezializatuta dago, eta argitalpen eta liburu ugari ditu: "Economía de la comunicación y la cultura" (1987), "Estructuras de la comunicación y la cultura. Políticas para la era digital,, (2011), "Tendencias en comunicación. Cultura digital y poder,, (2016). Eusko Jaurlaritzako Kulturako aholkulari-lanetan aritu zen komunikazioari, ikus-entzunezkoei eta kulturari lotutako gaietan, 2002-2009 legegintzaldietan.

Fredi Paia



aurretiko bista

BIO

Alfredo Eusebio Payá Ruiz. (Algorta, Getxo; 1981)

Izen artistikoa: Fredi Paia

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua, Administrazio Publiko eta Fiskaleko espezialitatean. Musikako titulu profesionala piano-espezialitatean. Euskal Kulturaren Transmisioko Graduondokoa. Enpresa Zuzendaritza Berrikuntzaren eta Internazionalizazioaren ikuspegitik Masterreko ikasketa-espedienterik onenaren saria. Gaur egun, bere doktore-tesia amaitzen ari da (Matching Markets for Cultural and Creative Commodities).

Herri-kulturaren, ondare immaterialaren eta euskal ahozketasunaren ikerketaren arloan, bost liburu eta hiru dokumental argitaratu ditu: Aupa Maurizia! (2008), Maruri-Jatabe Bizimodua eta Ohiturak (2010), Busturia Bizimodua eta Ohiturak (2011), Uribe Kostako Bertsolaritza 1900-1980 (2013), Zitze Isukitze Hauspogoran (2019), Getxo Akordaten naz I eta II (2007, 2011), eta Akabuko Martxea-Dominica (2016).

Bertsolari gisa, Bizkaiko txapelduna izan zen 2014. urtean, eta bere pentsamendu kritikoa eta bere lan esperimental eta ikertzaile- eta irakasle-lana nabarmentzen dira. Lan partekatua egin du euskal ahozko inprobisaziorako estetika artistikoagoa eta ez hain lehiakorra garatzera bideratutako proiektu kolektiboetan: Geko Eskola, Txapel bete bertso, Zaharrak Berri Xou, Hudaltzainak, Bertso Tranpak, Euripideren Botika...

Iritzi-zutabegilea izan da Euskaldunon Egunkaria (2000-2003), Berria (2003-2011) eta Gara (2011-2019) egunkarietan.

Egoitz Pomares



aurretiko bista

BIO

Egoitz Pomares

Egoitz Pomares ikertzailea da 2013. urteaz geroztik Sinnergiak Social Innovation zentroan (UPV/EHU). Zuzenbide ekonomikoko lizentziaduna izateaz gain (Deustuko Unibertsitatea, 2004), master-ikasketak egin ditu hainbat arlotan, hala nola enpresen administrazio eta zuzendaritzan (Mondragon Unibertsitatea, 2005) edo berrikuntza sozialaren eta kultura- eta sormen-industrien arloan (UPV/EHU, 2014). Gaur egun, Soziologiako doktore-izangaia da Euskal Herriko Unibertsitatean. Bere ikerketa-jardueran, Egoitzek berrikuntzari lotutako esparruetako ikerketa-proiektuetan parte hartzen du, bai eskualde-mailan, bai Europan. Horren erakusgarri dira KSlen sektorearen klusterizaziora eta berrikuntzara eta gaitasunen garapenera bideratutako proiektuak (Transcreativa, 2012-2014) edo Europako Batzordearen Horizon 2020 programaren bidez finantzatutako egungo BEYOND4.0 proiektua.

Sinnergiak-Social Innovation (UPV/EHU)

Overview on Beyond 4.0 Summer School



* Ingelesez eskuragarri

Gipuzkoa Workplace Innovation



* Gaztelaniaz eskuragarri

Gipuzkoa Workplace Innovation : Solasaldi Zikloen Laburpena | Resumen del Ciclo de Diálogos



Polos Creativos Transcreativa



Sabin Goitia



aurretiko
bista

BIO

Sabin Goitia

Eusko Jaurlaritza Kultura eta Sormen Industrietako aholkulari ohia da. Industria Ingeniaritzako lizentziaduna da, eta industria-enpresetan (metalgintzakoetan eta automobilgintzakoetan) lan egin du hainbat urtetan, antolamenduko eta kalitate-sistemako sailetan. Geroago, sektore publikora joan zen, eta BEAZ enpresa publikoan lan egin zuen. Enpresa horren eginkizuna da Bizkaiko Kontseiluko enpresa-sarearen hazkundera sortzea eta indartzea (jarduera ekonomikoari eta enpleguari dagokienez), eta, horretarako, proiektu berritzaileak garatzea. 15 urteko ibilbide profesionalean, ETEei zuzendutako Zaintek Zaintza Teknologiko eta Adimen Lehiakorreko Zerbitzuko koordinatzailea, Enterprise Europe Network-eko koordinatzailea BEAZen, Nazioartekotzeko zuzendaria eta balio erantsi handiko enpresa espezializatu berrientzako haztegi aurreratua den BIC Bizkaiko arduraduna izan da.

Helga Massetani



aurretiko bista

BIO

Helga Massetani

Helga Massetani Piemonte Arte Bisualetako irakaslea da Buenos Airesko Arteen Unibertsitate Nazionalan, eta baliokidetasun bat du unibertsitate bereko Arte Bisualetako lizentziarako. Gainera, Palermoko Unibertsitatean (Buenos Aires) Kultura Kudeaketa eta Administrazioako graduondokoa egiteko beka bat lortu zuen. Artitadetó artisten kolektiboaren sortzailea da (2009an elkarte bihurtu zen); kolektibo horrekin, Europako hainbat hiritan parte hartu zuen. Halaber, Bitamine Faktoria-ren sortzailea da, eta, gaur egun, nazioartekotze-programen edukien eta diseinuaren arduraduna da bertan.

Bitamine Faktoriaren barruan, nazioarteko hainbat lankidetzaren sare formalizatu ditu, hala nola: Mugakide, mugaz gaindiko lankidetzaren sare, Nekatoenearekin batera bultzatua; Akitania-Euskadi Euroeskualdeko artearen eta kulturaren sektoreko profesionalentzako mugikortasun-programa, Garapen eta Fabrique Polarekin (Bordele) batera sortua; euskal arte garaikidea Argentinan eta Brasilen nazioartekotzeko programa (EAS-EZE/EAS-RIO), zeinaren bidez lankidetzaren estuan dihardugun Eusko Jaurlaritzak Mercosur-en (Buenos Aires) duen ordezkartzarekin, eta Frontière, transfrontières: pratiques frontalières du territoire elkartruke-proiektua, Agence Topo artisten zentroarekin (Quebec, Kanada).

BITAMINE FAKTORIA

Ribera 2020



Bidasoa Art Residency 2019



Euskararen eguna Irun 2019



* Ingelesez eskuragarri

Raija Partanen



aurretiko
bista

BIO

Raija Partanen

Raija Partanen Erdialdeko Finlandiako Eskualde Kontseiluan aritu da lanean 2004. urteaz geroztik, eta sormen-industriei eta kultura-gaiei buruzko proiektuak garatu ditu bertan. Artearen Historiako master bat du, eta Alvar Aalto Museum eta Jyväskylä Art Museum izenekoetan lan egin zuen Eskualde Kontseiluan lan egin aurretik.



Jon Basterra



aurretiko
bista

BIO

Jon Basterra Aldea (Bilbao, 1956)

Kazetaria. Informazio Zientzietako lizentziaduna. Bere lanbide-ibilbidearen barruan, hainbat postu bete ditu komunikabideetan (Eginen eta Euskadi Irratian) zein erakunde publikoetan (Gipuzkoako Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan), komunikazio instituzionaleko eta aholkularitza estrategikoko lanetan.

2012an, Sinnergiak Social innovation abian jarri zuen taldeko kide izan zen. Berrikuntza sozialeko zentro hori UPV/EHUK sustatu du, Euskampus estrategiaren esparruan. 2013. urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko aholkularia da.

Álvaro Sanz*



aurretiko
bista

BIO

Álvaro Sanz

MIEko (Musika Industria Elkartea) presidentea eta EHMBEko Zuzendaritza Batzordeko kidea. Álvaro Sanz Zuzenbideko lizentziaduna da Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean, eta 20 urtetik gorako esperientzia du mota orotako ekitaldien koordinazioan. Tokiko ia produkzio-bulego guztiak (asko Estatukoak dira) eta inguruko auditorium gehienak ezagutzen ditu.

EHMBE

BESTEBAT!
Zuzeneko Arteen Zirkuitua



COVID 19: Formación guía
para la organización de
conciertos y espectáculos



* Gaztelaniaz eskuragarri

BIME PRO:
Artes en Vivo conviviendo
con la COVID-19



Musika Bulegoa Sariak 2020
aftermovie



Alaitz Landaluze



aurretiko bista

BIO

Alaitz Landaluze

Alaitz Landaluze UPV/EHUko telekomunikazioko ingeniaria da, eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako politiken monitorizazio eta ebaluazioan aditua. 2008an, Berrikuntzaren Euskal Agentzian (Innobasque) sartu zen, eta, gaur egun, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Politiken Unitatea zuzentzen du bertan. Unitate horrek Eusko Jaurlaritzari laguntzen dio Euskadirako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030 diseinatzen eta ezartzen. Halaber, lurraldeko berrikuntzaren egoera eta enpresa-sareko I+G+Ban egindako inbertsioa neurtzeaz eta ebaluatzeaz, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen jarraipena egiteaz arduratzen da (sare horren berrantolaketa ere parte hartu zuen). Euskadirako Eraikuntza Jasangarriko Estrategian ere lan egin du, baita Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2020 Planaren diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan ere.

Accenture-ko aholkulari izan zen zortzi urteetan, energia-sektoreko enpresa handientzat lan egin zuen batez ere. Deustuko Unibertsitateko Enpresen Kudeaketako Masterra (MBA) du. Unibertsitate horretan, Informazioaren Segurtasuneko Masterreko irakasle izan da, eta irakasle aritu da UPV/EHUn, Garraio Sistemen graduondokoa.

INNOBASQUE

Innobasqueren 2019ko jarduera



Principales hitos Innobasque 2019



* Gaztelaniaz eskuragarri

Maria Teresa Linaza



aurretiko
bista

BIO

Maria Teresa Linaza

Industria Ingeniaritza ikasi zuen (elektrizitate-espezialitatean) Nafarroako Unibertsitateko Ingeniarien Goi Eskolan, eta Industria Ingeniaritzako doktoregoa lortu zuen Nafarroako Unibertsitateko Ingeniarien Goi Eskolan. Gaur egun Sustapen eta Garapen Instituzionaleko zuzendaria bada ere, Turismo eta Ondare Saila zuzendu du. Bertan, sormen- eta kultura-industriei lotutako eskualde-mailako, Estatuko eta nazioarteko hainbat projektutan parte hartu du, eta teknologia aurreratuak garatu ditu edukiak kudeatzeko, esperientziak gomendatzeko, komunikabide sozialetako iruzkinen sentimendu-analisia egiteko eta errealitate areagotuko teknologien bidezko elkarrekintza aurreratua egiteko. Argitalpen ugariaren egilea da, eta hizlari gisa parte hartu du nazioarteko foro eta hitzaldietan.

VICOMTECH



* Ingelesez eskuragarri

Nerea Obieta



aurretiko bista

BIO

Nerea Obieta

Ikus-entzunezko Komunikazioko lizentziaduna da, eta Marketin Masterra (UPV-EHU) egin du. 2007. urteaz geroztik, Euskaliten dihardu. Komunikazioko arduraduna da, baina esparru operatiboagoetan ere lan egiten du, hala nola kultura-sektorean, ezagutza elkartrukatzeko taldeetan eta abar.

EUSKALIT

EUSKALITeko Ebaluazio Kluba
Club de Evaluación de EUSKALIT



Resumen Gala entrega
Premio Vasco Gestión
Avanzada (2019-Gasteiz)



Rubén Otero



aurretiko bista

BIO

Rubén Otero

Ruben Otero Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean. Gainera, e-Business masterra egin du Deustuko Unibertsitatean (Eside). Kudeaketa eta Teknologiako aditu-titulua Deusto Business School-en. Tecnalía Research and Innovation-eko ICT Dibisioko eServices-eko negozio-arloko zuzendaria. Negozio-esparru hori 40 adituk osatzen dute, eta haren eginkizuna erakundeen eraldaketa digitala egitea da, elkarrekintza aurreratuari (errealitate areagotua eta errealitate birtuala) eta arkitektura eramangarriei (Wearables, IoT...) lotutako teknologiak txertatzearen bidez. Hamabost urtetik gorako esperientzia du erakundeen eraldaketa digitalari lotutako esparru zientifiko-teknologikoan. Esperientzia handia du, halaber, gobernuei aholkularitza ematen, lehiakortasun-azterlanak egiten eta esparru digitaleko ekimen eragileak diseinatzen eta hedatzen.

eServices Area ICT Division, TECNALIA

Immersivity Lab: tecnologías a través de la realidad virtual inmersiva



* Gaztelaniaz eskuragarri

TECNALIA es el socio de las empresas, que saben que la I+D+i es el cambio



* Gaztelaniaz eskuragarri


Sistemas de captura para generación de contenido 360°



* Gaztelaniaz eskuragarri

Demo SyncroWoW
20 09 2019





Edurne Ormazabal



aurretiko
bista

BIO

Edurne Ormazabal

Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna (Psikologiako espezialitatean) EHUn. 2018ko otsailaz geroztik, Tabakalerako (Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa) zuzendari nagusia da.

Hogei urtetik gorako esperientzia du irratan eta telebistan, eta komunikabideetan egin duen lanbide-karrera kudeaketaren zein kazetaritzaren esparruan egin du. Kulturaren arloan espezializatuta dago, eta zenbait komunikazio-enpresatan (hala nola CANAL+ eta EITBn) lan egin du. Euskal komunikazio-talde publikoaren barruan egindako ibilbidean, erantzukizuneko hainbat kargu bete zituen, hala nola Gaztea irratiko zuzendariarena, EITBNET eremu digitaleko zuzendariarena eta telebista, irrati eta eremu digitaleko taldearen zuzendari komertzialarena.

Bi hamarkada baino gehiagotan, lotura estua izan du Donostiako Zinemaldiarekin, eta gaur egun ere horretan laguntzen jarraitzen du.

TABAKALERA

Berriro zurekin |
De nuevo contigo



Tabakalerak, 5 Urte |
Tabakalera, 5º Aniversario



Udako zinea |
Cine de verano 202



Iñaki Otalora



BIO

Iñaki Otalora

Iñaki Otalora Zuzenbideko lizentziaduna da Nafarroako Unibertsitatean, eta Abokatutzako masterra du Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoan. Kultura-proiektuen haztegia den Donostiako Guajira enpresako bazkide sortzailea eta EHMBEko Zuzendaritza Batzordeko kidea da.

aurretiko bista

EHMBE

BESTEBAT!
Zuzeneko Arteen Zirkuitua



COVID 19: Formación guía
para la organización de
conciertos y espectáculos



* Gaztelaniaz eskuragarri

BIME PRO:
Artes en Vivo conviviendo
con la COVID-19



Musika Bulegoa Sariak 2020
aftermovie



Maitane Valdecantos



aurretiko
bista

BIO

Maitane Valdecantos

Abokatu ekonomizista. Audens-eko bazkidea da, sormen- eta kultura-industriei jabetza intelektualaren eta zuzenbide digitalaren arloko aholkularitza ematen espezializatua. Ikasketaburua da Bizkaiko Abokatutzaren Elkargo prestuko Praktika Juridikoko Eskolan, eta irakaslea hainbat unibertsitate eta zentrotan, hala nola Mondragon Unibertsitatean edo Deustuko Unibertsitatean. Jarduera horrekin batera, ikerketa-lanak eta gaiari buruzko dibulgazio-artikuluak argitaratzen ditu.

Rogelio Pozo



aurretiko
bista

BIO

Rogelio Pozo

Kimika Zientzietako doktorea. Bere karrera AZTIIn garatu du, eta bertako zuzendari exekutiboa da gaur egun. Ezaguna da nazioarteko produktu eta funtsen garapenerako inbertsiogile eta ekintzaile gisa; zientzien sektorean, produktuen merkaturatzean (B2B eta B2C) eta elikaduraren sektoreko enpresetarako estrategien eta negozio-planen garapenean dihardu. Elikaduraren sektoreko F4F Capital (20 M€) enpresako bazkide kudeatzailea da. Basque Culinary Centre Foundation-eko kontseiluko, ELIKA – Elikagaien Segurtasunerako Euskal Agentziako, Aquarium San Sebastian Fundazioko, Euskalit – Kalitatearen Sustapenerako Euskal Fundazioko eta MM SLko (ostren eta muskuiluen produkzioa) kidea da. Zortzi patente ditu erregistratuta. Ikertzaile gisa, 65 ikerketa-proiektutan eta Europako 32 proiektutan parte hartu du. Halaber, elikaduraren teknologiari eta elikadurari buruzko sei libururen egilea edo egilekidea da. Food Science and Technology International-eko eta International Journal of Food Science & Technology aldizkariako gainbegiralea da. Gainera, Euro-toques izeneko Europako chef-elkartearen laguntzailea da prestakuntza-ekintzetan, eta Madrilgo Complutense Unibertsitateko Albaitaritza eta Medikuntza Fakultateko elikagaien segurtasunari buruzko masterreko irakaslea da. Halaber, elikagaien segurtasuneko eta nutrizioko Espainiako agentziako kidea da.

AZTI

AZTI: Grandes retos,
soluciones sostenibles



* Gaztelaniaz eskuragarri

Txetxu Santamaria



aurretiko
bista

BIO

Jesus María Santamaria Yugueros

Zientzia Fisikoetako lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean (1986). 30 urtetik gorako esperientzia du I+G+B proiektuetan. Hasieran Robotiker zentro teknologikoan lan egin zuen, eta, gaur egun, TECNALIAN. Bertan, ikertzaile nagusia eta I+G+Bko nazioarteko ekimenen arduraduna da ICT dibisioan. Aldi horretan, I+Gko proiektu ugarian parte hartu du (eta zuzendu ditu), honako gai hauen inguruan: prozesuak kontrolatzeko eta gainbegiratzeko sistemak, eduki digitalak, infomobilitate-aplikazioak, hiri adimendunak, logistika eta garraioa, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien aplikazioa enpresen eraldaketa digitalerako. ROBOTIKER Fundazioak egindako "Estudios de Prospectiva Tecnológica: horizonte 2005" liburuaren egileetako bat da. Liburu horretan, "Prozesuen gainbegiraketa eta kontrola" lantaldeko zuzendari gisa parte hartu zuen. Esperientzia handia du Europako proiektuetan, azken esparru-programen barruan (FP7 eta Horizonte 2020). Gaur egun, Europako sormen- eta kultura-industrien plataforma teknologikoa den NEMeko (New European Media) Zuzendaritza Batzordeko kidea da, baita Europako Batzordea aholkatzen duen elkarrekintza-teknologien adituen taldeko kidea ere.

Kredituak

Argitaraldia:
Eusko Jurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
<http://www.euskadi.eus/ksi/>

Egileak:
Cristina Ortega Nuere,
Isabel Verdet Peris eta
Sandra del Campo González

Itzulpena:
Bitez

Diseinua eta maketazioa:
Otzarreta Think&Make (Zarautz)

Data:
2020ko abendua

KSIak Euskadin

euskal kultura- eta sormen-sektorearen garapenean zehar ibilbidea